

ENAGUSIA

IUSKAL  
DAZLEEN  
TORATEGIA

KAIERAI



Euskal Biblioteka Labayru



1010888

LITERATURA / N. 239

v.1

Carmelo Etxenagusia Uribe Bro.


EUSTAKI IDAZLEAK

ZORANGIA

(Bikzieraz - Irizalaz)

Antología de Prosistás Vizcaínos

Seminario de Dárdia - 1965



## ESKEINTZA: NEURE EUSKAL-IKASLEAI

Emen dozu ba, alekoen baten, Lorategi ta Iztagitxu au... Zourutxat ogiñak dira, maitasun aundiz, gure euskera zaarra zekonago ezagutu dagizun. Idazleak, izan be, euren lanetan czagutu bear dira.

Bertsotarako, or dozu A. Oñaindia'ren "MILLA EUSKAL OLERKI EDER"; arrezkero agertu diran bertso-lanik gorengoenak (zelan ez aitatu A. Gaudiaga'ren "ELORRI"?), liburuetan eta aldizkaristen aurkitu zeinkoz: "Egan", "Euskera", "Karmel", "Olerti" ... Itz-laugilileen Lorategirik ez geunkan orain arte gure Bizkaian. Ba-dagoz, bai, iru "Antolojia" eder: A. Villasante'k bere "Euskal Gramatika llabur" liburutxuaren azken aldian eta A. Omaetxebarri ren "Euskera"n argitaratu dabezanak, eta P. Lafitte'k argitaratua ("Eskualdunen Lorategia Egia esan, Bizkaiko idazleak ez daude eurotan toki aundirik; bai, dana dala, A. Villasante'ren Lorategietan bein baño sarriago billetu izan dot argitasuna ta iturria.

Lorategia? Bai ta ez: liburutxo au egitean, enez besti edar-billa ibilli; sarritan neure euskerasko eskoletarako gai billa be bei. Orregaitik, eder-miñak eragiflik sartzen ba'zara baratze oneten, sren baten ez dozu onlango edertasunik aurkituko sinboste ta ainbeste orritan. Parkatu! ... Beste batzuetan, ostera, erritata geratuko zara, zuuk uste ženduan baño bitxi ugariago idorotean, bai idezla zaurretan, bai gaur egunkoetan.

Beste utsune bat be badagoala konturatuko zara: idazle batzuri ez yaku emon bear eban eta mrezi oben tokirik. Kerexeta batuk, Erkiaga'k, Zubikaray'k ... orri ugariago mrezi ebezan onclango Lorategi baten. Bañea idazleok, alde betatik, oso ezagunak dozuz; ta gañera, astiroago ta zekonago, euren liburuetan, ezagutu bear doguz.

Idazle bekotxen aufetik jarritako zertzeladak, geienak, A. Villasante'ren "Historia de la Literatura Vasca"tik artuak dozuz. Liburu onetantxa, edo L. Mitxelena'renca, osotu zeinkoz oar laburroak.

Ortografia, al dala, gaur egunean geien bat erabilten dana ipiñi deutsut, bear bida ez besti, zuzenegi.

Beste gauzatzu bat: Lorategi oneten ez dozu aurkituko ari zuzen bat. Izañ be, orriek egiten asi nintzanean, eneukan Antoloji bat egiteko asmoñik. Auxe zam nire ardura bakaorra: irakurle barriai euskal irakurgei errez eta etsegiflik eskeintza. Gorora istorri yatzan burura orriok osotutea, bai leenagoko idazleen stalekaz, bai oraingoenakaz be. Olan gure euskal idazlerik geienak ezagutu zeinkez, apurtxo bat baintzet: genetiko lana -zeatzago ta zekonago czagutzea- zure alegiñari dagokio, idazleon txatalak banik liburu osoak sarri-sarri irakurriaz.

Zer gaiago? Auxe bakarrik: AURRERA ta gure Otxandio'ko santugin eta olor kariak eta besturiko bertsoak:

EUSKALDUN JAIO NINTZAN  
EUSKALDUNA AZI;  
EUSKERA UTSIK AMAK  
EUZTAN IRAKATSI.  
EUSKERA MAITE-MAITE!,  
ZABILTZ NIGAZ BETI;  
EUSKERA IL EZKERO ...  
EZ DOT GURA BIZI !!! (F. Arrese-Beitia)

-- ANTOLOGIA DE PROSISTAS VASCOS -- DIALECTO VIZCAINO --

Evaristo de Bustintza "KIRIKIÑO" (Mañaria, 1866-1929): "sin duda, el escritor vizcaíno que más popularidad ha alcanzado en el público auténticamente vasco... Maneja a maravilla el vizcaíno popular y tiene una gracia y sal incomparable, sobre todo en el diálogo y en la narración de cuentos e historietas cómicas".(L. Villasante).

OBRAS: "Abarrak" (Bilbao, 1918) y "Bigarren Abarrak" (Amorebieta, 1930); ambos, recopilación de narraciones y cuentos que publicaba en revistas y periódicos... Por su euskera popular y auténtico, "Kirikiño solo atrajo a las letras euskéricas más lectores que todos los autores de la otra dirección (la purista) juntos"(S. Altube).

I.- GAZTELA -MUTILLAK

Bein, Burgos probintziyako uri baton, Durango inguruko mutil-aldra bat ebillen zubi bat iragiten; oraim eztagigu zogaitik, alkatiak etzituon mutillok maite, beti asarreka erabilten ebazan. Domeka arratsalde baten erriko plaza zabalaren erdiyan egozan mutillak barriketan; euren ondora urreratu zan txakur eder bat; alkatiarenazala esan eban batek, eta, au entzunik, Abadiño-ko Asensio Sagastasoloa-k arrikada audi bat emonda bialdu eban txakurra txiliyoka.

Laster etorri yaken erriko aguazilla, esaten alkatiaren aginduz, guztiyak erriko etxera yuateko. Tuan ziran ba, eta alkatiak itzaldi garratza egin eutsen, gogor es-katurik esateko nok yo eban txakurra. Erantzun cutsoen eurek ezekiyela, txiliyuak entzun zituezala, baña ezebela ikusi nok arriya yaurti eban, eurek ezegozala txakurra zaintzen, eurei ezeutsela arduraik bape txakurragaítik, eta bakian izteko eurei txakur-kontu areekaz, txakurrari batenbatek emchdako arrikadia gora-bera munduak eze-bala ikaraik eingo-ta.

Alkadia, mutillak bildurtziarren, euren izen-abizenak artzen asi zan eta papelian ipinten. Orretan ebilzala, txandia eldu yakon Asensio-ri be, ta alkatiak itandu eutsion: "¿Cómo te llamas?" - "Asensio" - "¿El primer apellido?" - "Txakurra" - "¿Y el segundo?" - "Jodabena" - "¿Asensio Txakurra Jodabena?" - "Si, señor, eso."

Au entzunik, barre-purrustadaka asi ziran lagunak, eta alkatiak zarraparra andiaya atara eban.

- "!De mi no se ríe dengún nacio en el mundo! !Yo sus aseguru que sabré quién de usotros ha apedreado al perro, aunque no lo queráis decir, y lláverá su merecido. Lo he de saber!"

- " Ya temos dicho a usted, tanta copla", esan eban Asensio-k urteyeran, eta guztiak barre-zantzoka urten eben bape bildurtu barik. (BIGARREN ABARRAK, pp. 172-3)

II.- A R A T O S T E ( Carnaval )

Mutiko sostor pillotxo bat agiri da, obeto esateko, eskutaten da berezi-barruko ikeztoci-zuluau.

- Mutillak, gaur aratoste dok, eta koko jantzita juan biar yuagu errira.
- Ederra asmau dok. Ori, ori...!Aupa, mutillak!

An da poza koko janzteko. Zuzendu dabez nundik edo andik zapi zar batzuk; norbaitetxera-ostera bat eginda, ekarri dau aril bat amari ostuta edo. Zapi zar ta papelok banandu dabez, ta kokote-aldian ari puzkategaz lotuta, egin ta jantzi dabez karatula dotoriak. Gero, arkondarea praken ganetik imiñi, txapela ta jakia itxulijetara jantzi, praka barrenak toloztu ta jaso ija belsunetaraño... ta orra kokomarro jantzita nire

(JARBAITZERO)

erriko mutiko koskorrok... Eurok baño obeto marrotuko dira urijetakuak; baña ifior eta ixango pozago, jantzi polit-ederrak erabilli-arren.

!Arek egiten dabez barre-algarak alkarri begiratute!

- Mutillak, ikusiyozube ori arkondarea. Lester ezagutuko abe i, txarrito ori.
- ¿ Euk al daukok garbiyagua, zotza lakoxe txanka me orrekaz?
- Oni, barriz, karatuleak ezin yautsok artu arpegijaren erdija be; ! ain yaukok aldaba andija!
- ¿ Aituck, i, barritxu? Eñeukek trukatuko, ba, ik daukon gaztaña trikol orregaitik
- Barriketak itxi ta tirozue, gayuazan errira... Gaur atso gustijak iksratu biar yuaguz.

Piperpote utsitu batzubetan arri koskorrok sartu ta zarata eragiñaz, abijau dira noz-edo-ncz oyuka ta santsoka. Euren bidian lenengo aurkitxen daben etxe-ondoko errekatxubaren ertzian eskaratz-tresna batzuk dagoz legortzen, garbituta gero; artzen dabez andik sartzen bi ta mazkillu bat, onek be zarata egiteko, ta abarrots andijagaz sartzen dira errijan.

Iñun katurik ikusten badabe, arrika egiten dautsoe, katu-karraixi andijk eurak egiten dabezala. Txakur gustijak arrapaladan duaz igesi etxe-ostictara edo etxe-barribetara, al daben lekura, andik asten dirala ausika ixildu barik bildurrez. Batu yakez etxe-artian olgetan ibilli diran erriko ume guztijak, eta danak batera jarraitzen dabe.

Arrapau dabe, geruago, errota-osteko gaztañadijan, belarri andidun asto zar-zar bat; igo yako bat bizkarrera, eta bai-dabiltz poz-pozik alde batera te bestera, itxi-a aurkitxen dabezan ate guztijetan arrika ta makillaka zarata andijk ataraik.

Atso gustijak barre santso baten dagoz eurai begira, bizi-bixi te pozik daukezala euren begi tximurrek, eta agin lokaren bat edo beste agiri yakezala euren abo sartubetan... Baña ludi onetan poz iraunkorrik eztago, eta an dabillan pozak be egundoko ariñen alde egiten dau. Iñok igarri barik bertaratu dira, alde batetik errrotarija bere astuaren billa, beste aldetik sartenak eta mazkillua artu dabezan etxe-gizone bere tresnaen eske...

Kokoteko bi galantak artzen dauz asto-ganian arro-arro dabillan "zaldunak"; eta tresnakaz dabiltzanak, baita beste enparauak be, artzen dabez ostikada ta zapladako "desentiak"... eta ortxe amaitu da gure erriko aratzostietako poz gustija.

Uxatu ta sakabanatu dira mutiko koskortzuok erri basterretara, imifii dabez jantzi-jak egunoro lez, ta kitu... Itandu egiyozube mutiko onei aratoscietan olgau diran ala ez, ta erantzungs dautzube albuak minduta daukezala ondiño barriaren barriaz.

Ez Bilbon, ez Parisen, ez Nizan, ez iñun eztira a olgau mutiko koskor orrek baño geyago. Gixon egin daitezanian be gomutauko dabez eurok aratosste eguneko jazokunak. Errrotarijaren kokotekuak eta beste gixonaren ostikadak eta zapladakuak euren bizieta gustijan pozarren gogoratuko yakez.

Poztasuna eztago onetara edo orretara jantxitian, asko edo gitxi eukitian; postasuna norbere barruan dago, norbere goguan. (ABARRAK, pp. 56-59).

### III.- BITARA ULERTU (edo Abadiari txapela kendu)

Aditz bat bada gure EUSKERA onetan bitara ulertzen dana, bere yokera baten, Eta emen asten ba-naz aren azalpenak egiten, badskit irakurle gizaxoari gogait eragingo dautsodala ta itxiko nauala. Ori yazo ez daiten, ipuin antzeko bat esango dot, beragaz irakurliak argiro ulertuko dauana.

(JARRAITZEKO)

Auzune bateko ermita txikiyan, Meza dago. An inguruan jayua dan abade gaste batek albistea bialdu dau Meza emoten duala onen egunetan eta onen ordutan, mezatarasko biar izaten diran gauzak albistariagaz bialduta. Ermita aretan Mezarik emon eztala urte asko dira, suzunia bastertxu egiten dalako. Orrengaitik ango biztanliak poz-pozik aurkitzen dira, asteguna izan arren, danak ermitara yuateko gertu mozatara.

Umiak, batez be, urduri dagoz. Pillotxo baten, neskato ta mutiko, onetara diardue:

- Lester da emen abadia... Zuek, multillok, - diño neskato pizpita batek -abadiari txapela kendu biar dautsozu.

- Ene! - erantzun dau mutiko zoli batek -; Abadiari txapela kondu?

- Bai, - diñotso orduantxe eltzen dan bore amak, - txapela kendu biar yako, eta zuk kendu biar dautsozu.

- Nik, ama?...

- Bai, zeuk. Eta kentzen ezpa'dautsozu, ederrak artukozuz...

Mutiko zoliya ikaratuta gelditu da, txapel-kentze axe zelan egin aal izango ete dauan asmetan.

Etorri da abadia. Txera andiya egin dautsoe, eta beriala sartu dira ermitan aal izan dabenak, enparauak ermita-surrian jarrirrik. Abadia bascrago lez etorri da: oñetako senduekaz, adaki luze bat eskuetan, eta buruan abadetxapel biribil baltza. Altxareratu danian, ermita-gelako leyora égon da len aitatu dogun mutiko zoliya, eta andik arrapau dau abadiaren txapel biribil baltza, antxe leyuaren onduan egoana. Artu ta etxera daraua. Arritzen dira guztiak. "Ondiño olakorik!", diñue.

Zelan edo alan, mundik edo andik, lorratza artu dabo, axe mutiko zoliya dala. Pero billa yuan eta ekarton dabe.

- Txotxo, zegaitik eruan dok nire txapela? - itanduten deutso abadiak.

- Amak esaustelako, - erantzuten dautso mutikuak.

- Nik esauat? Jaungoikuak parkatu dagiala!, - diño amak.

- Bai, zeuk esaustazu abadiari txapela kentzcko, ta kentzen ezpadautsot, ederrak emongo zeustazala.

- Eure txapela kentzeko, abadiaren surrian, nik esauat!!!

Asi da barreka abadia, ta gero danak, okerra zegaitik sortu dan igarri dabenian. Bai ba, "abadiari txapela kendu biar dautsazu", bitara ulertzten daka da: edo abadiari buruan daukona kendu, edo "norbere txapela grantzi abadiaren surrian", biak ulertzten dira esakun aretan.

.....

#### IV.- ZERUTAR BAT -.

Nik orain gomuta eztodan etxaguntza baten bixi ei zan bigarrenez eskonduriko emakume bat, buru-barruba utsik edo beiñik-bein ondo beterik ezeukana bera, irakurliak igarriko däuan lez.

Agertu yakon bein ate-onduan eskeko bat, bere soñekuak zarren-zarroz danak triskilduta, alde guztijetatik zulatuta, oñetakuak abua zabalik barreka, buruko txapela be koipez beterik, erdi-erdijan leyo biribil bat cbala, bertatik ule pillo bat agiri yakola. Bere arpegi, ule, bixar ta makillarañoko guztijak, danak ziran soñeko, oñetako ta txapelaren antzkuak; arlote andijagorik, amosetan bo, iñok eleuke sortuko irudimenian... Arriturik, ikusi ebaneko, itandu eutson emakume arek:

- Ene! ¿Nundik urten zara era orretan? ¿ Nundik zatoz?

- Zeutstatik, andrea - erantzun eban Arlotte'k.

- ¿ Zeruetatik zatozala? ¿ Zeruetatik esan dozu?

- Bai, andrea; andixeek nator.

(JARRAITZEKO)

- Aitearen da Semearen!... Ondiño alakorik! Orduan, biarba, ezautu ixango dozu Juane guria. ( Auxe zan bere lenongo senarraren ixena)

Espetxe-nagositik etorran azeri zarrak laster igarri eban zelako "lelantoni" eukan aurrian, eta, bada-ezpaden, jarraitu eutson oker-aditzari.

- Ezautu ez ostera! Bai ta... aizkide andijak gare.

- Ene ba! Ta, ¿zelan dabil bera? ¿ Ondo bixi da?

- Gitxi gora-bera, neu lez. An ezta oi, beste bixikerarik. Danak arlotte, danak zorriz, ardiz, soñeko zarrez ta nekez beterik.

- Ai ene Jaungoikoa! Jaune koitadue! ¿ Nok uste ixan biar olakorik? ¿ Bigurtuko zara bertara barriro?

- Bai, aldi andirik ezta igaroko ni ara juan orduko, uste dot beintzat.

- Orduban, eruan biar dautsozuz gauzatxoen batzuk, nire bijotze Juane ein txarto bixi ez dadin.

- Bai, bai, pozik be; ataraizuz gauzok.

Atara ta emon eutsozan ba, diruben batzuk, soñeko barrijak tolestuta maletatxo baten, eta ganera gorantzi andi ta ugarijk Juane koitaduarentzat... Zerutarrok alde-eginda gerotxuago, agertu zan nundik-edo-andik emakume aren bigarren senarra. Emaztiak esan eutson:

- ¿ Bakixu? Juanen izparrak gaur euki dodaz.

- Arranua! ¿ Nundik artu dozuz ba?

- Oraintxe emen egon dan gixon bategandik; izpar txarrak ekarri dauz.

Azaldu eutson gero senarrari zelan emon eutsozan Jaunontzako, esan diran gauzak. Au entzun orduko, itandu eban gixonak:

- ¿ Norantz artu dau izpardun orrek?

- Andixe bidetik; ¿ zer zuaz egiten?

- Ba... Juanen barri jakin gura dot neuk be ta, juan biar dot izpardunagaz itzegiten.

Atara eban kortatik zalditxo polit bat, ganera igon, eta tximisten bazon arin al-dendu zan... Baña Zeutako espeluetarrak arima zarra euki, ta otu yakon, baten-bat urten litxakela bere atzian; eskutau eban maletatxua sasi-arte baten, eta jezarri zan bide zidor baten asijeran.

Zalididunak, aldu zanian, itandu eutson arlotteari:

- Aizkidia, ¿ikusi al dozu bide onetan maletadun gixon bat?

- Bai, bide zidor onetatik artu dau, baso sarratu erditik gorantz. Oñak biskor daruaz berak, eta bere billa ba'zuaz, errezañki arin ibilliko zara.

Basua etzan zaldiz ibiltekua, ta bere esturan, senarrak emon eutson bestiari abe-ria, esanaz: "Mesedez, ¿zaldi au eukiko daustazu apur baten?"

- Bai, zuaz ardura barik, emen itxarongo dautzut.

Alde-egin eban leluak; atara eban Arlotte k maletea ta zaldiarri igonda, ariñari emon eutson pozarren... Bestiak, barriz, bota biar zituan gibolek abotik, mendi artako baster gustijkarakatu biarrez, batera ta bestera, atzera ta surrera, gora ta be-ra... Azkenian, arnas-estuka, nekatuta, ixeredituta, bigurtu zan zaldijaren eske, ta arrizkua lez geratu zan, iñor ikusi ezebanian. Ulertu eban gustija, artu eban cruapena, ta juan zan etxera lotsatuta... Emaztiak, eldu zanian: "¿Da, ikusi dozu?" - "Bai". - "Eta zaldijari, ¿zer egin yako?" - "Emon egin dautset Juaneri eruateko, biarbada guk baño aren biar-ixan geyago euki lei ta..." - "Ai, zu lango gixonik eztago ludi gustijan! Zorijonekua zugaz eskondu nintzan ordua!". ( Amaia)

V.- DEUN IXATEKO BIDIAN.-

Basetxe baten ei-eguan (antziñe) egundo elexara ixan etzan mutil bat. Bere ugazabak bialdu eban bein Meza-entzuten; eta elexia nun aurkitzen zan ozekijan lez, esan eutson lagun asko sartuko zan etxe batera juateko...»

Jatzi zan, ba, kalera gure mutil ori, ta eldu orduko ikusi eban estegu andi bat elexatik etxerantz joyala, gomutatu eban ugazabaren esana, batu zan esteguaz, ta sartu zan dansakaz ezkon-barrijen etxian... Iñok be ezeutson ezer esan, senide edo auzokoren batek beragaz ekarri ixango ebalakuan, jarri zan mayan, eta ederto bete eban sabela ango jan-edari ugarijekaz.

Pozik bigurtu zan etxera, ta aste gustija juan yakon bere ugazabari itanduka, ia igandia noz etorran. Ugazabak erantzuten eutson:

- Mutil, etorriko dok. Itxuraz ondo ibilli intzan, orrenbeste gurari adirazoten dokan ezkerro barriro be juateko.
  - Bai ondo ibilli! iñó!... estuen nago igandia eldi arte.
  - Kristiñau gustijak orrelakoxiak ixan biar layeukiek. Asko ta asko yagozak,mutil, Mezatarako beti nagi surkitzen diranak, beste gauzetarako bizkorra k ixaten dozak, beña.
  - Enaz ni, ba, orretarikua. A zan atsegiña nik suki nebana igandian! Eta, ejente nagija dagola sin gauza ederrerako diñozu? Ziñestu be ezin leiteke.
  - Mutil, ori dok, ori, kristiñautasuna; ua, ua bide orretatik, eta neuk diñoket deun aindi bat ixatera elduko azala.

Larunbata gabea amesetan egin eban mutillak, okela-zati, bixigu-erre, ogi zuri, gastae, pitxerkada ardao ta beste onelango gauzakaz. Itzartu zanoko urten arin ogetik, arrapataka jantzi ta bizkor kalerantz, abo gustija gozotuta, gora-goraka atsegiañan atsegiañez.

Kalera eldu zanian, entzun zan Mezatarako azkenengo txillin-otsa, ta agaitik ikusi eban jentia arin elexarantz; berau be arin-arin juan ta sartu zan erdi ingururako. An gelditu zan begira alde gustijotara, ta ikusi ebanian etorten ziran gustijak ur bedeinkatu-ontzien sartzen ebezala euren eskuak eta gero arpegira edo (berentzat) abora eruan, ariñeketa baten juan zan bera be, ta beso gustija sartute ibili zan ia zatijen bat surkitxeban, baña alperrik, an saldea baño besterik ezegualako. "Ederra jokatu yaustiek!", esan eban agin-artian... Geratu zan gero baster baten ixillik eta adi; ta izkaldija asi zanian, alde-egin eban gogait eginda.

Etxeratu zanian, bai-diñotso ugazabak: " Ona emen gure kristiñau zintzo su be, zintzorik ba'dago iñun! "... Mutillak, arpegi illundubagaz : " Gaur ederrak emon daustiez".

- Zer, ba? Jo egin abe, ala? Ta zegoitik? Mezatara juetiagcitik? Zorionekua az, gauza deunakaitik nekiak igaroten asi azalako; esan neuan nik, deun andiren bat ixango intzala, jarraitzen ba'eutsokan asiriko bidari... Eta, zelan ixan dok?

- Berandutxu eldu naz gaur bai, ta saldea baño besterik eztauste itxi. Itxaron dot gero puskatxu baten, baña ezer bere ez. An surrian iru gizon, saku antzeko gauza batzukaz jantzita, ibili ta ibili, batera ta bestera, nik eztakit zer egiten; beste bat, ostera, sabai-ganian iru milla txilibitu joten; alkarri didar bat edo beste egiten ixan dautsie, ulertu ezin leikian eran; geruago igon da beste bat lexibontzi baten gona, ta asi da agiraka ta didarrez gustiz ssarre. Auxe ikusi dodanian: "ezer artu ez, ta nik zegaitik entzun biar yuadaz,ba, olango demoniñokerijak?" esanda, alde-egin dot. Uurrenguan enaz azkenen juango" - "¿Bakik nora juan biar dokan ik?... Kertara!... Antxe daukak lekurik egokijena, astotzar arrayo orrek! Eztausku azkenian "deun" txarrak urten mutil eder onek!" (Azkena).

8 8 8 8 8 8 8 8 8 8 8 8 8 8 8 8

## VI.- ATXURIKO "MILLAGRUA" (Jazorikua)

Emen edestuko doguna = jazo zanetik ona, urte asko igazi dira. Orduan Bilbao'k ogei milla biztanle baño askoz geyago ezebazan... Ezegun orain dagon beste "guardia municipal", naikua ziran iru edo lau txinel arrija zaintzeko, gabezko "sereno" kantari batzukaz. Onelako erri baten aituten da erraz egin leitekela emen edestuko dogun barrabaskerija, erri gustija barre baten ainbat egunian euki ebana.

Bilbotar barregarri batzuk iragarri eben bertako isparringi baten, eztakit nungo erritan il zala atso aberats bat, eta milla ogerleko batzul utzi ebazala Bilbao'ko erren edo kojoei bananduteko, atsua be erreña ixan zalako ta Bilbao'n jayua; diru ori bananduko yakela Atxuri'n, etxe bateko atarijan, bertan aurkeztuko ziran erren bilbottarai, onen egunetan eta onen ordutan.

Bilbao'ko txiro ta gosekilen artian ikara andia eragin eban iragarki onek, eta egun batzuetan etzan ixan beste izketagairik auxe baño... Eldu zan eguna. Atxuri'ko etxe aretan agiri zan atarijan mai bat, beronen ganian tintonizija ta ingijak, iru jezarleku, basterrian zorro batzuk zerez edo apez beterik, eta iru edo lau gixon, piperra baño seriyuago, alkarregaz izketa ixiltsuan, atarijan batera ta bestera ibilli ebiltzala, eperdi-ganian eskuak alkartuta.

Goiztxo asi ziran kojuak agertzen kalian. Geyenak etozan makulu bigaz ta anka bata dingiliz; bai-ziran etozanak eperdi-ganian erdi-tatarrez; baita burtxoyetan etozanak be, iñok bultzaka eruanda. Danak zurbil eta arpegi aulagaz, edonor errukituteko lez.

Iragarrita egun ordurako. kale gustija aurkitzen zan errenez beterik. Balkoyetan eta leyuetan egun jentiak arritura esateban: "¿Nok uste ixango eban Bilbao'n onen-besteko kojo eguanik?"

Atarijan egozan gixon seriyuak adirazo eutsien kalekoai, diruak gertu ipiñi bier ebezala ta orregaitik piskaten atia itxiko ebela, ta asko belatu barik, laster asiko zala diru-banandutia...

Itxi eben atia ba, ta gerotxuago barriro zabaldu zanish, tximistia baño ariñago urten zan andik... ¿zer uste dozue? Zezentzu bat!! ¿ Nok azaldu an ixan zan usubillua? Asi zan sezentxus topeka, au bota ta ori bota, ta ango añeketia, kojuak ixan-arren! Egundoko ariñen, miñutu bat baño lenago, garbitu zan kalia, makillaz ta burtxoez beterik gelditu zala. "Millagrúa" ixan zan. Zezena agertu zan orduko, kojo gustijak osasunera etorri ziran... Balkoi-leyoetako jentia, barriaren barriaz tripa gustija minduta geratu ziran. Diabrukeri au ikusi eben bilbotar zarrak barre-zoroka asten ixan yakuz berau aitatu dogun aldi gustijetan.

Amaika gixon gogaldi ederreko jayo ta bixi ixan zan lenagoko Bilbao'n!

&&&&&&&&&&&&

## VII.- TXIMISTARGI BARRIJA ( Jazorikua)

Emen irakurriko dozubena, lengo urte baten Durango'n jazo zan... Merkatu-eguna zan, eguraldia illun-illun egun; emakumetxu bat sartu zan Artekale'ko saloki edo denda baten, eta ikusirik tximistargi-makatza, apur baten argijari begira-begira egon eta esan eutson etxe-Andreari:

- Ene! Ay da argien ederra! Egundo onakoriki!
- ¿ Gustetan yatzu, Ana-Mari?
- ... bai. Polito dago kristalezko bere ontzitxo orretan. ¿Zenbat kostetan da ona-ko bat?
- Bost errial.
- Bat erosiko neuke. ¿Nun saltzen ete-dira?

( JARRIATZEKO )

- Neuk daukodaz ementze. ; Gurozu bat, ala?
- Bai, iministazu bat. Sekuleko ikarea artu bear daure Kosanton gureak eta mutilek gaur gabean argò dotore au imini daidanean gure subetean.

Imini eban argi-makatza polito-polito bere zimeratxuan (zestellatxuan) eta agur esanaz juan zan Ana-Mari ona, leu urteko umiak baño gaiztatasun geyago ezeukon emakumezku zintzuba... Uurrengo merkatu-eguna zanien, orra nun agertzen dan bera Artekaleko denda aretan, eta bai-diñotso etxeko-andreari:

- Ara ba, lengo egunean eroan neban argi-ontzitzua etzan ona ixan edo...
- ¿ Ez?
- Neu pozarren eldu nintzan etxera, ta estuen nengoan gaba noz etorriko zan, gure gizonok ikaratute isteko; ta, esakerea dan lez, "nire poza pozure" yoan zan. Imini neban argitxu au ta... len beste illun. Burle egin eusten sano gure gizonok, esaten eurela, erretzinean alderako eztaola argirik ondicko ta... ene, enei...
- ¿ Fundiduta egon ete zan, ba? ; Ekarri dozu bonbillia?
- ¿ Zera? ; Argi eitekoa? Bai... ara...

Saloki-andreak artu ta imiñi eban beste makatzaren lekuben, berau kenduta, eta ederto argi egin eban.

- ¿ Ikusto zu, Ana-Mari, zein polito?
- Andie da gero!...
- ¿Zelan imiñi zendun, ba?
- Nik, ba... ortxe daon lez, goiko kuartuko untze batetik abarka-kordelaz dingilizke...
- Baña, Ana-Mari, Jaungoikusak parkatu daistala; letrizidaderik ezpa'daukozube, onek eztautzube balijo!

Artu eutson argi-makatza saloskari edo denderiak, eta emon eutsozan atzera bost erlak, eta iñun diran atzalundiak (esplikaziñuak) be egin eutsozan aditu erazoteko tximista barik, edo "letrizidade" barik ( dendarriak esaten eban lez), etzala gauza argi egiteko etxera eruandako makatza. Ezeban ezer ulertu, ta len bestien juan zan, edo len baño txartuago, buru-barruban naste illun bat eroyalako. (Azkena).

&&&&&&&&&&&

#### VIII.- URTEBARRI BARRI

Ene irakurliak, azaldu gura deutzubet nire baserriko ekandutxu bat, arai: Or duaz estartea gora mutil koskor batzuk, txor-txor-txor, gustijak batera berriketan, une ba-kartxu baten be ixiltzen eztirala, musturrak gorri-gorri otzaren otsaz, oñetakuak eta praka-barrelak loi-loi eginda lupetzez. Eltzen dira basetxe baten aurrera ta:

- ¿ Emen kantauko ete yuagu, mutillak?
- Bai bein!.igaz be emon yeskubean da...
- Tirozube, ba...

Erreskadan jarten dira, ta ben-ben, gauza andiren bat egiten ≠ bañinardube lez, asten ditu: " Urtebarri barri / daukohak eztaukonari / nik eztaukot eta niri / Emoten eztaustana / txarri-balarri!"...

Orain arteko abesti au euzkeraz dago, ta zer-edo-zer esan gura dau; baña emendik aurrerakuak erdi euzkeraz erdi erderaz esaten dabez, ta zentzunaren apurrik eztauke, tentelkeri utsa: " Don Nikolas caramel / konpesote Mariandrés, / alarguna dontzellia / cantaremos alegría. / Lau ventana, bost ate, / sei etxe ta subete. / Si, si, si - No, no, no / otzara bete solomo. / Aingeruak gara / zerutik gatoz / una limosñita / porramor de Dios; / aquí estamos cuatro, / cantaremos dos / agillando agillando!! / Matxin-arrando!! "

Abesti onek asmau ebazana zororen bat ixan biar; baña ezebazan iñok asmauko, ebese-

ti askoren zatijak edo-dira, mutikuak erabilli-ta-erabilli, alkarregaz nastu ta itxu-lastu dabezanak. Ondo ixango litxake barrijak egin polito ta egoki, ta until txikije irekatsi, ta saritxuak emon ugari eurak abestuten yatorkuzanian, poztu daitesen, eta ekandu zar ori bere loyetarik garbituta ipiñi... .

Nire erriko mutikuak eztabe ondo abestuten, baña sari andirik be eztabe artzen; gaztaña txikolen batzuk, sagar txatxaren bat, intxurren batzuk, tremes-ogi zatiren bat... dirurik ez, orixe bai ez!; an diruba baño lenago, belarri bat emongo leukie. Esaten dabe, iñoz, ta eztakit zein etxetako etxekandereak bein lukainka-mutur bat emon ebala. Orain jakixu noz ihan zan jazopen arrigarri ori; ba, ni mutiko sostorra nintzala "Urtebarri" abesten ibilli oi nintzanian ( eta, amaika zaparrada jeusi da ordutik ona!), gu baño andijaguak ziranak esaten eben, eurak be entzun ebela lukainka-mutur orren ipuin ori.

Craintsu, lengo urte baten, jazo zan gauza arrigarrija, iñoz amesetan be uste ihan ezebena nire erriko mutikuak: "karameluak" emon eutsiezan basetxe baten.

Bai, eldu zan mutiko-aldratxua "Zinko" deitzen yakon baserritar baten etxera, ta oi dan lez, abesten ekin eutsen gogorik onenagaz "Urtebarri barri"... Euren abeskundia amaitu ebenian, agertu zan "Zinko" etxeko atian, barreka-barreka, ta esan eben:

- Mutillak ba... ezkozubez arrapau gauza andirik emoteko moduan; orraitijo, gura ba'zendubez, atzo Durango'tik ekarrita ortxe daukoguzan karamelo batzuk emongo geuns-kixubez.

- Bai, bai, artukuz bai pozik be.

Karameloen billa "Zinko" barruratu zan bitartian, mutikuak ikotika pozaren pozaz; & noz artu eben, ba, alako saririk gixajuak? Karameluak!... Urten zan "Zinko" esku-bijak bete karamelogaz, ingi zuri-zurijetan ederto bilduta bakotxa, ta iruna emon eutsiezan mutikoei, barreka-barreka esanik: " Gauza merkiak eztozak onek, ta bakotxari iru emonda be, pozik izango zarie". Ixango etziran ba! Ondo pozik artu eutsoezan!

Estartea bera bitxabalerantz joyazala esaten eben: " Orixo ZINKO lako gixonik, garaunik be etxagok errijan... Olakoxe gixonak gura neukezak... Sekuleko "Zinko" dok ori, gero... "Dies" ixatia be merezidu yok."

Onetan, euretaiko batek zabaldu eben karamelo-ingija ta... zer zan a!... barruban marraskillo-masala eukan; bestiak, su ikusirik, zabaldu ebezan ingijk, eta gustijetan eguna marraskillo-masala... Asi ziran barre-purrustadaka alkarri begira, ta era-bagi eben errijan ezeguala "Zinko" baño gixon burletijagorik.

Bitartian, an agiri zan bera, muna-goyenan, mutikoeri begira barreka... Gabonzar gabean jandako marraskilloen masalak ingi-tratal zurijetan bilduten egon ei zan luza-ro, mutikoei trankart egitarren.

&&&&&&&&&&&&&&&&

#### IX.- PERU MAKUR.

Peru Makur agure gixajua, zarren zarrez ezetarako gauza otzalako, emendik destaña, ortik bekoki illuna, andik agiraka garratza, ta beti gosiak illik, gustiz txarto bixi zan bere seme ta errenagaz, eurok etxeko txakurrari aitari baño jaramon geyago egiten eutsoela.

Ain atsekabez ta ain errukigarri biki zan aguretxuaren belarrijetara eldu zan bain albista edo izpar au: Erregeri lapurketan egin eutsoela, txingi edo pitxi edor asko ostu eutsoela, ta sari andi bat aginduta eguala, lapurrik nortzuk ziran agertzen eba-narentzat... Peru'k bere kolkorako egin eben: "Araxe juan biar yuat, eta iru edo lau eguneko jan-edana eskuratuko yuat edozelan be, ta gero zuzitu nagijela, gura ba'yoek, & niri zer? &zer galduko yuat ba? Ez asko, gaur darabildan biximodua baño erijotza

berbera asko txarragoa eztok-eta."

Esan ta egin, itzi semia ta errana (pozarren onek, aguria etxetik aldendu yakenian), artu Errege-ñriko bidia, ta bai-yuan txairo ta bizkor gure Peru, bere baserri-tar jantzi zar ipingitsu nabarraz, Jaunari erreguka, alik ondoen atara egijala arazo artatik... .

Errege ta onen ingurukoen surrera agertu zanian, bere arpegi tximur zimela ta bere soñeko marroxak ikusi orduko, asi ziran gustijak barre-purrustadaka; batak iñuan: "¿ Zer dakar kaiku zar onek ona? ". Bestiak: " Au, bere erri koskorreko txinel nagosija edo-da". Onek: " Gizonak, astronomu onek ixarra begitura-edo igarriko dau, ta katelejo andi bat ekarrijozube!". Arek: " Eskumaldia mundik nora ete-daki gero beronek".

Txoriak mozollua erabilli ci daben lez, irri ta barre erabillen gixajua...

Erregek, orraitiño, barreka-barreka esan eutson: " Aitita, ¿adorerik bai al dozu artu dozun zeregiña bide onera eruateko?"

- " Bai, jauna - erantzun eban -, emon bekit iru edo lau eguneko epea, ta zerbait egingo da."

- " Baita emongo yatzu epe ori, ta oraintxe aginduko dot neure jauregiko eskartzeako morroyak jandedan emon dagitzubela."

Tuan zan ba Peru Makur eskaratzera, zokondo baten maitxo bat ipiñi eutsoen, eta morroi batek bazkari ederra eruan eutson; argitu yakon gogoa aguriari, ta urdella on-do bete ebanian, esan eutson bere buruari, bazkari bat arrapau ebala gogoraturik:

" Bat, orraikit, eskuban yeakuat; onek etxaustak igesi egingo."

Morroia adi-adi ta zurt begira egon yakon zatitxo baten, eta lagunakana eldu zanian, zurbil eta arnasa barrik azaldu eutsen aguriari entzunikua, ta ikaratu ziran gustijak, eurak ziran ba lapurrik eta.- "¿ Agure kaiku orrek igarri egin ete-yeuskuk bat? Apari ja beste batek eruan dayola, ia zer urtetzen dan."

Alan egin eben; orduban be aguriak, aparija amaitueran, esan eban: " Bi jausi dozak; bijar ta etsi jausiko dozak bestiak be, ta ensyuak ain txarto". ( Aguriak esakun onetan janaldijen kontua erabillan)... Morroia juan zan arin bestiakana te esan eutson: " Arrayia, mutillak, guriak egin yok, galduak gaituki; auxe ta auxe esan yok agure demoniño orrek; dana jakik."

Larritu ziran mutillok, eta askenez itundu ziran, aguriari itz egin biar yakola ta beragaz aitu, ia onian zuzendu al eitekian zoritzarreko arazo a. Urreratu yakon ba aguriari morroyen artian buru egiten ebana, ta autortu eutson eurak zirala Errege-ri ostu eutsoenak, eta gertu egozala atzera emoteko ostu ebana, baña, Jaungoikoarren, ezegixala salatu, bestelan urkamendira biar ebela-ta... .

Peru'k esan eutson ezeren bildur ez izateko, ardura txikijkenik barik lo egiteko, ezetara be ezebazala agertuko ta... . Bijaramonean, Peru'k eruan ebazan Errege-ren aurrrera txingi edo pitxi gustijak, Errege ta bere inguruak aitiarenka isten ebaiza. Ak itandu eutson Peru'ri:

- Eta lapurrik, ¿ nortzuk dira ba?
- Ezin esan neikijo, jauna; neure itza emon dautset eztodazala agertuko-te.
- Baña zuzentasunak aginduten dausku gaizkiñak zigortau egin biar dirala.
- Egi andija da ori, jauna; basia demututa dagozan ezkerro, osturikua bigurtu daben ezkerro, Errege gustijen Erregeren parkamena dauke, ta, Ak parkatu ezkerro, berorrek be parkatu begijoe, jauna.
- Eztago txarto esanda, ta bai poz andijaz, aitaita, parkatzen dautset... . Orain, beste gauza bat igarri biar daustaru: nire emaztia laster sein-egiteko dago, ta esan eiskuzu mutilla ala neskea ixango dan argitara urteteko dagon seintxus.

Peru'k erantzun eutson Erregiña ikusi biar ebala orretarako; ta areto edo "saloi"

andi zabal baten, lagun-aldratzen andi baten erdijan, Peru Makur gixajua estu ta larri eguna zer esan ezekijala; baña zer-edo-zer esan biar eban ta, eskatu eutson Erregiñari, mesedes ibilli eitela alde batera ta bestera areto artan. Ibilli zan ba, ta Peru'k esan eutson Errege'ri: "Jauna, gauza zalla da igarten... enago ziur; aruntza doyanian, mutilla iruditzen yatz; onantzakuan, osteria, neskea..."

Peru'ren zorijonerako, andik iru edo lau egun barru, Erregiñak ume bi egin ebazen, bata neskea ta mutilla bestia. ¿ Nok adirazo an ixan zan arritasuna? ¿ Nok azaldu norraño goratuba ihan zan Peru Makur kaikuaren jakindasuna? Len barre purruztadaka artu eben agure zimela, orain Seneka berbera euren artian agertu bailitzan, lotsa ta itzal aundijaz begiratuten eutsoen.

Larri eguna, baña, gure Baserri, Errege ta enparcubak au ta ori ta bestia igarri egijala-ta asiko yakoza, ta bide onetan laster jausi biar ebala ikusten ebalako... Alantxe. berak uste ihan eban lez asi yakoza, eta Peru'k bere larri-aldijan urteyera polit bat asmau eban: Errege'ri "sermoitxo" bat zuzendu eutson, bertan beste gauza askoren artian iñotsola:

-" Gogoratu egikezube, jauna, nik neurez ezin ihan dodala euki indarrik edo "vir-tuterik", egin dodazan gauzak egiteko; gogoratu egikezube, Jauna'gandik euki dodala indar ori, eta Jaunak biarrixana danian bakarrik emoten dauala bere eskarra edo grazija, ta ez gixonen jolaserako; ez Josu Gure Jaunak, ez bere jarraile ihan diran santubak egin dabe iñoz miraririk munduaren jolasgarrirako; enaz ni santuba, baña ori gora-bera, santuben bidez mirarijak egin dauzan lez, ni pekatari onen bidez Jainkuak berak egin dau Zubek nigan ikusi dozubena; ta orain jolasbidian igarkixunakaz asten ba'gara, Jainku zirkutzia ixango da, ta pekatu lotsagalduko ori egin baño len, obe ixango da ni neure etxera juatia, berorren baimenaz."

- "Gixona! - erantzun eutson Errege'k -; igarle ona zara, baña etzara sermolari txarraua. Bai, zuzen zagoz. Ederto esanda. Eutsi ba zeure zartzarua ainbat ondoen igaroteko lain, eta zuaz Jainkuaz."

Au esanaz batera, Errege'k zizkukada urria emon eutson... Bigurtu zen aguria baserrira, ta seme, erran, loba, lengusu, ta laugarren edo boskarren mallako senide gustijak, txiki ta andi, danak alkarren leyan, berari eder-egiten eutsoela ( zizkukada urriaren "millagruak"), estula baño zarrago egin arte, ederto bixi zan Peru Makur agure zolija. (Azkena) &&&&&&&&&&&&&

#### X.- ZIÑALDARI ARTEZA.-

Udagoyeneko arratzalde epel epela da... Baserri-etxe bateko atarte-aurrian, auzoko emakumiak batuta dagoz, bata galtzetañan, bestia baba-urkultzen, zu bere gixonaren prakai ipingi bat ezarten, ori galtza zarren batzuk "erre-pasetan", beste bat etxe-ondoko "pozotxuan" tresnak garbitzen... Danak darabille esku-artian zeregiñak; iñor eztago alper, baña iñor be ez ixilllik.

Ego-axia dabil, eta oi dan lez, gustiz urduri dagoz emakumetzuok, iñoz baño barritxubago, beti barritxubak ihan-arren... Eztakigu zetatik ez zelan ( jakixu!), euren artian asarria sortu da, ta alkarri destañaka asi dira, gustijen aurrrera iñun diranak ataratzen dabezala:

- A bestelako zera! Ik eure modukuak gariala danok pentzauko don.
- Enagin asko zirikatu; asten ba'non asi ba, atarako daunadaz eskutuban deukonazar trapuzar gustijak eta.
- ¿ Ni...ri? Geldi-geldi gero! Lotsiaren izpirik ba'eukona, ondo ixilllik egon biar euken.
- Ik eztakin lotsia zer dan be, ta ; neu ixilllik? ez orixe! (JARRAITZEKO)

- Ezaz ixilduko, ez; i beti ixango az betikua; ire onduan esin bixi leiteken iñor be ta, geizto ori...
- ¿ Ni geiztoa? Ia beste bein osain!...
- Geiztua, bai, barriro be esango yonat, azaleko. Gixona be jo egiten don ta.
- Aitiaren! Au da emakumiaren lotsabakual! ; Gixona joten dodala?
- Bai, bai, joten don, egia don.
- Ezton!, ta laster guzurtauko aut, gonerre peste ori.

Jagiten da bixi-bixi, altsuan daukozan gauzak lurrera bota ta artzeko asti batik, eta inguruban olgetan dabillan mutiko beti deituta: " Purtoso, ator ona polit ori, ; errekadu bat egingo daustak? Neuk sarija emonguat. Juadi etxe-osteko solora; antxeyabik gure Praisku biarrian, eta esayok datorrala arin-arin ona, neuk esan dodala-ta.

Andik lastertxu agertzen da Praisku etxe-alboko orma-ganian, eta bai-diño:

- ¿ Ze denganiño biar daustazube, barritzuck alakuok?
- Ara, Praisku; esaiskuzu ementxe argi ta garbi: ¿ Nik iñoz jo zaitut?
- ¿ Iñcz bakarrik? Bai bein baño sarrijago be, arrayorrek!

Entzuten egozan gustijak, barre-santsoka estandak egin biar ebezan... Gau atan, "seguru be", Praiskuk ez ei eban otzik ixan bizkar-aldian.

&&&&&&&&

Una opinión sobre "KIRIKIÑO": " Hombre bueno, si los hay, humilde, callado, que a nadie era capaz de despreciar, que sólo al dinero y al rico sabía fruncir el entrecejo. Aunque su libro se vendió por miles, no percibió por él una peseta, ni la pidió... .

Su libro rezuma el humor, la sal y la salud espiritual de su raza. Y es que Kirikiño supo llegar a las entrañas del pueblo. Nunca hasta ahora de vio a los vascos acuciados de aquella manera por las ganas de leer un libro."( E. de Aranzadi)

En su prólogo a "ABARRAK", el mismo Kirikiño expuso su intención al publicar estos sabrosos cuentos: "... Egurgiñan sartu naz ni gure euzkera ederraren cyanian. Pertan ain ugari dagozan zugatz enbor-lodidunak eta euren besanga ta adar andijak ebagi ta gertau ta ekartia ixango zan nire atsegiñik andijena; baña ezin, orretarako biarrak dira ba beso sendua ta azkora andi zorrotza. Nire besua ta azkorea, barriz, bata malva la ta bestia zorbatzik bakua dira.

Lan ori eziñik, zerbait orraitiño egin gura ta, egur meiari, abarrari, ekin dautset eta besarkada auxe gertau ta ekarri dot. Al ixan dodana.

Egur me au be zetarako edo atarako bai-da. Su andija egiteko, egur lodija ixetuteko, lenengo abarrari ezarten yako sua, ta onegaz ari gero.

Irakurgaitxu oneik be gogo askotan sortu leye euzkeraz irakurteko zaletasuna. Tríkijak, meiak, arin-ariñak, errazak, barru gitxidunak, geyenak barre batzuk eragitekuak ixanik, euzkeraz irakurten bape zalia eztanak onakoxiak atsegiñez artu leiz, ta curok, abarrak lez, bere goguan sua biztu.

Euzkera ziatzaren zalia ba'zara, urrian sarri musturra okertuko dozu irakurgaitxu oneitan aurkituko dozuzan erderatiko itz ugarijak ikusita; baña gogoratu eikezu eurok eztirala idatzi eun urte geruagoko euzkeldunentzako, ezta gaur euzkera ziatz-ziatza ta erdel-antz apur bat daben itz bakua jakin eta erabilli oi daben euzkeldun banakarentzako bakarrik be. Ez, eurok idatzi dira gaurko euzkeldun geyenak daki en euzkeraz, geyenak irakurri ta ulertu al dagijen euzkeraz.

... Irakurgaitxu oneik geyenak jazorikuak dira; batzuk antxiñakuak, nik neurri aitari entzunak, eta berak bere aititari; beste batzuk neuk batu dodaz or-emen neurri aldi-jan; beste batzuk neuk asmauta be bai-dira, gustitara... .

Ojalá que, con motivo del primer centenario de su nacimiento, se vuelvan a publicar sus "Abarrak" y "Bigarren Abarrak"! ; Qué mejor homenaje al buen "Kirikiño" y más va- liosom servizio a los lectores de euskera, sobre todo del dialecto vizcaíno? .

JUAN ANTONIO DE MOGUEL ( Eibar, 1745 - Marquina, 1804) Hijo de un médico, oriundo

Vida y obra: Hijo de un médico, oriundo de la Rioja, párroco de Marquina-Jemein, "uno de los sacerdotes más celosos, laboriosos, doctos, catitativos y ajustados de Bizcaya" (Añibarro). Murió sumamente pobre. "como buen soldado de Jesús, ejerciendo el ministerio de cura párroco, contagiado de resultas de asistir a unos apestados" (Idem) Hombre culto, relacionando con ilustres personajes de su época (Astarloa, Añibarro, J.Bta. Aguirre, Vargas Ponce y el ilustre viajero prusiano Guillermo de Humboldt).

La teoría que le ha movido a escribir su preciosa obra "PEHJ ABARKA" es la de que los aldeanos son los verdaderos maestros y doctores del Euskera. Oigámosle de boca de Maisu Juan (dirigiéndose a Perú): "... Gauza batek ik ratuten nau zugan: zein ederto euskera berba egiten dozun, eskolarik euki baga. Nik ezin dot, irakurlante andija izanda bere. Bati baño geijagori entzun deutsat, BASERRITARREAN DAGUALA EUSKERA GARBIJA; Gaztelan izan garianok eta uri barrubetakuck, erdera askogaz nastetan dogula euskeria..."

Moguel puede ser considerado como el iniciador del cultivo literario del dialecto vizcaíno (aunque tiene también algunas obras en guipuzcoano). Escribe como se habla (o hablaba) en Marquina, incluso con sus fonetismos locales... "Peru Abarka" está considerado como una de las cumbres de la literatura vasca. Libro amenísimo que se lee con indecible gusto... Y el lenguaje, con sus ironías, léxico abundoso, giros, expresiones saladas, refranes, etc., trata de reflejar la lengua del euskaldun neto...

Además, su libro tiene el gran valor de habernos conservado la descripción de las diversas actividades del caserío vasco, muchas de ellas hoy olvidadas (el cultivo del lino, las ferreras...), así como muchísimos refranes y modismos.

.- DIALOGO PRIMERO ENTRE EL INCULTO VASCONGADO Y BARBERO MAISU JUAN Y EL CULTO CASERO PERU.- Se da principio al diálogo en una venta, donde se encontraron casualmente:

PERU : Jaungoikuak egun onak emon daijozala.

MAISU JUAN: Bai zuri bere, adiskidia.

P.: ¿Berori baizen Jaun apaindu batek oñak imini ardantetxe onetan? Toki au gizon baldres, zantar, aziera txarrekuentzat obia da, berori languentzat baño. Ez naz ni Jauna; abarkak oñetan txapel bat buruban, gerrestuba gorputzian: au da nire apainduri ja guztija; baña etxagun, begiratu= onaren zalia nazan aldeti, ez oi naz sartu arantegietan nora ezian, premiñaz, ta ezin bestez baño, ez jakolako etxagun begiratu bati ondoeegiten buruba bat egitia gizon ospetsu, burukari, ondatzaille, alper ta balda-nakaz. Ez nau oraingiño iñok ikusi ardsuak igarota, gatx eginda, zabuka oñak lokaturik, ez miña motelduta, ez begijak lausotuta, asko legez euren osasun, ondasun eta arimen kaltian. Bein baño geijagotan izan naz neure erriko Buru edo Piel, a darda gañian erabilli daruadaz saldutene debekauta daguan orduban. Ez deust ezek gorrotē ta iguin geijago emoten, nekezale edan-sarri ta arda-zaleegijok baño. Zer esan nei, bida, berori emen ikusita? Aserratuko ezpalitzakio, jakin gura neuke nor dan, ta zer ekarri daben onera.

M.J.: Adiskidia: imini egizu txapela buruban, ta esango deutsut nor nazan. Naz, bida, oraiñago igaro dozun erriko Barberuba, ta deitu nabes gaiso bategana. Pagau dereste visitako errrial zidarra; baña ain dollorrak izan dira, zein da ez deusten aterra trago bat; alan sartu naz emen kumillu bat ateria, eta zerbait jatera, bida urrin egiten jat neurri etxia, barurik biurtuteko.

P.: Nik uste neban bene-benetako andikiren bategaz verba egiten nebala, agunti ner-guan txapela buruti kenduta, lotsa nintzala verba egiten. Jakin banu lenengoti Barberu txar bat baño etziniala, ez nintzan Jaunka zugaz egongo, ez da bere buru utsian. Eta Barberu errukarri bat, ta iñoren gatzaz vizi dana: gaisorik ezpadabil zer jan ez daukana, ain arro ta apaindu? Ainbeste soñeko bitxidunez, eta ori astegun buru zuri-jan bidez zabilzala?

M.J.: Adiskidia, egizu verba modu ohian; zuk ezdakizu zer dan Barberu izatia; len-go Barberu txaarrak ibilli oi zirian deshonretan euren ipizijo onraube; batutene zirian tabernetan ta nun nai; gitxi esudijau, ta gero, ill edo bizi, errezaeta bat egin, botikako asko artu eragin erremienta txarrak euki, ta barriketa batzuk nekezalai esan-

PERU ABARKA (urreko orritik dator)

... erremienta txakrak euki, ta barriketa batzuk nekezaliai esanda, trago galantak ezarrita, Mediku jakitun batek baño pama geijago euki eruen. Baña gaur Medikuben pare gara. Asko zurreratu da Cirugijan. Ni egon naz Madrilgo ospitalian urte bijan, Asko ikusi dot; ta asko dakusanak, asko ikasi darua. Ostera bere dirautsut: ¿zer dala uste dozu Barberuba?

Peru: Barberuba barberu, ta mozolua mozolo. ¿Mozolua baño nun dago egazti edertuago jantzirik? Baña ezdau iñoz mozolo izateti urten... Soñoko apaindubak es deutsa gaisuari osasuna emongo. Biajon dagijala nire erriko Barberubak. Bere bideko jantzia da txano gorri bat, ta bere ganian txapel eskerga berrogei urte eukiko ditubana. Eztabil zu legez basatzaik basatza oñetako meiakaz, ta bai zaldi, berak beste urte ditubanian. Egija da, nun nai topetan dabela bazkari ta aparaja. Gustijkak asko gura deutsee bere lautasunagaiti, ta jaten dau edozein gauza baserrijetan. Autor deutsut, arda zaletxuba dala, buruba ta barruba berotu daruazala larregi, ta ori eria dan guztijan. Baña katubagaz zutinuk zuzen egon ezin danian, topetan ditubala zanak, ta eskultur sendo ta ikara bagiaz ateratzen deutsala ederto odola gaisuari. Au zelan dan ez dakit, alan dala bai.

M. Juan: Orra nik dinodana: orrelango Barberu perdularijo molde bagaak galduen deutsela pama guztija Barberutziari. Eta ¿ze kulpa daukee beste gure opizijkokuak zure erriko Barberu baldresa, ardaora emona ta astaki bat bada? Aztuko jakon gaztan ikasi eban apurra.

Peru: Eztau berak orrelangorik uste, ta ori esango bazeunskijo berari, entzungo zendukez entzuteko onak...

( Empieza a comer Maisu Juan y dicele Peru)

Peru: Maisuba, bedeinkatu daigun maija; nire etxian ta baserrikoen artian beti jan aurreti alan egin oi da, baita jan ostian bere eskerrak emon Jangoikuari, zeñen es-kubetati jatorkuzan on guztijak.

M.J.: Ni baño obiak zaree; ez dot nik mairik iñoz bedeinkatu.

Peru: ¿Zer diñozu? ¿Nun azi zara? Bedeinkatu egizu, bida, gaur esan eztaiguben kris-tiñau gaistubak gariala.

M.J.: Baña ez dakit zelan egin; ta egizu zeuk.

Peru: Zagoz ixilllik. ¿Zer esango litzake, entzungo balitz baserritar batek bedeinkatuten dabela maija ez jakinarren Barberu ain apaindu ta Madrilen urtiak egin ditubnak? Eskolauba zara; erabilli ta irakurri dituzu liburu asko, ta ¿zelan ikasi ez dozu?

M.J.: Peru. ez naizu lotsatu, ta erreza egizu zer edo zer agin artian, ta eran-tzungo dot nik bere al dodana, igarriko ez deuskuben moduban nok bedeinkatuten daben maija.

Peru: Aurra bida: Asten naz: "Aitiaren ta Semiaaren ta Espiritu Santubaren izenian: Neure Jauna ta Jainkua, gure itxadote guztia zugan dago, ta emoten dozu bere denporan jaateko biar doguna. Zeure eskuba zabaldu, ta guztiok bedeinkatu gagizuz. Aita guria Zerubetan zagozana... (Reza)

M. J.: Ez dakit nik euskeraz Aita gurerik, ta erantzungs dot erder.

Peru: Maisu Juan: ¿etzara ori esaten lotsa? ¿Noz aztu jatzuz txikitán guraso edo Eskola Maisubak irakatsi eutsuzan eskaari Flexiak artuta daukazanak, ta Kristo berberak irakatsi eban Aita guria? ¿Eskonduba zara? ¿Boozu umerik?

M. J.: Ezkonduba naz, ta baditut iru ume; baña amak dauka dotrinia irakasteko duria. Ez da ori nire opizijua. Ez eban Jesu Kristók euskerarik berba egin.

Peru: Ederto. Ezda zure erdera mordolluan bere. Baña nork nai jakin biar dcau Aita guria bere amaren sabeleti ikasi eban berbeetan. Zuri jaotzu, Amari baño gejago, umiar gauza on guztijak irakastia. Baña ez da orain berba egiteko denporia, ta gakijozan surrera: "Doe guztien emolia ta gure Jauna, zure eskutik guk artu ta jan biar dogun guztia, zuk bedeinkatu egizu. Jesu Kristo sure Semia gaiti, ta bere izenian. Aita, Semia ta Espiritu Santubak guztiok bedeinkatu gagizala, ta Zeruko bere maira eruan gizi-zala. Alan izan dedita."

PERU ABARKA:

( Peru da a M. Juan la lista de palabras vascas para designar las diversas partes del cerdo). Y acaba así su lista:

PERU: ¿Naozu geijago? Aztuten jaten korotza, aztuteko obia bida bere.

Maisu Juan: Ez neban sinistuko baserritar batek jakin leijala ainbeste izen, ta euskeria zala ain aberatsa bere berbeetan. Nik ezin artu neiz buruz izen guzti orreke illa betian bere. Iminiko ditut paperian, erakusteko beste nile epizijokuai.

Peru: Ordu onian; ta esango deustsudaz bein banaan. Txarrijak berak, ain ezaña iza-nik, daukaz izen asko. Batzuk esaten dautsee, lauoñekua; bestiak belarluzia, beste batzuk ganeu zurdaduna; leku askotan ganadubaltza; ez ain ondo, bida asko dira zuri-jak bere; badira urdia esaten deutseenak. Lau oñekuak batzuk dira ordotsak, bestiak aardijak; edo arrak eta emiak. Gurasotzat artuten dirianai edo aitatuteko, deituten jakee apua, ta parkaziñua eskatu baga, ezin emon deutsee nekezale prestubik onelango izenik. Inoz erosi gura badozu lauñeko etxian aztekorik, begiratu ondo belarri ta bizkarrari. Belaarri luze, apal ta makalak ditubana, ta bizkargora, edo jasua dabena, gizendu ta aziko da tint. Maisuba, ona etorri garian ezkero, zabaldu biar da ziskuba ta emon zerbait, epaila ta batu dirianak ardaua edan dagijen. Pitxar bete biarko da-bee gitxienez, ta zerbait geyago, guztiok edango badogu. Alan oi da; ta zuk ain apain-duba egon ezkero, eztozu prestubez, dollor, zikotz̄n zeken ta zisku-estutzat zeure bu-ruba agertu biar.

M. J.: Ondo dinozu, ta errazonia da neuk ekartia konbita. Baña eurak bere prijidu daigubela gibelaz, edo erre kunzurrunak ta solomo zati bat.

Peru: Ezin inori aitatu ginaijo orrelangorik, eurak surreratuten ezpadira; esango leukee lotsabaga ta dongaro azijk gariala; belutuko bere litxakegu etxerako.

M. J.: Orra lauñeko bati emon jakon paguba, urte betian erregaluben eukita.

Peru: Ondo dinozu, ta orain jatort gogora gaztetan ikasi neban asko esan gura da-ben ipuin au: (AZERIA TA TXARRIA)

Eldu zan korta batera azeri bat, ta topau eban an belarluze edo txarri gizen ta mardua. Esa-eutsan onek: ¿Zer darabilk emen, lapur zital orrek? Iri guztiek deubee gorroto. Eizaan dabilzanak, eruaten ditubazalako eurak ill gura jituben eperrak. Gurago juek ilako bat, sei eper baño, egiten ditubazan kaltiak gaiti. Etxeetan ezin ikusi abee, olluak atrapetan ditubazalako. Txakurrak urrinetik igarten jeutseek, botaten duan atsaz, urrian abillela. Asko ostu ta beti argal, beste lapurrik legez. Ase ollakiz, bildotskiz ta eperkiz, ta beti aragi txaarra egiten duala. Illten baabe bere, ezabe ezertarako gura. ¿Es dakusk barriz nire bizitza ona? Jan ta lo, ta noz-bait urten ibiltera. Jatort neskatillia zukubaz, arta garaubaz ta kastanakaz. Sabel-pian ta lepo ganian niri igorzen ci dabil, ta bere poza da, nik ondo jaatia, gizen egitia; ta egun baten jan gura ezpedot, illunduten jako biotza, ta dino negarrez legez: "Jangarzutu da gure lauñekua", ta jabilt eregau ta palagetan, jan eragiteko.

Esa-eutsan azeriak: "Ah, tontotzarra! Lo egik, gizendu adi. Maite jitubek ire o-doloste, lukainka, gibel, bare, solomo, ta duan guztia. Ire urdai gozatubak urte guz-titian egon biarko jok egozten, kunzurrun ta solomuak sutan erreten. Jatorranian epal-lilia, ta iru edo lau gizonek oratuta, sartuten deubanian ganibeta sumati erraihetar-ño, irrinzaka aguanian oñei ezin eraginda, esango dok: "O azeri zorionekua, eta za-bat dontsubagua azan ni baño! Orra zetara jo da-been nire jan, lo ta bizitza onak."

N. B.: Entre otras riquezas de "Peru Abarka", está la lista de refranes que trae:

- Errementerijaren etxian, zotza burduntzi
- Azeri zarrak allia luze; bere legezkuak bestiak uste.
- Goiz jagija, goiz gose; belu jagija, loz ase.
- Zulo bakotxari, laakua.
- Aziak, beria kirtena; ta aritzak, bere erikua ospala.
- Otsuak otsuari gatzik ez, ta lapurri lapurrik lāztan.
- Arda gozuak lau begi ta oñik ez.
- Zu beti ero; otz eztana bero.
- Marija gurija gorubetan; biar ez dan ordubetan.
- Azeri zaarrari ulia juan, baña antza ez.

DOMINGO DE AGUIRRE Y BADIOLA: (Ondárroa, 1864 - Zumaya, 1920) Aunque escribió también otras obras ( poesías, artículos, cuentos, etcé), D.Aguirre es conocido y admirado por sus tres novelas: 1) AUÑAMENDIKO LOREA, escrita en vizcaíno, novela histórica sobre el Cristianismo en Euskalherria en el s. VII; 2) KRESALA, también en vizcaíno, sobre su Ondárroa natal ("Arranondo"); 3) GAROA, en guipuzcoano, sobre la vida del "baserritarra"... "Todos están de acuerdo en considerar a KRESALA y GAROA como las obras maestras de D. Aguirre. Algunos consideran incluso a KRESALA como superior a GAROA por más de un aspecto. Es más recio, más vivo, más real. El ambiente pintoresco de nuestros pueblos pesqueros, sus costumbres, sus motes, su lenguaje y diálogo, todo está fotográficamente captado. Los personajes y tipos de KRESALA están arrancados a la realidad. Hay relatos emocionantes, como el del naufrago "Kitolis"..." (L. Villasante)

### K I T O L I S

" Gizon txiki polit makur bat zan au, bere sorbaldetan larogeta bi urte andi jasoten situan gizona... Itxasorako gauza etzala gelditu zan ezkerotik, egunero entzuten eban mezatzu bat, egunero izaten zan illuntzeo errosarioan; gaixoren bati Jauna eruan bear yakonean, an joango zan Kitolis, argi bategaz; Jaunaren surretik elizjiran ibilli bear zanean, an urtengo eban Jaun estalkiaren makilla bat jasoten; elizkizun guztietan, an egongo zan Kitolis alkate-aulkiazen atzean, belauniko.

Erritar danak gura eutsien: ain zan bera zintzoa, apala, baketsua ta mendu onekoa.

- " Ni ez naz izan, Peru ta Mikol legez, urandiko arraňa - asi zan esaten beren aterpeko lagunai -. Toleta baño andiago enintzala, bederatzi urte neukazanean, eruan ninduan lenengo neure aitak mazira: neguko izotzak gogortu eustazan azurrak, orekan; udako eguzki beroak baltzitu eustan azala; besigu ta atun tatoakaz azi ta loditu ninduen; ni be, Mikol'en antzera, itxasoan bizi izan naz legorrean baizen geiago; baňa ontzi andietan ez naz egundo ibilli ta Kantauriko uretatik eztot urten, nai ta nai-ezean edo "arribadaren" baten izan ezik. Alan be, naikoa neke igaro dot itxas orretan... .

" Iru aldiz egin dot tirabira. Lenengoan, Arno atzean, besigutan gengozala; bigarrnean, aortxe erriko sarreran; ta bietan berialaxe artu genduezan erritar lagunak. Baňa irugarrena!, itzala ta ikaragarritzkoa izan zan irugarren ori. Ain zuzen, ibaien zeair kanporuntz giňoiazanean, uragea edo erramua zala ta etzala, beste txalopa batekoakaz aserratu giňan; deadarka, zarataka ta arrokerizko berbak alkarri esanaz urten genduan ur-zelaira, ta iñori etxakon gogoratu Antigua'ko Amari beti esaten yakon Agur edo Salbea esatea.

" Gabon aurretxoa zan. Ba-gagoz, ba-gagoz illunabarrean potin txiki baten lau laguntzu, berdeletan, Orio-ko aurrean. Bakarrik gelditu giňian a, berandu be bazalata, otz be be-goala-ta, arrain pizka bat be ba-geukala-ta... asi giňan etxeruntz. "Terraltxo" egoan, legorretik datorren aizea. Jaso genduan triketa, ta ba-getozan kezka barik, atzekoak eskuak besapean berotaten zituan bitartean, eskota tosta bati lotuta genkarrela... ta, alako baten, brast, joten gaitu aize bunbada gogor batek, eta dsaust danok itxasora, txalopa barruko arrain, otzara, soka ta tresna guztiakaz batera ta nastean. Alan be urten genduan urazpitik, or batak ta emen besteak, danek otzak ikaraz; ingurati giňan, igarian, popaz-gora egoan txalopara, ta itandu geuntsen alkarri: "Gizonak, zer izan da au?". Baňa iñok erantzun bearrik ez egoan, guztiak genkian-ta. Ardurabagekeritzu bat, ustekida geiegia. Zefi, baňa, otuko yakon alangorik, itxasoa bare-bare ba'egoan?... .

"Egundo alango negargarririk iñok eztau ikusi. Gure artean etzan iñor, ta antxe egon bearko genduan ur gaňean, goizerarte. Goizerarte! Ta oraindiňo, geienez be, etziran seirak izango!... . Otzak eta bildurak geunkazan, ta amabi, amairu edo amalau orduan egon bear alantxe! Ta gaňera, goizean iñor etorriko yakun ez jakin!... "Ia, mutillak, - esan euskun atzekoak, gu pitin bat azkortuteagaitik - eskeňi daiogun Antigua'ko Amari, danok oñtozik eta erramuak lepoan ditugula bere elizatxora joatea, emendik onean urteten ba'dogu, ta asi gaitean orain errosarioa esaten"... Ipiňi neban neuk Ikomes (Nikomedes) neure amabi urteko seme ederra, killa gaňean auspez, ta asi giňan arrenetan... Jaungoikoak ba-daki guk zenbat arren egin genduan. (Jarraitzek

D. AGIRRE (KRESALA : "Kitolis") (urreko orritik dator)

... Errosarioaz ostean, zeruko done guztiai "Aita gurea" ta "Agur Maria" ta milla biotzeko eskari luze ta labur egin geuntsezan, alde batera ta bestera geure gorputz minberatua biratuteko utsunetxu batzuk artuaz...

Onetan gengozala, amarrak aldean, aizeak ekarren indarrean ta txalopearen zabune-tan igarri genduan itxasoak irakin bear ebala ta gure urean ebillela eriotzea. Illun egoan, belarrietara etorkigun aizaren txistuari destañezkoa meritxon; Getaria'ko ta Zumaia'ko itxas-argiak agiri ziran lurrean, ta niri, illen argiak iruditu yatazan. Geu gengozan ilten osasun guztiagaz!...

—"Ze ordu ete da?" - itandu euskun Matxin zarrak, eriotzondoko soñuagaz.

- "Amarretatik amaiketara" -, esan geuntsan. Ta berak, oraindiño bellarietan daukatan esateko erarik illunenagaz: "Zein luzea dan gaba! - jarraitu eban - zein luzea! Nik ezin neike iraun, laster amaitu bear dot, eta zuek ikusten ba'dozue gurekorik..."

Ez eban geiago esateko astirik izan, bada olatuaren bultzada batek kendu euskun endetik albotik. Orratiño ekarri genduan atzera ta esondu geuntsan oratu eiola gogor karelari; baña ezertarako ez eukan adorerik; eta aotik bitsa eriola, "damu dot, Jau-na, damu dot, Jauna" esanaz, an joan zan ondoren...

Itxasoa geroago ta andiagoa etorren; olatuan, geroago ta indartsuagoak; geroago ta nekatuagoak gengozan gu. Neke gitxiagoko egoera bat billatu naian, ain laster ipinten genduan gorputzaren astuntasuna esku baten gañean, ain laster bestearenean, orain igoten genduan killa gañera, orain karelera jatsi, gañean ezin egonda... Gau luzia zala esan eban Matxin'ek. Bai, ondo luzea! Ta zer ete da betikotasuna, samiñetan e-gon ezker?...

Neure semetxua: neure Ikomestxo, otzikara andiak artu eban, ta negar muxinga, inkesaka ta zotiñez, "aita" bai "aita" asi yatan deiezka ta deiezka. Axe erríkigarritasuna! Aitak ezin ezer egin bere seme kutunaren alde, biotzeko negar goria baño besterik; aitak ezin goiza ta laguntasuna erakarri, bere bizitza emonda be...

Etsi genduan, ezkiñan kuzarorako. Jo genduzan beste baga batek burutik bera, kendu euskun txalopea esku artetik, eta aldebanatu giñan irurok barriro. Urpetik azale-ra urten nebanean, asi nintzan igarian semearen billa. Ez neukan orduantxe indar askorik eta arrokeri andirik bez! Idoro neban semea, ta txaloparaño eruan be bai, eta esan neutsan txalopeari gogotik eutsi eiola; baña alperrik. "Ezin, aita - siñioan - ezin!"... Artu neban erdian neure bularraren ondora, potiñaren ta neure gorputzaren bitartean ipiñi neban, ta bere soñari ta potiñari alegiñakaz eldutene gelditu nintzan.

Isillik gengozan danik, bildurgarrizko ixiltasunean. "Ikomestxo, ondo zagoz? - deitu neutsan andik apur batera -; Ikomestxo, ondo zagoz?"... Ez eustan ezer erantzun. Zelan, ba, ilda egoan-ta!"

Negar malko lodia erion Kitolis'i bere arrigarritzko jazoerea malla onetaraño eldu yakomean, ta entzuten egozanak be ez eben urriñean negarra.

"Nik eztakit ze ordu inguru izango zan - jarraitu eban - , beste olatu batek txalopea ta semea besartetik kendu eustazanean; eztakit zelan oratu neutsan ostera be txalopeari; eztakit zelan egon nintzan goizeko zapta ta erdietan Getari'ko potin batek artu genduzan arteraño. Azkenerako, sena ta konorta galdu yakuzan, taket batzuk giñan atzekoa ta ni, zoraturik gengozan, zer egiten genduan ez genkiala eutsiten geutsan txalopeari, lapeak atxari baño gogorrako, atzamarretatik odola eriogula...

Gaixorik egon nintzan gero ia illabetean, ta sendatu nintznerako... itxasora barriro. Baña ez geiago Agur edo Salbea esan barik."

Isil aldi bat egin ondorean, Kitolis'i biotzeko naigabea kentzearren, asi ziran aterpeko gazteak eresian, ta etziran geiago isildu euren lan guztia amaitu arte."

"KRESALA dogu euskeraz egin danik hobelarik onenetakua. Gaia, tartea, pasarteak, bi-zitasuna, gatza, errealitatea... Zer geiago eskatu geinke nobela bategandik? Indafa dauka, bai nobela bezela, ta bai izkuntzaren aldetik" ( Juan San Martin).

DOMINGO DE AGUIRRE: "K R E S A L A "

VIII.- ARRAIN SALTZALIEAK

"Arraña polito ekarren-eta, potiñak errira sartu ziraneko, an egozan nasa gañean emakumeak... Euren egitekoa da, Arranando'n beintzat, arraña txalopetatik atara, garbitu ta gazitutea, txikia bada (sardiña ta antxobea). Andia danean, (besigu, legatz, edo atuna, batez be) saltokira eruarea dabie asko, bada txalopa guztiak dakarren arraña batera saltzen yakue mandazañai. Emakumeai yagoke, gañera, erdal-errietara bi-alitzeko lantegiak erosi daroen arraña crioan erre ta upeltxuetan tolostutea.

Ta, azkenez, euren egitekoa da, errian ta ingurueta jateko bear dana, kalerik kale le saltzea.

Iru eratako saltzalleak ezagutzen ditut: txalopa jaubien amazteak, emakume ixil ta onak geienetan; potintxuak dakarren arrain txikia, erre edo egosi barik luzarcen euki ezin dan arraña, errian bertan kalerik kale saldu daroenak; eta besteai erosita auzoetako errietara al dan ~~meurrria~~ arrain mueta guztia eruaten dabenak: "astodunak" diritzue azkenengouei, astoakaz doiazalako arririk erri...

Astodunak ziran TRAMANA ta BRIX, edo obeto esateko, asto jabeak, bada errietara alogerekak bialdi ci zituen; langilleak bñak eta biotz onekoak, baña ezagutu ziragnetik bata bestearen arerioak edo arerio legez bizi ziranak, eztena baño min zoli ta zorratzagokoa, a-ra jatorken zatarkeria edozeñi esan bear eutsienak, alkar ikusi orduko beti erriertan ziarduenak, atzamarriko beti prest egozanak. Eurak ziran emakume agirikari guztien buru ta nagusi; agiraka egitea zan euren p za; nasan batutene zireanen artean gogorrenak eta gaiztoenak izatea euren arrotasuna. Orain bat eta gero bestea esan arren, ez eutsien ardura; guzurretan ifñok artuagaitik etziran lotsatuten, bada deadar andiena egiten ebanak edo atzamarrik sendoenak eukazanak irabazi ci eban auzia. Ta deadar, garraixi txillicoak egiten, orretantxe ziran, ba, eurak mutillak... edo emakumeak! Utsa bear ~~ebe~~ izaten ebien aserratzeko ta, aserre egozanean, entzutekoak izaten ziran euren destafezko esanak... edo ez entzutekoak; ikusgarria euren gorputz, buru ta eskuen eragin aukerazkoa.

Aitatu dogun egun onetan be, ezerez bategaitik asi ziran, ta Jaungoikoak daki zelan amaitu eben aserraldia, eztarriak itxi ta zer-esanak eta indarrak amaitu yakozean... Otzarakada bat atunegaz eterrela, nasa gañean egozan emakumien artetik igar-teen, bultzada bat emon eutsan otzara orregaz Brix'ek Tramana'ri, uste bage edo naits, ori eztakigu, bada era bietara gertau zeikean. Tramana'k, burua biurturik, ikusi eben bere arerica ta asi yaken:

- Nor da berau, ainbeste leku bear dabena? Erregiña dalakoan birau natxako, ta Brix sorgiña baño ezta.

Tramana'ren esan garratza entzun orduko, itxi eban Brix'ek lurrean bere otzarea, ipiñi zituan esku biak gerrian, ta inguruetaikoai begira, buruari eragiñaz, esan eben:

- "Ara, ara oin be zelan asten dan kaskametz, zikin, ordi ori." Ta, arerioari ausaditsu arpegia emonda, jarraitu eben:

- Entzuizu. Traman zabala, atso popandia, zein sorgintsutan ikusi nozu neu? Zeu izango ziñan sorgintsuan zu baña orditurik, eta ezenduzan ezagutuko zeugaz ebiltzanak bezuk.

- Ordituta neu? Zegaz, gero, ordituta? Zeuri atzo amantalpetik kalean jausi yatzun bonbillekzagaz?

- Eee? Zeeer? Neuri bonbilla jausi yatala atzo kalean? Guzurra diñozu, sasakil, zatar, txarri, urde, zorritsu, lotsabage orrek.

- Min emoten deutsu egiak, min? Alperrik ukatuko dozu, ba, Marikontze'k be ikusi zenduan eta!

- Mari kontze eskallu, txatxala, ezel, petralazi ta zuri, biori, arpegiko narrua kenduko deutsuet nik, neure atzamarrakaz, lodia daukazue baña.

- Zeeeuk? Ja-jaiii! Etzaite aztu, gero, buruan zorririk ezpa-daukazu, neuk lenago bartzak (ligarrak) ausi neutsuzalak dala.

- Zeuk bartzak kendu neuri? Eztago toki txarrean. Nire buruan eztago bartzik. Buru garbi daukat nik, Tramana; zuk, zital zikin orrek, egunde zeure bizian euki ezteozun

(SIGUE)

D. AGUIRRE: "Arrain saltzalleak"

...bestean garbi.

- Zegaz garbituta? Txanton Kaiua netik zerbiazun patarragaz? Ob... egingo zenduan begietako makarrok be garbitu ba'zenduz.

- Txanton menetik patarra ba'neroian, ondo nerocien: neuretik, ez zuk lez iñoren lepotik...

- Ja-jaiii! Len eztuzu, ba, esan ez eroiazula?

- Len ta orain, ta beti, neuria egia, neuriaaa...

- Uuutik, mielga ustel gosekilla! Zuaz nire aurretik, bestela...

- Bestela zer? Neu jango naz, nai dotanean, zu lango emakume baldar, kcipetsu, zetakaz beteriko bat neure aurrean ez ikusteagaitik...

Etzan onenbestegaz amaitu Brix ta Tramana ren arteko ekiñaldia: aldendu ziran alkarregandik, jardunean; baña billatu eben barriko alkar bi, iru ta lau biderraño, ta an izan ziran angoak azkenerako batak bestaeri cratu eutsienean....

Askok usteko dau zatarkeri geiegi ipinten ditudala emen: izan leiteke; baña Brixek eta Tramana k esandakoena laurenik ezt. t ipiñi; ta alan be, erritar gizonak euren txalopetako arazo ta zeregiñetan, ezeri jaramonik egin baga jarraitu eben. Betikoa zan ta! Beste batzuk izan ba'ziran, baña Tramana ta Brix... Bai...

Saldm ziran arraňak. Astodunak erosi zituen zatitzu batzuk; mandazaňak geitxuago; lantegietarako gelditu ziran enparauak. Maneau zituen bakotxak bereak; astodunak ipiñi zituen eurenak asto bakotxeen otzara biňaka, ta "arre" azkar, "arre", asko ibilli bear ebien-ta.

Arranondo ko astodunak entzute andikoak dira. Astorik bizk rrenak baizen bizkor, oñez beti ordu luzietako bidean, maiz uda ta naiz negu, geienetan gabez, iñoren bilburrik bage, ain laster Arrate ko, Iziar ko, Gardotza ko edo Antiguako Amari arrenez, laster alkarragaz agiriketan ta batak bestaeri zitalkeriaik erantun; errien sarren alai ta pozkor, eresi zar ta barri ederto esanakaz lotan dago inak esnatuteraňo, gabas ba'da; ta eguna argitu ezkerio, "arrain ederrak eta merke!" luze, zoli ta garbi deadar egiňaz, belarrik sor ta gorrenari entzun cragin artean; zortzi, amar, amasei asto aurretik dituela, an doiaz Arrando ko arraindunak goierrialdeko urietara, itxasertzetako azkartasuna, oia, zarraparradea ta gatz-ale lodia kale guztietan zabalduaz.

Amaika bidar Markiňa, ta Durango n, edo Elgoibar, Eibar, Ermua, Plazentzia, Bergara, Mondragoi ta Oñati n entzun ditue Arranondo ko astodunen esakera latzak, eta baita euren kanta edo eresi eztitsu ta ederrak be; amaika bidar, erritik kamp ra eioazala, entzun deutsiet nik, arrantzaleak lotarako dagozan orduan, illuntzeko aize bigunak Arranondo raňo ekarren olango eresi-oiarzuna:

"Itxasoak urak andi - eztau ondorik agiri;  
pasako nintzateke andik - maitea ikustea gaitik."

Iñoz eresi au aitu ondorean, lantegiko ate ondoan, besoak letuta, barrura sartzenko deiaren zain egoan eibartarren batek, txantxetan esan ba'deutsa astodunari:

- Baña maiterik ba-dnukazu gero zuk, maiterik? -, laster asko entzungo eben arrain-saltzallearen era onetako erantzura zorrotza:

- Emen daukagu geure mustur baltz, eta maiterik daukagun diñ berak. Bai bost, zu baňo morrosko obeak eta maitegarriagoak." ( Atal onen AZKENA)

Eretxi batzuk : 1) "Tramana ta Brix irakurri ondoren, biotza ere ez al da irribarreka jarten? Nor beste bat, erri-izakera ain bizi ta gordin, ain ugari ta zoli, ain atsegin ta eztitsu agertu dauanik?" (Manuel Lekuona, Euskaltzaindi koa)

2) "Len ere bein baňo geiagotan esan izan ci degu, ta gaur ere aingo degu berriro: alegia, euskaldunak umoredunak eta umore-zaleak izan arren, idazten hiztenean, batez ere itz lauz, sarritan umorea nem-nai alde batera uzten dutela. Ez, ordea, Domingo Agirre k. Esate baterako, KRESALA ren eta berezeki GAROA ren orria. Ixtan umorea non-nai nabaitzen da. Ta ez, gaňera, nolanaikoa: umore berezia, umore baikorra, umore arim alaia. Itz batean: euskal-umore jatorra". (Antonio Arrue, Euskaltzaindi koa).

3)" KRESALA y GAROA recuerdan irrefrenablemente a dos célebres novelas de Perda: "Peñas Arriba" y "Sotileza" (Fausto Arocena).

D. DE AGUIRRE: "KRESALIA" .- .-XXIV: ONDAMENA.-

"Bigaramon goizeko seirak aldean, aspaldietan euki eban baño lo ~~geiago~~ bat eginda Mañasi oetik lagi zanean, Bilbo'ko albistari-saltzalpeak bebiltzan alera ta bestera ariñeketan, kale ertz guztietatik eztarri erreakaz indarrez deiezka."...ciero bilbaino, con la catástrofe del Cantábrico!"

E? Zer gertau eite zan itxasaldean? Zer? Sarritan oi dana... Bilboñko uri barruan ~~gizadien~~ autuak eten, Arenal eko abeak zabundu, sizonen txapeliak buruetatik eruan, esku-aterpeak azpikoz gañera ipiñi, zabalik egozan ateai danbadak emon, leiar edo kris-talak zatitu ta kezulo edo tximiniren batzuk kalera jaurti ebazan ekatzak, itxasoeren erdian erakutsi zituan askozaz obeto bere al izate ta gogortasun guztiak eta bertan galdu ainbeste gizon eder, mendean arturiko itxas-langillerik geienak.

Errukarriak Kantañi'ko arrantzale maitegarri zintzoak! Osasun andi ta egualdi gি-rrik onenagaz urten ebien, goizean goiz, euren etxietatik; itxas barruan ikusi eben eguzki garbiaren jaiotza pozgarria; itxaropenez beterik jaso zituen txalopekako oial zuriak, bakearen eskaleak ba'lira legez ta aizeak euren bidean lagundi eioen; jan-bearrak eta irabazi-naiak emoten daben gogoagaz erabilli ebezan erramuak zoli ta biziro; ta ezeren peku ta bildur barik, alaitzu ta pozkor, eldu ziran arrain-tokira, etxadietako janaria an egoalakoan.

Ai! Ez eben janaririk aurkitu: galdu mendia, azken-ordu ta ikaragarritzko eriotzea idoro eben gizagaixoak.

Jagi zan, nundik eta zelan eztakitz, an nonbaiten eskutaurik bere orduaren zain ego-an erruki bageko itxaski amorratua, zabaldu zituan, izpi baten, beren ego azkar, luze ta sendoak iges egiteko astirik emon bage, artu ebazan txalopak ~~inguru~~ guztietatik, sare andi batek arrañak artu oi dituan eran; erabilli ebazan lenengo tatarrez, urruin-garri, dardaraka bultzadarik gaizto gogorrenagaz; ausi, ataldu ta berrindu eutsiezan gero arraun, maste ta aize-oialak, paperez ta zotzez egiñikoak bai'lirean; intxauskol uts batzuk baizen erre, itzulastu zituan lester gizon irmez bateriko arrain-potiñak; eta sartu zituan, azkenean, al zituan guztiak ainbeste illo*i* iaukazan itxa-soaren kolko barruan.

Arrahtzale batzuk, oraindiño, igari egin eben zerbait itxas irakin esnetuaren gañean; bererek biziguneak emoten eutsen askortasunagatx jazartu ziran gogotik truxu ta bisuts, aize ta baga indartsuen kontra; ibilli ziran eten arteraño ur-azalean gora ta bera, itxasoak atxetara jaurti oi dituan abe zakarren irudira; eskatu eben, arren! Jaungoikoaren izenean! lagundi eioela norbaitzuk estuardi ta il-zori arrigarritzko atan; baña, alperrik! Arrantzalien alarau mingarria ekatxaren il-soñu garratzean galdu zan betiko! Ezin eutsien iñok laguntasunik emon. Lenengo unetik ondatu bageko potin bakanak, tximista gorria baizen arin joiazan ekatxaren aurrean ekatzak gura eban tokira, nai ta naizko xaustada, gora-bera ta joate bildurgarrikoan, eriotzaren txistua, arnestua ta deadarra aldamenean eroiezala; ta ezin eben ezer egin, ur gañean igari ta oizuz egozanen alde.

Potinetakoak eurak eicazan laguntasun bearrean; eurak arrenez Aita Jaungoiko ta Antigua'ko Amari; eural karel baten gañean, oker, larri ta nciz ondatuko, al eben giñean igesik, arericaurrean daroien gudari garaituak joaten diran antzera... Geienez be sakaren bat jaurti eikien ta jaurtiten eutsien, si, zelango gurari ta bictz onagaz! euren bidean billatzen zituen lagunai; baña txalopearen abiadea kendu? Nai eukien tokira érwan? Gura eben lekuan gelditu? Ekatxari arpegia emon? Zeñek? Zelan? Fondik? Nongo indarrakaz? Ezin zeitekean gauzea zan.

O! Ta azkenengo txalopea, lur azpian sartzen dan suburdi keitsuaren gisara, ur-laño tartearen ostendu yakoenean, zer zan amaigabeko urzelai atan gelditu ziranen atsekabea! Zelangoa euren bakartade ta argaltasuna, itxas-eremu adetsuaren erdien!... Odei balz lodiak eukezen goialdetik, eta odeia ezin eutsi; zingo andiko ur gazi serrea beian, ta ur orren azalean ezin geiago irauni!... Ito egin bear, naita nai er! Orduantxe amaitu zan arrantzalien pentzuda ona, orduantxe artu eben azkenengo eta den negargarria... Bakotxak bere etrekoai biotzeko agurra ta Zeruko Aitari arimako eskari bana egin eutsien, iges egin eben adoreak euren bescetatik, etorri yakoen begietara beti-betiko loa... ta ondatu ziran, bata bestearen ondoren, ur-azpiko illo*i* sakonean. (JARRAITZEKO)

KRESALA (Jarrain)

... Etziran lenengoak, eta etziran azkenengoak izango. An egozan, nonbaideen, lenago antxinatxu joandako lagunok, azur utsetan, ondar barruan estaldurik: an egozan sartubarriok, ondar gañean etzanda, ta batzuk burua beian ipiño orduko ba-joiazar bestiak goitik-bera, ásil-ástillik, "como corpo morto cade", ildakoak beti irooen ixiltasunaz.

Iñoz ez añakoa zan egun atako ondamendi ta galdu menea...! Nok es... leike itxaserrietako samintasuna euren ezbear gaiztoa jakitean? Onek bere aita galdu eban, arek bere anai langillea, urliak bere senar maitea. Guraso asko gelditu zituen seme barik, emakume asko alargun, gazte asko umezurtz, zer janik ezta...

Beingo baten zabaldu zan Bilbo'ko uri danean barri txar ori. Erri guztiak beste zer esanik ez eukan... Etzituan ain laster ulertu Mañasi'k kalekoen autuak. Iñoz baño beranduago jagi zan egun atan, ez eban Mezatara joateko astirik artu, ta etxaldeko arlo zeregiñetan ebillen egundo baño azkarrago ta pozago, barru alai gozoak emoten eutsan maraztasunagaz. Leiotik Arenalera begira egonda, ba-zala nunbaiteko ezbearren bat etxeko lagunak esan eutsoenean, "Somorrostro aldekoa zerbait", erantzun eban gure neskatalleak, "jakingo dogu lanak egindakoan"; baña, geroago, zer edo zer itxasaldeko zala esan yakonean, gauza guztiak bertanbera itxitxa urten eban leiora ingurueta neskame guztiai zer zan galdezka.

Poza ta naigabea ezin leitekez alkarrregaz bizi. Geu pozik ba'gagoz, naiz onak eta lagun-urkoaren edo geidearen maitaleak izan, leku gitxi euki oi dau gure biotzean iñoren naigabeak; zenbat eta pozago, ainbat eta gitxiago. Egi-zaleak ba'gara, esan daigun egia: geu pozkor ba'gabiltz, ezta iñoren naigabea gure mingañetik barrura sartzen, geientxuetan. Mallak eta neurriak daukaguz onetarako. INOR ori ez-ezaguna edo urriñekoa ba'da, bere naigabietan iñor ez ba'litz legez begiratuten deutsagu, ta orduan mingaiñak berak be zer esanik eztau ka. INOR oriurreko ta ezaguna ba'da, orduan ~~naigabea~~ mingaiñak berak be zer esan batzuk ba-daukaz, itxureagaitik bada be. INOR ori geutarra edo ingurukoa ba'da, orduan mingaiñak gauza bigunak esaten ditu, arpegiak illun-samar ipinten dira, begiak malkoren bat bota oi dabiñe ta zerbait egin daroagu geutarren alde. Baña INOR geu ba'gara, geurea edo geure odolekoena ba'da naigabea, orduan naigabe ori biotz guztien jaube egiten da, bene-benetako malkosak mingotxak ixurtzen ditugu, ta ez bakarrik eztau ka lekurik bestien pozak gure barruan, ezpada ze mingoxtasun beldisk emoten deuskuz!

Olako zerbait igaro yakon Mañasi'ri. Pozik ebillen, oso pozik, eta gertaera gaiztoa Somorrostro'ko zala uste izan eban artean ez eutsan gauzeari gora andirik emon, boda toki orretan ez eukan iñor ezagunik, eta ez-ezagunak beti dira urriñekoak; baña jakin ebanean itxaserriko zala ezbearra, artega, nabarmen, kiriotsu, zalapartaka ta itsumus-tuan jatsi zan kalera, albistari baten billa... Artu eban bere eskuetan albistarria, begiratu eutsan, arnasa batean, goitik barreneraño; baña dardaraz egoan, lausoak eukazan begiak eta ezin eban ezer ikusi."!Horrible hecatombe!", ipinten eban paperak letra anti baltzakaz. "Horrible hecatombe! ¡Más de cien ahogados!" Ain ene bada! Ain ene! Non-goak ete ziran gizon itoak? Bermeo'koak berrogetak, Elantxobe'koak amalau edo amabost, Lekuito'koak ez ekien zenbat... Ez al etorren Arranondo'ko barririk?...

A! Bai, an egoan bazter baten Arranondo'ko erri nagusi edo alkateak bialduriko albiste mingarria, ta Sardinzar'en txalopako guztiak ondatu zirala ziñean!... Danek ito zirala, danak, eta antxe zan Anjel!

Bekokian mallu bategaz iota legez jausi zan lurrera Mañasi, albiste ori irakurri ebanean. Jaso ehen auzoan egozan emakume ta gizon batzuk, zein zan galdezka, ta bere etxeko atezañak erantzun eutsien:

—"Arrantzale baten alabea da. Aita eho itoko yakon...?"

N.B.- El "KRESALA" publicado por la Edit. ITXAROPENA, en "Kuliska Sorta" trae al fina, como apéndice, un pequeño vocabulario :"itxas-iztegitxoa", interesante para conocer los vocablos vascos referente a las faenas del mar y a las diversas clases de peces. Este pequeño vocabulario está tomado del gran Diccionario de ZKUE...

El mejor homenaje a D. Aguirre en el Centenario de su nacimiento podría ser la lectura, atenta y reposada, de sus dos grandes novelas: KRESALA y GAROA...

José Manuel de ECHEITA Y LUZARRAGA (1842-1915).

Nació y murió en Mundaca. Marino, capitán de barco, vivió bastante tiempo en Filipinas, ocupando altos cargos administrativos, incluso el de Alcalde de Manila... Retirado a su pueblo natal, se dedicó a la astronomía náutica y al euskera.—OBRAS : 2 novelas ("JOSETXO" y "JAYOTERRI MAITIA") y un tomillo de poesías ("AU, CRI TA BESTIA"). Su lenguaje es muy cercano al popular, con un muy discreto recurso al neologismo...

GITANOAK ETXE AURREAN (fragmento de "Josecho")

"Txomin-Txikik eta emasteak oñ-ortotzik eskintsariak egin ebezanik irugarren urtean, illuntzeo illunabarrean, agertu zirean etxe-surrean "gitano" batzuk, eta oles egiesen. Txomin da(ta) Martíñek urten eben ateratzen; "gitanoak" eskatu eben aterpe bat gau atan etzateko. Juana Mari be jatzi zan bera, arrituta bildurrez, arek arpegi baltzak ikusi ebazanean; etxeak bildur zirean joan eitezala esaten, da eskeñi eutsen galtzoa zabalduta egoan korta bat, guztiak antxa etzateko. Pozik egoan gitanoak, korta zabal ederra, bero-berotan egoteko lortu ebenean.

Gitanuok zirean, iru gizon, iru emakuma, lau ume, lau asto ta txakurtxo bi; ezainak, zazkel, erropazar, trazkil, ikatza baño baltzagoak, azurra ta ~~ezuzen~~ baño ezeukan. Astaganean etorren umetxo urte bi inguruko, matralla-gorri, ~~bilbao~~-urdin, galant, gastaña margoko ule ederdun bat: ez irudian bestien endakoa; etorren negar baten, "ama" ta "ama" txillika iarduala. Juana Marik ezekian zer gertaten jakan ordu atan, ain erruki gogorra artu eutsan ume zoribako ari: uste eben nimbait ostua izango zala, ta artu eben bere besoan.

Pozik egoan mutikotxoa, Juana Marik besoan artu ebanean: gitanoak ~~urreratuten~~ ja-kazanean, besartetzen eben sendo Juana Mari deadar gogorrakaz; ezeban Joan gitanoaka-na... Mutikoak bekian oñez ibilten, baña oraindiño ezekian berbetan: (~~gitaneak-urreratut~~ esaten ebazan berba bakar batzuk euskerak. Gitanoak ezekien euskerarik, eta ezagun zan mutikoa etzana eurena, ezpabere, nonbait ostuta ekarrena.

Gau atan mutiko onek egieban lo Txomin da emasteagaz, poz-pozik, guztizko gogo argiaz; onek biok, ezin loak arturik egin zirean gau guztian, bildurrez, zer jazoko etezan korton egoan arpegi baltzakaz. Goizean ogetik lagi zireanean, mutikoak ezeban nai urten etxetik aizetegira, bildurrez ostera gitanoak eroan eyen.

Juana Marik eta senarrak artu eutsen erruki gogorra ta ganera maitetasun andia:gitano gisaseme bati egieutsen eskakizuna, a umetxoa eurakaz isteko, baña arpegi illunaz erantzun eben ezetz. Ostera, iru emakumeak nai eben etxe atan istea, zerbait umearen ordez emoten beutsen: itxi nai eben, beti egoten zalako negarrez da deadarrez ixildu baga.

Egun atan, gitanuok joan zirean Mundakara eskean, astoak eta txakurrik korton itxita, ta illuntzerarte etzirean agertu Ondartzara. Beste egunean, urberen zanean, joan zirean atxik-atx, arrapatera lapa, lanperna, mangoliño, muxilla ta arrieko karramarroak: zuzendu ebezan iru egunerako naiko ebezan beste.

Biaramoenean goizetik ebiltzan joateko asmoaz; gizasemeok, eurakaz nai eben eroan Juana Marik besoan eukan mutikoa; "gitanak" nai eben itxi umea zerbitz bere ordez ar-tuta. Txomin da emasteak, errukigarritzko eskariak egiten ebezan mu-rra eurakaz isteko, baña arek gizonak aserre zirean euren emakuma lagunen koltez. Auzi onetan egin zirean luzaro, ta atsenean Txomíñi eskatu eutsezan amar ogerleko ta amar egazti mutikoen ordez.

Juana Mari joan zan arin Mundakara mutikoa besoan abala; zuzendu ebazan amar ogerlekoak; ollatokian arrapau ebazan Martin-Zaldik amar ollo, ta emon jakezan. Arrtu ebezan euren ume, asto, txakur, karramarro, lapa ta enparauak, eta joan zirean Ondartzari, mutikoa bertan itxita. Gitanoak esaeben Pedro eritxila, baña Pedro deituzaz, ezeban erantzuten...»

Juana Marik, arratzalde atan, altzagan esne-sopak emoten eukala ittandu eutsan:

- Txotxo, zelan dok ire izena?

Barriro ainbeste Eider ittandu eutsanean, gomuta izan eben bere izena, ta poz-pozik erantzun eben: "Josetxo".

- Josetxo dok eure izena? - ittandu eutsan barriro Juana Marik; eta buruagaz esan-~~ezan~~ adieraso eben bayetz. (Jarraitzeko)

(Aurreko orritik dator)

- Josetxo az? - oraindiño be ittandu eutsan, da orduan irribarreka erantzueban:
- Bai.

Orra, jakin zan mutikoaren izena étxeko guztiaren pozgarri, ta orduan zoratuta pozarren esaten eutsan Juana Marik bere besartean estuturik:

- Neure biotzeke! Nundik nora ibilli az orrekaz gitanuokaz? Nundik etorri az orrekaz baltzokaz, neure laztana? Zegaitik egin dozak arrigarritzko negarrak eta deadarrak? Zegaitik izan az ain bilddur arekaz joateko? Zer egin doe arek? Orain ementxe biziko az geugaz, ezta alan?

- Bai.
- Beti-betiko geugaz?
- Bai.
- Bai, neure biotzeke semetxoa!

Onetan ekin eutsan luzaro Juana Marik, eta emoetsazan mozu asko.

Josetxok esaten ebazan berba bakarrak, zirean "bai, ez, esnea, ogia, erdu ta Josetxo"; ezekian beste berbarik. Gitanoakaz ibilli zan artean, astu bear izan ebazan berba asko, ta orain, eukera entzunaz, gomutan izaten ebazan len ekizenak.

Txomiñek poz-pozik arratsalde atan esan eutsan bere emasteari:

- Juana Mari, gaur ondo apaldu bear dogu, ta ekarrizuz Mundaka-tik ardaotxoa ta beste gauzak.

- Bai, Txomiñ, - erantzun eutsan emasteak - neu bere gaur poz-pozik nago, ta ondo apaldu bear dogu Josetxo geugaz geratu dalako.

Esan da egin; Juana Marik ekarri ebazan bear zirean gauzak, eta Txomiñek apal-aurrean asi zan jantzan da zorakerietan Josetxogaz, batean sorbaldan da bestean besoan erebillela. Juana Marik, apalduteko, zuzendu ebazan lukainka, arautza, egastiak eta arraña: ganera, esne-sopa ta ardaoa zeinbat-nai. Jesarri zirean mayan irribarreka ta guztiz berbalari, Josetxo Juana Mariren altzoan sala: jaterdian, Txomiñek artueban Josetxo bere altzoan, da asi zan kopla batzuk abesauten, da asmoetan. Juana Mari zoratuta egoan bere mutikoagaz; berak sortua ézan balitz be, ezeban izango laztanago; kendu eutsan Txomiñ eskuetatik, eta jan bear eban mozuka. Apalostean, guztiak egozan berbalari ta koplari; Martin-zaldik bere, agiten ebazan biorkadak ardao-pitxarra eskuetan ebala. Txomiñ lagi zan maitik, Josetxo besoetan ebala, ta jantzan iarduan zoli ta lerden: Josetxo be pozik ebillen, euskera berba bat edo beste esaten abazala. Martiñek-be luzaro euki eban mutikoa bere besoetan, da bakotxak berbaldi luzeak egiñaz, egon zirean ogeratu baga gaberdirarte.

Gau atan guztiak egieben lo ederto, goizean eguzkiak mendi bizkarrak gora igoarte, ta kortan egozan abereak, urrumaka egozan jan barik belurarte.

Juana Mari k, lagi zireanean, emoeutsan gozaria bere senarrari ta Martiñi; Josetxo k eta berak jan ebezan esne-sopak, eta gero joan zan Mundaka-ra egunaroko gauzak saldutera, mutikoa besoan ebala. Enparantzan egoczan emakuma ta ume gazte guztiak, joan zirean gitanoak Ondartzan itxi eben mutikoa ikustera; batak emoten eutsan sagar bat, besteak madari edo intxaurrak, urengoak gastañak, eta ganera, orain batek eta gero besteak erebillen besoan mozuka jan bearrik, ain polit eta barrekari egoan Josetxo goiz atan...

Txomin-txikik, bazkal-orduan esan eutsan emasteari: "Juana Mari, orain egin bear doguna da, Mundaka ko agintaritzea daukanai, esan Josetxogaz igaro direan jazoera guztiak, argitu deyen berak nai daben lez, nun dagozan Josetxo-ren gurasoak. Onetaroko, Bilbon dago albistari bat Bizkai ko erri guztietara joaten dana, ta antxe éragarrri bearko da Josetxo-ren albistea. Astebetean iragarri leiteke al Istarian, da iku-sikogu aittamak agertutzen badira mutikoa billatutera."

- Bilddurtu nozu, Txomin, zeure asmoaz, baña uste dot olan dala Jaungoikoa ren agin-dua, ta egizu zeuk nai dozuna.

Txomin joan zan Mundaka ko nagosiana ta esaeutsan zer igaroten zan Josetxogaz, da bere ustean zer egin bear litzakean. Nagosi jaunak erantzun eutsan biralduko ebazala mutikoaren barriak Bilbora, albistarien jaubeari, esaten eutzala astebetean iragarri

(Amaitzeko)

José Manuel de ECHEITA: "Josetxo"

... daizala albistarian, Bizkai'ko erri guztietan jakin deitezan barri orrek.

Txomiñ'ek, etxeratu zanean, esautsan amazteari: "Mundaka'ko nagesuak esan deust aginduko dabela albistarian ipinteko Josetxo'ren barriak. Uste dot ugatzauta (bateatuta) egongo dala, baña gurasrik agertutenez ezkera, ugutzau bearke ..., dabentzen izenagaz, elizako garbitasunak zuzentzeko aldan lez."

Onetan geratu zirean senar da emaste, itxaroten astebete igarotzea.

-----

#### XVIII.- JOSETXO ARGENTINA'KO ETXAGUNTZA B'ZEN

"Etxeratuteko eretia agertu arte, Josetxo ontziratu zan bigarren agintari, Montevideo'tik Buenos Aires'era osterak egiten ebazan ontzi txiki baten, illean berrogei ogerleko ta jana irabasten ebaziala: bere lagun guztiak be, ontzirati zirean itxasbasster atan porturik-portu osterak egitten ebezan ontzi txikietan, illean amabost ogerleko ta jana irabasten.

Josetxo ebillen ontzia, sarri egoten zan Buenos Aires'en, da mutil au joaten zan leorrera lan bitartietan, euskaldunak egozan lekuetara, eurakaz berbaldiak egittera. Agerraldi baten, euskaldunakaz topau eban gizon zarkote, zurbil, argal, Dari deittuteneutsen Abadiño'ko seme bat, eta ordubete inguruko berbetea egin ebanear, deittuteneutsan albora Josetxo'ri, ta ittandu eutsan:

- Bizkaitarra zara?
- Bai, jauna.
- Zein aldetakoa?
- Mundaka'tikurreko baso-etxe batekoa.
- Orduan jakingozuz baserriko arazoak?
- Bai, jauna.

↓ Nik zulako mutiñ bat bear neuke neuri laguntzeko, daukadaz etxaguntzan; emongo neuskizuz eun ogerleko illean janen ganera, etorri nai bazindu neugaz bizitera. Abeare asko daukadaz, zezen, bei, ardi, auntz da zaldi, ta aren ardurea artuteko bear zaintut: bertoko erritar asko daukadaz langintzarako, baña arekaz eztaukat abespelu osorik. Zure egipidea izango da, gauza guztien ardurea artutea; nire urengo, zeuk eukiiko dozu aginpidea, ta eztozu iñoz eukiko gorputza neketu bearrik, ezketa, agindu besteari egin bear direan lanak. Abereak zaindu, esneak batu, gazta: ikar egin eragin, ta biraldu saldutera: "tasajoa" edo zeziña arautu ta sokondo guztiak garbitzeko daukadaz amabost gizon, da ganera bost artzain, bost artaldegaz: bakotxari emoten deutsut illean amar ogerleko ta jana. Gero, zeure gizabidea ona bada, igoko deutsut zerbait illeko saria. Nik ogetamabi urte daroadaz emen, da osasun osorik eztaukat aspaldion; gibela daukat mingorturik, eta noizik-noizera enaz ondo egoten; orregaitik bear dot lagun sendo bat: neugaz ikusikozuz laster ertu bear dozuzan ardura guztiak; Buenos Aires'tik ogei orduko ikar dago etxaguntzara, baña zaldi ederrak daukadaz edonora joateko; ganera, geu bizittekoe etxe on bat dzukat, etxaguntziaren erdian. Orain zeuk esangozu, nai badozu geratu nignaz.

- Etxeratuteko asmoa euki dot, baña ikusi bear dot, zelan artuten nabentzurrak onen: esaidazu mun batuko garean biar.

- Erdu neugaz, da erakutsiko deutsut zein ostattutan nagoan: antxa batuko gara.

Ostatua ijsi ebanear, joan zan Josetxo bere ontziratzen lagundu eban egun atako lanetan; esasutsan ontzi-buruari artu eban <sup>burubidea, egun ebaizen bere abiamenak</sup> irabasita-eukazan-diruz, ta biaramonean joan zan ostattura Dari'gann: au zan orain bere ugazaba. Urengo egunean, zaldi-ganean, joan zirean etxaguntzara: Basogane zan Dari'ren abizena, ta Basogane eritxon etxaguntza orri. Baso, mendi ta solo, etxetik legua laurengo ingurua, beria eban Dari'k, eta ganera eukazan: 500 bei, 214 idi, 125 zezen, 410 ardi bost artaldetan, 55 auntz, 5 aker, 10 belarluze, 25 zaldi, ta egazti asko.

An, or da emen, eukazan bost baso-etxe, korta andiakaz, eta bost artzain bost artaldientzat: bere etxetik urre eukazan beste tellape luze batzuk, arra guztiak egiteko, ta eguraldi txarretan abereak euki eteko. Amabost menpekok, bost artzañen ganera, Josetxo agintari zala, zuzenduten ebezan egunaro arazo guztiak. (MAITZEKO)

J.M. ECHEITA: "Josetxo"

... Josetxo an lotu zan urtean, irabaziak psko geitu zirean, da ugazabak, bere irabasien ganera emoeutsazan 5.000 ogerleko atsegin-sari. Baita esaeutsan, aurrerantzean irabasiko ebañala berreun ogerleko illean.

Josetxo arrezkero, pozen-pozaz, beti egoten zan Bizkai'ko abestiak abesauten, da Dari, agoa zabalik, guztizko gogo-argiaz egoten zan entzuten bora jayaterrako kopla eztizkoak, ainbeste urtetan entzun ezebazanak... Sorteria, urrunago ta maiteago izan oi da, ta Dari'ren atsegin eztitsuena ezaten zan, Josetxo'ri Gernika'ko Aritz ederraen abestiak entzutea: Bizkai'an egoala uste eban, abesti orrek entzuten abazanean. Berak be, andik, ortik, emendik, bakarrik ebillenean, gogotzu kantaten ebañan Josetxogaz ikasiriko kopla batzuk: alagala bizi zan mutil orregaz.

Bizkaira ezkontzera joateko usteaz, igaro jakazan urte asko, ta ezkongei egoan oraindiño...

Dari'ren etxetik ordubeteko bidean, egoan beste etxaguntza eder bat, eta Sabas, ango ugazaba, joaten zar noizbait Dari'ri agermaldi bat egittera. Sabas zan, aitta ta ama euskaldunak izan ebañana, baña iñoz Euskal-errian egon etzardu: etxaguntza atan jayo ta bizi izan zan, ta orain eukazan emaste ta lau alaba: ekian juskera berbetan, eta zan guztiz euskaltzalea.

Bein, askotan lez, joan zan Sabas Dari'gana; ta topau eban Josetxo lan guztiaren ardurea artutenean: txera onaz agur egin da gero, ittandu eutsan Josetxo'ri:

- Nungoa zara?
- Ni Bizkaitarra
- Dari'ren senideren bat?
- Ez, jauna; bere menpekoan.
- Nun dago Dari?
- Uste dot etxeen egongo dala.
- Banoa berba batzuk beregaz egitera.
- Agur, ba. - Agur, urengorarte.

Joan zan Sabas Dari'ren etxera, ta onek ikusi ebanean, esacutsan:

- Agur, Sabas aspaldikoa.
- Agur, Dari; zelan bizi zara?
- Bizi ondo, baña gibeleko gexoak neketutenean nau sarritxo.
- Ori berez osatuko jatzu.

Sabas'ek, gero ittandu eutsan:

- Nundik ekarri dozu or ikusi dodan mutil eder ori?
- Lurbira guztian billatuten ibilli izan ba'nintz be, siñistuizu Sabas, eneban topako mutil egikor da ekarkorragorik. Len, amaseirik ogeitamilla ogerlekora irabasten izan dira urtean etxaguntza onetan, da joan dan urtean, mutil orregaz, irabasi doguz ogetabostmillatik ogerleko, ta ganera asko geittu dira abelgorriak etc. erparauak: baita soloetan, lur-sagar, baba, india-baba, gari, artagarau ta ortuari edo baratzari guztiak be, ugariago artu doguz: etxaguntzan bizi garean guztiortzat daugaz urte guzti-rako elikaturak, esne, egazti, ta errautzak geituezkerotik gainera. Zeruan nago, mutil ori daukadanik ona; egunaz bada, berorrek artutenean ditzu lan guztiaren ardurak; neketu be ezta egitten, da illuntzean etxeratutenean, eroturik ipinten nau bere Bizkai'ko kanta edo abestiakaz.

- Adu oneanzagaz orduan mutil orregaz: gure etxaguntzan be bear genduke olako mutil bat.

- Poz-pozik nago, Sabas.
- Egoteko da olako legunaz.

Egin ebezan beste berba asko, ta gero joan zan Sabas, bere saldiaren ganenn.

Bigarren egunean, zaldi ederrago batogaz aurkestu zan ostera Basogane etxaguntzan, da Josetxo'ri egoteutsan berba leunketa eztitsuaz; gero joan zan Dari'gana ta ordu be-tean iñardu eben berbetan: illuntze surretxean, igo eban bere zaldi ederraren ganera, ta etxeratu zan... Illebitan ibilli zan olako agerraldi asko egitten Basogane'ra, ta beti aurkestutenean jakan Josetxo'ri txera onaz, da berba gozatzuakoz. (AMAITZEKO)

J.M. ETXEITA: "Josetxo":

... Bein agertu zirean Sabas da bere alaba zarrena, ikusgarriko zaldi eder biren ganean, ondo apainduta eurak eta zaldiak: Josetxo topau eben egunaro lanetan erabilten eban zaldi ganean, da lotzatuta jarri zan au, neskattilla galant aren currez-aurrebiotzikera errimeaz erantzuten gbazan bere erantzupenak. Neskattilla orrek ezekian euskera, gaztelarraren berbakuntza baño ta esan leikean buruz artuta euknzaka Josetxo'ri esa-eutsazan berba zintzoak. Esaeutsan arpegi osasuntzuaz, mutil ederru egoala: Dari'gaz egieben egotaldi luze bat, eta gero etxeratu zirean.

Beste egun baten, Sabas aurkestu zan alaba zarren biakaz, irurak ondo apaindurik, iru zaldi ederren ganean. Berba asko egin da gero, neskattilla gazi onak, irribarreka, begirakune argi-argiaz, destañe antzera, esaeutsan Josetxo'ri:

- Zuk, onegas edo neugaz ezkondu bear dozu; begiratu guzu ondo biori, ta urrengo ikustaldian esango deuskuzu, zein dan zeure begikoa.

- Zuek jolastzeko gogoa daukazue; nire gogoan eztago oraindiño ezkontza asmorik.

- Etzaitte lotzatu, gizona; esan dodana ezta izan destañe bat baño; lau neskattilla gagoz etxelean artu daizun zein gura; zer nai dozu ezkontzeko ereti oberik?

Sabas'ek eta Dari'k barre asko egieben neskattilla aren esakerakaz, da Jostxo gizajoa zerbait lotzatuta egoan: illuntzean etxeratu zirean Sabas da alabak, arro ta leren, euren zaldi ederraren ganean.

Arik bosgarren egunean agertu zan Sabas Basogano'ra bere lau alabakaz, bata baño bestea zaldi zoliagoaz da ikusgarrian apainddurik. Bekien neskattillok Josetxo onegia zana ta edozein berba esaten eutzen barre eragitteko usteaz: lau neskattillak artu eben euren lau zaldiren erdian, da esaeutsen:

- Katigatu zaituguz, Josetxo, ta eztozu zaldi artetik urtengo, esaten ezpozu, lauroestatik nor dan zeure begikoa.

- Laurok zarie neure begikoa.

- Ori ezin izan leitteke; bat izango da besteak baño zeure begikoagoa.

- Orrek ezbardiñok ezin dodaz nik neurtu zuen artean; laurok zarie neskattilla galantak.

- Eskerrik asko, Josetxo: eztizkoak dira orrek berbok! Zelan neurtu dozu, ba, gure galantasuna?

- Ikusmenaz.

- Ja...Ja...ja, bai ba, semetxoa, ikusmenaz neurtuko zu nor dan zure begikoa be.

Ektienean egozan barreka Dari ta Sabas, neskattillari otutene jakezor gauzakaz. Onetan, Dari be bizkortu zan, da neskattillari esaeutsen:

- Ni bere ezkongei nago, baña ezteustazue esaten berbatxo bat be.

- Ordu onean zatoz, Dari, neskattillaren txera ona billatutera! Zer egin zonduan lenago, erasti obean? Emastoa etxaguntza guztia jango eutsula uste izango zonduan. Orain astun dagoz, Dari, orrekizar zurio, neskattillaren gogoa beteteko!

- Nik, neure jayotorrian ezkontzeko ustea izan neban, baña il egin zan maitte izan nehana, ta gero eztot ezkontzeko gogorik ouki...

Josetxo ezegoan iñogaz ezkontzeko borbatuta, baña Eladitxo eukan bere biotzaren barru-barruan... Arik bigarren egunean, agertu zan Sabas, da Dari'k esaeutsan Josetxoren erantzupena. Orduan Sabas'ek, arpegi zurbilduaz erantzun eban:

- Nire alaba batentzat, ona izango zan mutil ori, baña bekotxak doki zer egin bear daben: mutil orren itxaropena euki dogu etxelean, da gaur, naibago alatzua artuko dabe nire alabak: eroapena artu bear dogu, Dari, naibago guztietan.

- Bakizu, Sabas, zein indar daukan euskaldunaron borbeak, eta borbatuta badago, ezin leike aldatu ezegaitik.

- Bai, Dari, adittuten dor, gizaseme zintzoak olen egin bear dabona.

- ¿Euk noiz itziko dozak iñoren eskaratzeko txalijak txakuñaren antzera miazkau barik?

- Basefittařari akijo ardura ta ez emon sartarik eskura.

- Urdia ta igelaz ago antsi baga ta ezegixak lupetzatik atara.

- Eroyak ez ei yuan iñoz barí onik ekaři.

- Sayak eta miruak, bafiz, okela ustela non, beti igafí.

- Deduzko gixona nok ni, ta ondo azija.

- Bere buruba oi yuuanak goraldu, zittaldu.

- ¿Basefittařala basatitzafa?

- Koipezalia ala pekootzalia?

- Zapuskeri bako basefittařik, iñon bez.

- Gangaf bako ollařik, iñoz bez, eta zazpisuete koipekeri bakorik, eguno bez.

- Ire oskijak abua zabalik yagozak; gosez, antza.

- Ez; iri bafeka yiñardubek, astotzafa azala igafí yauek-eta.

Ene nafittaria, zer erantzun bururatu eziňik, pipařa bera baño orrijago jaři zan lotsa-lotsa egindda.

Zaldun eta andiki gustijak Bertolda'ri emon eutsen amafekua, ta Tuntuiz'ek, besterik eziňian, eruapena artzia erabagi eban; baña nayago eukian baraurik egon, maltzur areri usartu ixan baño. Beti eragoion ziri ta miri, edonori nafittaka ta alamenka, bere burubari argi ta zoli eretxitta afopuzturik, eta jauregi-gixon gustijak poztu egin

(urrengo orri-/ra)

B.M. GARRO "OTXOLUA" ( aurreko orritik dator)

... Bertolda'k gangar-gangarrian jo ixatiaz. Lotsearen-lotsaz begijak gora jazoten be etzan azaftuten, eta atsekabiaren andiz bere buruba efekara botata be bañdin eutsan ixa-ija.

Eta gaba eldu zanez, bakaldunak, zaldun eta andikijai agur egiñik, esan eutsan gu-re Bertolda'ri bijaramonian jauregira biguftypeko, baña ezedilla etofi ez billoxi ez jantzirik...

Bertolda, urengo goxian, bere gorputza araintzale sare bategaz nafu goñijaren ganian baturik aufkeztu zan bakaldun aufera. Itxura aretan ikusirik, ba-diñotso bakaldunak:

- ¿Zelan azaftu zara hire auñian ofetara agertutene?
- ¿ Ez al- zeunstan zeuk esan zugana biuftypeko goixion, baña ez billoxi ez jantzirik etofteko?
- Bai, ba-neutsun esan.
- Emen nayagotzu, ba, sare onetan baturik - esan eutsan Bertolda'k - eta zeuk ikusi daikezunez, gorputza erdi-agirijan erdi-estalirik dodala biguftyu nayatzu.
- ¿Orain aítian non ixan zara?
- Ixan nazan lekuau enaz afezkero, ta orain nazanatan iñor exin dattoke ixan neu ezik.
- ¿ Zein da egunik luziena?
- Jan barik egon biañ ixaten dana.
- Buruko uliak, ¿zergaitik zurittuten dira bixafa baño lcn?
- Bixafa baño lenago jayorikuak diralako ixaten.
- Itxubak eurak be ezagutzen daben bedafa, ¿zein da?
- Azuna.
- ¿Zein da lorarik ittunena?
- Zatotik urteten dana, ai!, ardaua amattutian.
- ¿Nor da arako a, norberen etxian iñok gura ixaten eztauana? - Errua.
- ¿Nor da a beste okeña, lerden gustijai istarak ebagitten dautsezana?
- Garija ta olua batzeko igittaya.
- ¿Zein da gauzarik argijena?
- "Iretargija argi da baña, eguna baxen argi ez..." Eguna, jauna.
- ¿Esnia baño bai? - Esnia baño argiyago, ta batta eduña baño be...
- Orixx diñostazun ori egistau ezpa'daistazù, makillaka zigortau zagijezala agindu biañko ete-dodan nago.
- Urten eban ene Bertolda'k, eta suil bete esne árturik, bakaldunaren lo-gelara eruan eban iñok ikusi barik, eta beianganian erdi-erdijan itzi eban. Leyo gustijkak itxi zittuzan gero, ondo-ondo, argi izpirik sañtu ez eitian. Eguberdañtia zan. Bassador bakalduna gelara eta, illunetan, joten dau oñagaz esnez beteriko sulla, ta an dua sulla tutafez, esnia be plausta beianganera, ta ija-ija bakalduna bera be bai mustafez bera! Asafe bizitan dettu otseñai ta leyuak zabalduteko diñotse. Ak egin zittuzan gafaxijkak gela beiangania esnez ondatuta ikustian!
- ¿ Nor sazikil ixan da ori suil ori esnez beterik gelu onetan imifí dawana ta nik biañtopo egitteko leyuak itxi dittuzana? - iñuan.
- Neu ixan nayatzu - orantzun eutsan Bertolda'k baster batetik urtenda -; eguna esnia baño zurijago ta arrijago dala egiztau biañ neutsun-da. Esnia eguna baño argiajo ba'litz, gela osua argittu egingo eban, eta zu etziñan itsumustuban etofiko, ixan zarean lez, eta etzenduban sullik oñagaz joko, egin dozun lez.
- Baseñittar maltzura zara zu, ixan be, ta satorari berari be begi, k idoroko ze-unskijoz zuk...

.....

"OTXOLUA", además de otras obras en prosa, propias y versiones, tradujo también los Evangelios Concordados (inédito) e incluso poesías (Cuarto de éstas pueden verse en "Milla Euskal Olerki Eder" del P. Onaindia : pp. 681-683).

&&&&&&&&&&&

EUSEBIO ERKIAGA : Nacido en Lequeitio (1912), desde su juventud ha vivido entregado al cultivo del euskera, colaborando constantemente en periódicos y revistas hasta hoy. Además del dialecto vizcaíno, conoce y cultiva también el guipuzcoano y el labortano. Ha ganado muchos premios en los campos de la poesía (cfr. algunas, en "Milla Euskal-Olerki Eder", nn. 598-607), teatro y novela ("Arranegi", "Aribar Zalduna", "Batetik bestera"...). Perteneció a la Academia de la Lengua Vasca.

"Jose Manuel ETXEITA ETA JUZARRAGA":

... "Elebarri bi egin zituan: "Josecho", 1909 gn. argitaratua, eta "Jayoterri maitia", 1910 gn. Lenengoak 368 orrialde ditu, eta 255 bigarrenak...

"Josecho" dau lanik luzeena. Umetzu orrek urte bi ez zituanean asten da edestia, ta arik eta ogetemar urtera arteko guztian, gertaerak gertaera jalkiten ditu. Base-txean, kalean, arrantzuan, itxas aundian ibilliko da mutil ori. Gero, Mexiku-n, Montevideo-n eta Argentina-n. Azkenen buruan, sorterrirantz biurtuko da, ta bereak eta bost ikusi ondoren, amaiera baketsua izango dau erritxu kutunean. Jazoera naigabetsu ta pozgarriak azaltzen ditu errian, auzoan, atzerrian emengo ta beste tokietako gauzak, lurrealdea, notiñak eta oiturak jakinerazoaz. Lagunak bere, polito ezagutzen ditu, ta mueta bereziak agertzen dira irakurlearentzat. Nagusikeria, arro-usaifia, guraso batzuen ankerkeria, gizon doillorak eta abar erajusten daki. "Axular" ospatsuaren no da to bere, ergitara dakar. Josetxo-ren aialdeko izango dan Eladitxo-ren estura, neke ta amadio zintzoaren joan-otorriak, orriz orri, irakurgarri diralarik. Gaztedorrako sentimendu garbiak goratu izan zituan eo betean.

"Jayoterri maitia" dalakoan bere, azalez, emengoak kanpoetara joan ta barriren barri biurtuko dira-ka, bestearen antzerea damosku. Lenengo maillako notiñak, ugariago ditugu emen. Elebarri au, ostera, alaiagoa da, ariñagoa. Bear bada, biotz-isuri aundiagokoa. Barruan, alako lillura ugariago zirkatzen daukana. Irri-ikutu atseginez, txitean-pitean, olde ameskorrain kiliika bigunez.

Euskaldun neska-mutillak doaz Mexikorantz, ta geroago, biñan biñan datorkez onantz, Ardibaso zoragarrirentz. Artzain-nobela kutsua edo dauka. Bi milla urte leenago izan zan Virgili-ren ta Pizkundeko artzain-elertiaren ao gozoz igurtzia, nimbait. Ba darambil emen lagun bat, barreikarri ta alaia, arako Agaton Korkotx, eta onen ermaiñua dala-ka, orrialde gazi-gozoak manea zituan Etxeita gureak. Liburu biotan, atzerriekako gauza jakingarrien albistak emon ditu, zera, euskeraz ain murritz ditugun orrialdeak.

Nobela biok garbi-garbiak, edozein umek irakurteko lakoak. Irakurgai ta ipuin "Onak", aitatu eban itzaurre batean, ta orixe izango zan aren jokabidea. Aren arima eder bakuna, orra or agirian...

Buru-jantziek eskeintzen deuskuezan gogo-problemarik ez eban agertu. Osteria, nobela errikoia asmau zituan, erri zeeko asi-orrazi ta gorabeerak ederto batean esanaz. Orregaitik ba, elebarri biok, euren ariak dauken arreta ta interesaz baiño ere, jantzi-agaitik, izkera dotore ta jatorragaitik ditugu jakingarri.

Berbakuntza gozo ta bizia darabil beti; iturri onekoa, aren aldiko euskaldunen ezpan-artekoa. Euskaldun batena, arduraz orraztua, labur esateko. Noizean bein, erdalke-rrimaren ikutua izan arren, ta ori itzurrenari buruz scillik, euskal-esanaldi bitxi, txanbelin ta mamitsuak daukaz oparo, ta orregaitik, aren liburuok bein eta barriko irakurtea onuragarri litzakigu oraingo edonori bere. Aldi onetako erdalgiro onetan, itzez ezezik esanaldi neo-mordoiellozko aro onetan, bear-bearreko esango genduke...

Itz barriak eta erdi ez-ezagunak, orrialdeen barrenetan jarri oi zituan, aen esangurea gaztelaniaz adierazirik. Berba banaka batzuk, berberak asmau bere bai. Demostrevitu dalakoa, inguru onetan lez darabil, atze-surretan... Atzizkiren batzuk ez erabiltzan egoki: -ren ta -en; -ari ta -ai; -tera ta - ten; -la ta -nik, iñoi zka itxulastu oi ditu. Aditzaren jokoetan, irugarren notiñak leen letra bage jarten ditu, iñoz, ta joaneko ta oraiñeko erak naastutenean ditun bakan. Makurrok edo utsegiteok, pare bat kuartillatan sartu leitekez, ta orrez berezi, jatortasuna dario aren luma azkarrari.

Giputz-ikutua dauka "zer" batzuetan. Esaterako, -txo txikergarria darakil beti, ta ez -txu; eta -tera esan-bearraren esan-bearrez, aditzak -ten eskatzen dauanean bere, -tera ikusi izan dogu iñoi. Urten, igon, beste izkelgien erara darahiltz noizean bein: urten zan, igon ziram, eta abar.

... Esanaldi sail ederra batu leiteke aren lerroetan: batzuk oargarri yakuz; beste batzuk pitxi apaiñak, "Kresala"-ren egileak berberetza artu eukezanak. Ezagun dabe biek aldi batekoak zirana, ta euskal-eragin bardintsukoak. Gaurko idazleek gaienok, urriegi ditugun esakizun txairio ta jatorrik asko.

Gramatika egokirik izan ete eban Etxeita-k esku-artearen? Ai, Altube-ren "Erderismos" joria ezagutu izan ba leu!... Gogatsu ikasi ta jagon izango zitukean, nimbait, arau zeatz eta aberasgarriak. Arauok, ostera, oraingo idazle batzuek bere, ez ditue gogoko. Gaztelaniaren itzurrena etxekeago yake, eta ortik dator jokera errezenaren zaleago izatea.

Etxeita-k, bear bada, ez zituan beti anaikiro buztartu semantika ta itzen garbi-miña. Kezka ta ardurearen faltas, ez ostera. Euskera erdaltsuaren zale diranak, aurki, ez dabe orrelako okerrik; ta euskera asmau gura dabenak ez dabe itzen nortasunaz begiramen sundirik. Egia da izkerea, berez, asmoen agertzaille soilla besterik ez dana. Beraz, aldakorra da, gizonen oitura ta gauzen antzera. Baiña elederreko lanak, izkera narratsez ta zazakelez jaztea ta argitaratzea, jokabide sasikoa izan da beste izkuntzetan, oker ez baldin ba gagoz. Erriak bere izatez apalean, bere zeetasunean, euskera txairosgoa - bai itz jatorrez, bai alkar-buztartzez - gogozago entzun oi dau autuetan, itsaldietan eta edonun. Ori egiztauteko aukerarik izan dausnak, ondotxu daki. Ta obeto dakinari izketan entzun ostean, euskaldun arrunta, exritarra, onusmuz geratu oi da, izkera ain dotore, banako ta mamintsua jakin ezaz. Ta ez dogu orain ontzat emon euskera gatx ta asmau-ala esanikoa, euskera errikoi ta berezkoa baiño, garbitasuna ta garbikeria zer bardiñak ez diralako, ain zuzen bere.

Euskal-idazle izan ez diran letradun edo burujantzi asko izan da Euskalerrian. Esaterako, mixiolariak, eta baita autorrentzuleak ere. Eskribauak eta, osagilleak eta. Zenbat jazoera, zenbat egoera latz nobelagarri ez ete ditue ikusi ta bizi-izan, berberako, mixiolari euskal-<sup>dun</sup> sail zabala ta edatsuetako gizasemeak? Zergaitik ez ete deuskue aberastu gure elertia, (zegaitik) irakurgai biribillak agertuaz? Go-goan dogu oraintxe, Jon Mirande-k idatzi eban arako esanaldi gordiña: euskaldun elizgizonak euren Erriaren alde baiño bere, beste batzuen alde lan egin izan dabela geienbat; eta sari ordez, ostera, esker txarra baiño ez jasoteko... Egia da, alan bere, euskeraren alde jardun izan daben euskaldun euskaltzelerik zintzoenak ia beti, ain zuzen, elizgizonak izan dirana.

Beste letradun asko, ibiltariak, itxasgizonak, aundikiak batez bere, iñoiagertu al izan dira euskeraren aldeko lanetan? Gurasoeng berbeteari ez deutse jaramonik egin; eretargiak txakurren zaunkai ainbat. Leteraturaz prestaerarik ezan ez dabela, surki?

Gure izkerako nobelagintza, beraz, atzo goizeko da oraindiko. Erkiña da ba, urria, ume-jantziduna, sustar motzekoa. Unamuno-k eta Pio Baroja-k euren nobelarik geienak, edota guztiak, lendabizi euskeraz - ta gero gaztelaniaz - argitara izan balite, barriz, ez ete zan sortuko beste modu bateko zaparradea euskera dala-ta ez dela? ...

BLOTZERAGIÑA. Txix agertu deusku arek argi ta garbi lan guztietan. Etxeita gurea biotz-idazlea da nabarmen, baiña edermenak bere, aragi bizian dauka, ta gure nobelakuntzan maisutzat artuko dogu, beste batzuen alboan. Sinismen sendoko gizona, zuzen, langille, samur ta argia, aren gaiburuak Euskalerriari autsan maitetasuna billoizik azaltzen dabe. Eta 362 gn. prrialdea irakurri giñei: "Euskalduna ziñean - dirautsa Josetxo-ri - ta eneban iñoi euki zure jatorriaren bildurrik."...

Mundaka-ko erriak zor aundia deutsa bere seme leial ta zintzo oneri. Noizbait eta leenbaileen goratuko al dau, merezi izan dauan aíñeen.

( Extractado de "ESKU-AZALAK", Colección "Olerti", 1962, pp. 107-123. Se trata de un estudio sobre Etxeita, leido por el autor en el "Olerti-Eguna" de 1.961).

JUAN SAN MARTIN: Escritor eibarrés, asiduo colaborador de diversas revistas, ágil y agudo periodista. Miembro de la Academia de la Lengua Vasca. De su ameno libro "ZIRIKADAK" ofrecemos varios capítulos; en ellos podrán apreciarse su profundo conocimiento del habla popular - en su particularidad eibarresa -, así como la gracia y sal de las gentes de Eibar y Elacencia de las Armas...

III.- BIZIAREN GARRATZA.- Atxolin ta Irurixa ziran lagun bi, ordu santu guztiak alkarrekin pasatzen zituenak. Zer esanik pe ez, taberna-zaliak zirana. Aretxek bai eleiziak azpian artuta iltzeko arriskorik barik bizi zirana. Derrigorrezko biar orrek biarra eraitzen zetsen. Izañ be, eurendako ori zan biziaren garratza: biarra.

- Astia oker einda dagok - zion batak bestiari -, egun bat biarra ta sei jai izan biar litzakezak.

- Obe=ezteky=goizian=eetik=jaiki=orduke=-uezabak

- Bai, ori, ori. Da, gañera, goizian biarrian asterakuan jornala kobrau, - zion bestiak.

- Obe eztok, goizian oetik jaiki orduko, uezabak etxxra bialduta eukitzia?

- Orrek guztiok olan izan biar zituan, baña, emen, biarginok legiekin jabetzen ez gaven artian, ez dagok gauzokik.

Urtiak juan da urtiak eterri, aiskide bien zoritzarrerako, legiak orrela jarraitu eben; eta era or Atxolin'i nun eterri jakon eriotzako ordua. Izañ be urtiak eztahe parkatzen, ta eriotzaren sega zorrotzak eztau iñoren dako errukirik.

Oitura zan noduan, senitxarte ta suzkuak gau-belia aitera juango zirala ta Iruri-xak, eim lagun aundia ebanet, bera be juatia erabagi eban. Etxian sartu zanian, Atxolin zaparer senide elizkoriek eruan eben gorputz-illaren surrera. Ta an euan Frantziz-kotar prailier abitxuakin kaja baltz baten barruan; eta Iruri-xak, orrela ikusi ebanian, esan zetsan:

- Ai! Ai! Atxolin gizajua. Eure bizi guztian biarra besterik eztok ein, da oin ein abe praille?

-----

XIII.- I.V.- Eibar'ko aberas barri bat, Paris'tik osteria ein ondoren, lagunartiar kontatzen ziarduan, an ikusitako aurrerapen azkarrak.

- Televisiñua be edozien etxetan dagok.

- Oñiezkerro emen be laster izango juagu, - diño beste batek ondotik.

An induruan zan itziartarrak zerbait entzun eban, da sartu eban musturra.

- Televisiñu ori, zer dok?

- Tira, kirtengo. Oindiok televisiñua zer dan eztakik? Ba, radiuan moduko katxarrrotzo bat, entzun-ala ikusten dana. ( Ez gure aberas barriak asko ekialako; baña, eukian jaikia eban berakin).

- Ikusi? Zer ikusi baña?

- Ba, ... gauzak, ... jentia be bai. Adelantu aundia dok ori, Espanian oindiok ez-jaukagu olakorrik.

- Esta biarbe.

- Zer ba?

- Jente geiago zertarako ikusi? Len garanok pe alkar ikusi eziñik gabiltzak eta.

-----

XXIIIT.- PURUA ZALAKUAN GILEZA.... Pernando, jai arratsalde artan - ta noiz ez! -, parrandan gelditu zan. Norbaiten lepotikafari dotoria ein eban, oin esaten dogun moduan "akeita" ta "txola" artu be bai, ta "txokor" (purua) aundi bat erdi-errerrik etxerutz abiau zan.

Gabeiko orduak - goizekoak ez ete? - aurrera zoiazen, eta etxeko atia itxita bilau eban. Pernando gizajauak ba-eban naikua biar zutinik egoten, da ate-morroluan giltz-zulua billatzeko zelan izango zan ba gauza?

Ateori zabaldm eziñik ebillela, agertu zan Txanton serenua, amaika aldiz Pernando maitekiro ceratu ebana. Pernando'ri adarra jote alde, asi zan kantuan:

"Ardautxo baltza, zer dakak ik? / Larregi edanak ez gauzonik.  
Gizonak ipintzen ba-dakik ik / zutiznik ibilli eziñik."

- Adarra jotzia baño, obe eingo euke atia zabalduko ba-esta.
- Baña, Pernando, zelan nai dok pa ik atia zabaltzia? Giltzan lekuan puruakin abil barren (N.B. : "Barren", baiezkoari indar geiagokin ziñetsitzeko erabiltzen da Eibarren)

Orduan Pernando'k arrituta begiratu zetsan eskuetan zerabilenari.

- Egia dok, gaiñera; giltzan ordez, puruakin nabik. Ene! nik ein juat eitekua: purua zalakuan giltza erre.

XXVIII.- ONA TA TXARRAREN FILOSOFIA PLAENTXIA'... Ez takigu norañoko sakontasuna eben gure Euskalerri barruan Sokrates, ek eta Aristoteles'ek; eskola peropatetikuaren barri eldu zan ala ez be eztakigu; bañan, Plaentxia'n beintzat, Kant'engandik edo, errazoiak ondo neurten ikasi zituen noizbait.

Abadia kulpitxora igotzen zan bakotxian, plazentzitar argieri komprendidu eraitzeko, ez eukan Biblia'ko parabola luzien premiñarik. Ba-ekian nola berba ein. Zelako lapiko, alako tapa. Bai aukeratu be plaentxiatarri euren dako moduko abadia.

Bein, ona ta txarraren ejenpluak ipintzen asi zanian, esan eban:

- Txoriburu askok diñue, liburu onak eta txarrak, danak irakorri biar dirala. Baña nik esango neskiue: onak eta txarrak, danak irakorri biar ba-dira, perretxikuak pe, onak eta txarrak, danak jan deinezela!!

XXXIV.- KONBITXA.- Eibartzailek, nun nai, plaentxiatarren batekin alkartzan ba-dira, laster asten sira zirrikatzen euren urtera zelebreren bat entzun naian. Plaentxiataben umoria, barriz, amaierarik bakoa da, ta aren urterak atzeko otsik bakoak izaten dira.

Plaentxiako Andramari jaiak urreratu ziran batian, Eibar'en gertatutakua da: Eibar'era azaldu zan pplaentxiatar bat, zeregiñen batzuk eitera; ta bi edo iru eibartarrek ikusi iben, da nola ixilllik laga? Zirrikatu naien zerbait esan biar da, aretariko batek urten zetsan:

- I, plaintxi, Andramariak laster dituk eta orreitiok bazkaitara ez-pada be, gu-txienez afaitara konbidauko gaituk, baintzat.
- Bai, gizonak; orrenbeste eingo juagu. Etxera juaten naizenian an dakadan listia ikusiko juat, eta Sanjuanetan konbidau ninduen eibartar guztieri pasuko jetset konbitxa.

Ederra sakatu zetsen!

XXXVIII.- EITEM DAN NEURRIAN.- Patxiko kamiñeruak ba-ziarduan atxur batekin kamiño bastarrian, ezin igarri biarrian ala denpora-pasa ziarduan. Orretan, Txomin pasau zan albotik:

- Zer da, Patxiko? Biar asko eiten al da?
- Baj!; pagatzen dabenagaitik...
- Gutxi pagatzen al dabe?
- Baj!; eiten dogunagaitik...

LX.- ZARRAZTADA OTSERA... - Bein, plazentzitar bi, Eibar'en egun guztia txurrutian pasau ondoren, berandu batian, ba-zoiazen ñtzerutz... Eibar'ko urteran, Urkuzu'ko itur-onduan gelditu zan bata txixa-eiñan, ta bestiak aurrera jarraitu eban, bidian arrapauko ebala pentsaurik. Baña poliki-poliki Azitain alderutz urreratu zanian, kontratu zan bestia ez zala agiri, eta itxuli zan zer gertau ete jakon jakitzera.

Barrena-zarreraño juan zan, da iñor agiri ez; Loiola pasauta be cz. Berekautan ziñuan: "Nun sartu dala, baña, gizon ori? Eibar'ko ardauak aincoste tiratzen ete juek pa?" ... Urkuzu'ra eldu zanian, an billau eban lagatako lekuan bertan, iturri kontran.

- Baña, gizon; zeiten ago?

- Zeiten egongo nok pa? Ez nok ikusten txixa-eiñan nagolaç ala?
- Bestiorrek, begiratuta, esan zetsan:
- Eztok parren txixarik eiten.
- Ezetz? Da ori zaratiori, zerena dok, pa, orduan?
- Iturri zaratiagaitik ziñuan.

JUAN SAN MARTIN ha cultivado también la crítica literaria. Como ejemplo, ofrecemos un breve estudio comparativo de las novelas "Garoa" y "Kresala":

"Askok <sup>n</sup> itandù dabe gauza da auxe: "Kresala" ala "Garoa"? Ta, Txomin Agirreren eun urtegarren onetan nere iritzi batzuk emon nairik nator.

Iru urte datozen Donostian egin ziran literatura jardunetan esan nebala, "Kresala", "Garoa" baño askoz obia zala. Geienak ezezkuan euazen. Ez bakarrik ausartia iduritu iakuen, baizik eskandalu bat zan, an batu ziran giputx geienentzat. Baña seguru nago, gipuzkuarrik geienak ez dabiela kompendidu izan "Kresala"-ren muina. Bizkaiko euskalkia ez ezagutzeaz gañera, eureri gatza falta iakuelako...

Aituentzat eta, gutxi jakinaren, zentzunez ondo begiratzen dakienentzat, ez dago dudarik "Kresala" obia dana. Ta ez itxasoa ala mendia, zein atsegiañagoa erabagitzeko, ze, itxasoa maitatuaren, mendi zalea naiz. Izenak diñuen moduan, "Kresala" <sup>k</sup> itxas giroa dakar, eta "Garoa" <sup>k</sup> mendikoa.

"Kresala" dogu euskeraz egin danik nobelarik onenetakua. Gaia, tarte, pasarteak, bi-titasuna, gatza, errealdizadea... Zer geiago eskatu geinke nobela bategandik? Tndarra dauka, bai nobela bezela ta bai izkuntzaren aldetik.

"Kresala" <sup>n</sup> azaltzen dan guztia da egillearak biziak. Bertako Tramana, Kitolis, Brix ta abar, bene-benetakuak dira. Barriz, "Garca", motela da; bertako pertsonajietar ez dago "Kresala" <sup>n</sup> bezelako egiazkorik. Ezagun da egilliak berak bizi ez ebana ipini ebala. Ta alperrik emongo iakoz bueltak, beti "pastiche" bat izango da.

Euskeraren dotoretasunari geiago begiratzen deutsala? Ori, Narziso utsa litzake. Norperan tripako zillari begira egotia ezta izkuntzaren edertasuna. Izkuntzak, bere barrutikako sentipenak biar ditu, berekiko indarra naiz barre naiz negar eraitzeko. Kitolis, Arrain saltzalleak, Lazka-matasak edo beste orrelako pasarte batek geiago balio dau "Garoa" <sup>k</sup>ko edozein pasartek baño.

Agiri-agirian dago, Txomin Agirrek "Kresala" bere bizitzaren barruan erciala, ta "Garoa" azalez.

"Kresala" prantsezera itzuli zan, orretarako aña zalako. "Garoa" itzuliko balitz, konturatuko giñake, ez leukiala erdirik balioko. Ez dago zalantzari, "Kresala", ondarrutar nobela, ez bakarrik obiagoa dala, baizik egundaño euskeraz egin danik onena edo onenetakua da.

Gañera, "Garoa" <sup>k</sup>ren era errromantikua, literaturan aspaldi baztarturiko era da. Txomin Agirren denporan ia erabiltzen ez zana... Batzuek diñue, Txomin, José M<sup>s</sup> de Pereda- ren kidekoa dala. Biar bida, garai arretan, ari antza emon naian ibilli zan. Gaiak aren erara aukeratu zituan. Baña, zorionez, ez deutsa urrik emon. Prosa ariñagua dauka. Eskerrak bere euskaldun izateari edo, laburkiago ta zorrotzago izatera bultzatu eben. Ze, gaur, ez neuke trukauko Pereda-gaitik. Onek baño askoz goragoko malla merezi dau gure Txomiñek. Ze, aurrian esan dodan bezela, mendizalia naiz, ta "Peñas Arriba" be ezin izan dot irakurri, nekatu ez-ezik, gogaitu gabe.

"Kresala" <sup>k</sup>gaz ez deutsa bere denporako nobelagileeri zorrik. Arro erakutsi gein-kean nobela da. Gaian badau zerbait errromantiku kutsu. Bere denborako joera zan orre-lla, ta, guztiok bezela, mendeen semia genduan Agirre be.

Gure idazle aipatua, "Kresala" <sup>n</sup>, bizkortasun biziaren jabe da. Bere irudimen aberatsa zuzendi ta zorrotz darabil. Ta ori ezta lortzen izkuntzaren aberastasun barik.

(Artículo publicado en el número extraordinario de la revista ondarresa "BOGA-BOGA" dedicada a D. de Aguirre en su Centenario, Mayo-Junio de 1.964, pág.22).

BUSTINTZAtar ERROSE .- ( Mañaria, 1899-1953). Sobrina del gran "Kirikiño", siguiendo su ejemplo, ha dejado escritos cuentos populares recogidos en su pueblo natal. Muchos de ellos se han publicado en la revista "Jesus" en Biotzaren Deya".

XIV.- LAMIÑA DANTZARIA.- Egunsentiko argiak gabaren illuntasuna aienatzen eban bitartean, Gaillurreta'ko etxagunaren alabarik gazteena baso-txabolan aurkitzen zan bere aitagona joian, ari gosaria croatera.

Egunaren goizak udabarriaren antz osoa eban. Txori-abesti zoragarriak orrekatzoa-ren mur-mur ots soiñulariaz batera, "udabarria, udabarria" deadar egiñez, bidazti liraiñaren oinkeda bakotxeen baso-lora politak sortzen ziran. Bidearen zoragarria!

Gaillurreta'ko neska liraiña be, txorien antzera, bidean- zear kanta-baten ziarduan; eta bide-zidor eta aldatzak bizkor igaroaz, eguzkiaren beroak bazterrak beroztzen asi baño lenago, aitaren txabolan zan.

Eguna an goian aitagaz batera ederto ta pozez igarota, illuntzean basoa-beora etxerantz abiau zan. Gaua, illuna be illuna zan; eta gure neska gaisoa ikarearen-ikaraz arnasa be ostaz artzen ebala etorren. "Au illuntasun bildurgarria! - esan eban -. Norantz noian ba'neki... Illargi ederraren argiak lagun egin beist..." Eta bildurrez zanarren be, aurrera ta aurrera egiten eban beti.

Alako batzen, Untzillaitz aldeko laiño moltzo sendoa astiro urratuaz, illargi betea amaseiko gorri baten antzera, ikusgarriro agertu zan. Eta neska gazteak, bere bido-lagun agertu zan goiko argiontzi bakanari, "Agur, ondo etorri!" esanez, bildurrez beterik agurtu eban.

Illargiaren argiak, gauari egunaren antza emotean, bere bildurra beingoan sienatu zan; eta bidea errazago igaroko ebalakoan, abestiak kantetan asi zan... Onstan, Aranaitz'eko landatxoan, "Illinti-lamiñea", soiñeko gorri-gorri bat ebala, eta, illargirantz begira, iñun diran zirki-mirkiñak egiñez, gurketa bakana egiten ziarduala ikusi eban... Axe bildurra! Zer egin?

Ikuskizun ain bakanaz, gure neskeak iges egiteko asmoa artu eban. Baiña lamiñeak, kiñu bat egiñaz, neskea geratu egin eban; eta deadar aundiz esan eban:

- Ona emen nun datorren nire soiñu-otsera dantzan egingo dauan emakumea! Ene, berau dan ederra! Egingo zenduke dantzan berton? Aspaldiko gabetan, illargiaren argitan, soiñu polit au joten diardut; eta dantzaririk aurkitzen ez dodan ezkerro, nire lan eta alegin guztiak alperrik izaten dira. Lan egin eta ezer bere ez... Baiña gaur, zu lako neskatilla liraiña aurkitu dodan ezkerro, pozez be pozez nago. Onetarako zarean zoragarria! Soiñu onetan dantzan egiten ba'dozu, lurreko zoriontsuena zcu izango zara... Ez dozu nai?

- Ez, ez dot nai -- erantzun eutsan neskeak -- . Guraso onen alabea nazan ezkerro, gau-dantzaketen-eta ez naz oitua. Gaiñera, nire senargeia dan Leungane'ko mutillari be, olako dantza motak ez yakoz atsegina izaten. Bereaz, nire soiñak zure soiñu-otsetar, ez dau zirkiñik egingo, ezta eraginik be egingo... .

- Zu zarean aderraz, Leungane'ko mutillari zagoz begira? A baiño lerdenagoak eta aberatsagoak aspaldian zeuri adi-adi dagoz-ta...! Zuk dozun edertasuna ba'seki, edonorentzat ez zengokez... "Zaldi-urdiñeko" asko be, zure gei(duin) ez dita-ta...!

Berbok entzutean, neskeak bere kolkorako iñean: "Onen esan guztiak, egia ete-dira? Ala, aizearen arbelak lez, utsak eta ustelkorak ez-ete?"... Eta beratzaz entzun eba-zan gorapenai buruz apur baten oldozten (pentzetan) egon ondoren, lamiñeari ikaraz itandu eutsan:

- Onen ederra ete-naz, ba? Nire arpegiaren irudia oraindiño egundo be ez dot iku-si. Nire aitak, norbere edertasunaren barri jakitea, gazte askorentzat galgarri izater.

( URRENGO ORRIAN AMAITZEKO )

... dala esaten daust-eta... Ba-ete-naz, ba?

- Izango ez zara, bai! Esan dozuzan gauza guztiak, zure aitaren lelokeriak baiño ez dira. Bere esanak egizuz, bai, ta igarteko (igarri barik), zorionak iges egingo dautsu arin-arin.

Eta orduan, lamiñea neskeari eskumako eskuak oratu eutsan; eta erreka-ondora eroanda, auxe esan eußen: " Begiratu orra, egiaren izpillu garbi orretara..."

Eta Gaillurreta'ko alabarik gazteenak, bere begi zabalak errekearen sakonera zuzenduez, bere arpegiaren irudia ur gardenaren argitasunera ikusi eban. Orduan, pozez beterik, auxe esan eban: " Ederra nazala? Bai bein! Zure berbak aizearen orbelak ez dira... Emakume altsua zara zu beintzat. Orain, zoriontsu izateko, zure soñuaren danzaria izatea baiño ez dot bear. Goazen zure jouregira; antxe bizi izango gara ondoa! Anglo "Lamiña-dantzaria" neu izango naz-ta..."

Egun=baten=baiña= Eta neskra gaisoa, gau aretan, "Illinti-lamiñcagaz" batera, Ko-bagorri'ra joan zan. Eta artzulo bildurgorri aretan lamiña biurtuta, geneko gabetan illargiaren argi bigunetan dantzan ekiten eutsan. Eta guztiak, "Lamiña-dantzaria" ereisten eutsoen, dantzaririk bizkorrena zala-ita.

Egun baten, baiña, Gaillurreta'ko etzaguna, Mugarra'ko puntan bere alaba kutuna zaren zain surkitu zan. Eta inguruko landa eder baten dantzan ziarduala ikusi ebanean negar eta negar egin eban. Orduan, aitak, amar bidar beraganatzeko dei egin ondoren, madarikatu egin eban, esanez:

- Alaba gaitzo ori! Jolas lizun orretan diarduzun artean, madarikatua izan zaitez. Ta zure aitak sorturiko soin ori, bat-batean arri-mokil biurtuko al dai!

Eta une arctan bertan, Gaillurreta'ko alabearen gorputz liraiña arri-mokil biurtuzan. Eta arri-mokillaren inguru guztian, arantza zorrozdun larroondo batek lora baltzak sortu ebazan... ( AMAIA )

Euskalerriko Ipuiñak: De la popular serie de cuentos sobre "Peru ta Marixe", he aquí un ejemplo ( recogido en magnetófono, de boca de Teri Ibarrola):

" Peru: Marixe ta kriaua bizi zirian alkarregaz, baiña Marixe noznai egoten zan gaixorik. Sarritan eukiten eban min; batian, lepoko miña; bestian, alboko miña, ta bestian ankako edo nungo edo angoa sarri. Baiña joaten zan Peru Londresera sillun-bedarrak ekarten, ze Marixeri árek mesede andia egiten eutsem... Ta egin batian esan eutsan kriauak Peruri ze:

- Ai Peru; zu andik zarian arte, eztakizu asko emen zelako errromerriak egoten dirian. Marixerik janketa andiak emoten ditu amen, auzoko lagun guztiak ekarrita. Arek erabilten ditue pozak eta kantak!

- Zer diñostazu, kriaua?

- Bai bai, bai; egia da gero ori!

- Onako, onako konturik! Ba egin baten egingo deutsat Marixeri agur ta joan baniz lez, alde biar dot bistatik. Baña or egongo naz atostetxuan, ia amen zer jazoten dan.

Da esan da izan. Egin eutsan Marixeri agur ta an geratu zan. Da Marixerik beti lan-txerik ekarri zitun auzokaok, ta baita janketok eta erromeriok be bazirian an. Zer zango ijuixa ta zaratia! Bai, ondo zaparradak ataraten zituen:

" Peru guria Londresen / sillun-bedarrak ekarten,  
Peru guria andik dan artian / guztiak elgau gaitezan."

Ta orixe kantiori amaituta batera, urten eban Peruk. Ta baita berak be kantau:

( DATORREN ORRIAN AMAITUKO DA )

" Neure kriaau txorixe / zeuk esan zeunstan egixe:  
arratsian ikusiko nebala / dantzan neure emazte Marixe.  
Ai, oi, ai, egixe / zeuretzat kortan dauen zaldi zurixe..."  
..... (De la revista "Aranzazu")

Las verdades del zorro:

" Azerije gosetu zanien, urten eban lezatik, da jaten to-petako, errijoa pasau biär eban.

Ez euken dirurik pasajerueri pasajen pagetako. .. Pasajerueri esa'eutzen iru egi esango eutzesala pasajen pasetiarren.

Lenengo mogidu zaniñan, esa'eutzan pasajerueri lenengo egije: " Pasajerue, entzusu lenengo egije: Idetargije argije da, bayo egune baizen argi ez." Pasajeruek esa'eutzen: " Ondo dau."

Eldu ziren errijuen erdirä. Orduñan esa'eutzen bigarren egije: " Inoen ama ona da, bayo noborelangorik ez." - "Ondo dau", esa'eutzen bestiäk.

Eldu ziren bazterrera. Orduñan esa'eutzen irugarren egije:

" Pasajerue, pasajerue, / prakatxu zarrak deukosuz,  
nilako asko pasetan bosuz / ostera bere eukosuz."

- " Ondo dau", erantzueutzen pasajeruek.

( Contado en 1923 por Matias de Aranaz, de Kortezubi.- Recogido por Dn. José Miguel de Barandiarán en "El mundo en la mente popular vasca", II, pp. 132- 133 ).

LUKIAREN ZORITXARRA.- " Bein baten seguru, lukie, goiti bera zerutik etozan edur matasari begira ei egoan. Saie jatzi ei iakon ondora ta esan ei eutzen:

- Zer eiten dok, Lukito?
- Emen ñagok goiti bera datozen zer oneik zer ete doasen begira.
- Eztaik zer doasen? ! Oillo lumek, gizona! Geur zeruen itzelesko bodea iagok; onek danok oillo lumek dozak.
- Neu be antxe zeruen bañegok gura neukiek, oilloak asko gustetan iatazak eta.
- Bada, ori baiño ez padok, neuk eroango aut beingo baten. Fara adi neure bustentik dindiliske.

Eta lukiek agoagaz bustenetik oratu ei eutzen, eta saie luki te guzti egaz asi ei zan. Lañoak baiño bere gorago igon euanean saiek lukieri esan ei eutzen:

" - Ondo ator, Lukito?"-. Baña lukie ixillil, seguru. - " Ondo storren diñoat" -, esan ei eutzen barriro saiek. Baña lukie ixilllik ostera be.

- Erantzuk gure ba dok; ezpa-bere botako aut.
- Bai -, erantzun ei eutzen lukiek.

Baña " bai" esateko agoa zabaldu eban eta goiti bera deabrue baiño arifiago asi ei zan. Bidean eterrela, bere parean egozan arrieri zarata egiten ei eutzian: " aparta, peñas! derribus! aparta!".

Arrieri pare-tik kentzeko esaten eutzen, expabere austu egingo eutscla ta. Baña arrieik parean itxon ei eutzen, eta lukie tortille egin ei zen.

( De " Euskalerriko Ipuiñak", edit. Itxaropena, " Kukiska Sorta", nº 17-18, pp. 113-114).

Según Barandiarán, una de las fórmulas consagradas para comenzar los cuentos es: " Antxiñen munduen asko lez..."; y para acabar: " Ori olan ixen bazan / sartu daitte-la kalabazan, // eta urten deyela Derio'ko plazan" ( Bermeo) o " Arek ondo bixi ixan basirian, gu ondo bixi ixan gaixala" ( Lekeitio)...

-- &&&&&&&&&&--.

JUAN ANTONIO MOGUEL URQUIZA: " Konfesiño Ona edo zeinbat gauzak lagundu biar deutseen konfesiñuari ondo egiña izateko."

Este libro vizcaino es parte del "Konfesio ta Komunioko Sakramentuen gañean FRAKASTE-AK", escrito por el mismo Moguel en guipuzcoano.

He aquí parte del Prólogo ("Berba-aurrekua irakurle bizkaiorrari"):

Orra noz agertutenean natxatzun aspaldi onetan eskatutenean zendubana emotera, ta zan kiputz euskeran argitu dodan konfesiñoaren gañeko Liburuba. Nik ikusi baneu bizkaitarretan euskeriaren zaletasun kiputzetan nekusana, ez nintzan ain esker dongakua izango, zein da itxiko nituban barurik neure bizkaitarrak, Jangoikuaren berbiaren ogi ederra zabaldurik atxaeko, ta arrotz legez egiten jatazanetan.

Ez dot damu, artu neban asmo ta nekia. Neure biotzeko pozik andijenagaz ikusi dot, zelan zabaldu dirian milla bat liburu Naparroa, Gipuzkoa ta Bizkaijan. Jakin dot Abade Jaun askok irakurten ditubezala Elexetan, ta nekezale ez gitxik euren etxeetan; ez niri eskerrik, ta bai Jangoiko doe guztien emolliari.

Bazaut, autor dot, ta ez daukat aziuta bizkaitar barrukuentzat gatz izango dala Kiputz euskeria ondo aditutia. Baña berba askatu adituten ez dirianak, aditu oi dira lotu ta katetuta dagozan bestiakaz batera.

Alan bere, atsegina emoteearren, ta gauza ain biarrak itsatsi ditesan obeto bizkaitarren biotzetan, ipiñi dot Liburu bera Bizkaiko euskeran, ta zerbait laburtu ditut luzziak zirudijkezan Irakaste, edo Doktrinak. Au egiñaz, liburuak urtengo dau eskuor, ta txikarraguak, merkiaguaz ostian. !Ze poza niria entzuten badot bizkaitarrak alkarreren leijan dendatuten diriala erostera liburu au! Ez biotza iminirik daukadalen saldu-erosijatako irabaztetan, ta bai dirua aurreratuten dabeonak liburu onen agermerako, kalterik izan ez dagijen, oztu ta atzeratu ez ditezan urrenguetarako.

Bai, ta dinot tolestura baga, nire urtiak izango ez bedira bere luzziak, gura neukez irago enparetan jatazan egunak ateraten on izango dirian liburubak, ni illda bere, berbaz irakatsi ezin dodanian, irakasteko Zeruko bidia euskaldun guztiai liburu onen bidez. Zeinbat arimak igoen daben Zerura gauza onak irakurrita, ain gatz da zeinbatu edo kontetia, zelan litzatian esatia zeinbat dirian gure gañeko izarrak. ;Nok ekarri zituban Santu ain andi izatera San Anton Abata, San Agustin, ta geure San Ignazio Loyolako? Liburu onen berba ixil, baña itzaltsubak.

Esaten dabee gitxieng esan biar leukeen askok, euskeria baldresa, traskilla ta soñeko zantarduna dala: ezin iñck apaindu leikiala. Nik gura baneu apaindu bere etxe ta utxaan daukazan bitxi ta jantzi ederrakaz, apaindubaguak urtengo leuke erdera askok baño; baña ezagutuko ez leukee etzekotzat, dongaro jantzita beti ikusi dabeenak. Orregaitino ez dot jantziko jaiegunetako soñekuakaz: esan gura dot, ez dodala irakatsiko noraño eldutenean dan bere ugaritasuna berbeetan.

Gura dabensak sinistu Bizkaiko euskeriak ez deutsala ezer zor kiputzenai, irakurri begi onek baño leenago urtengo daben neure adiskide andi ta, gauza onetan, neure biar lagun legez egiten dan Aita Fray Pedro Antonio Añibarro, Zarauzko Kolegio A.San Frantziskoko Ordean Misionarijak bizkaitarrentzat atera daben liburu txikar, beña ure guztiak baño geijago balio dabena. Ediroko dau "Esku Liburu" onetan Bizkaiko euskerian edo eztorezko adierazo leitezala esan biar dirian gauzaak, berba nekezaleen aoetan dabiltsanakaz. Bizkai barru-barruko semia da bera, ta bero euskera garbi ta ederrak ezagutu eragingo dau, nun nai ikasi leitiala ondo berba egiten, buruba zerbait nekatu gura bada. Alperren soluak beti egongo dira bedar txaarrez betiak. Bizkaitar guztiak erosia biar leukee Liburutxu esan dodan au.

Ikusiko da ez ditugula bardin erabagiten berbaak aitatu dodan neure adiskide onek ta nik; ta emendi aterako da, zetan daguan Bizkaiko euskeriaren desbardintasuna. Ak diño "maitea, neurea, zoroa, gozoa, burua, Kristinaua...", nik barriz Markiñea inguruaren legez " maitia, neuria, gozua, zorua, buruba, Kristinauba." Zein batera, zein

... esan, ez dau ezer galduen euskeriak. (...)

Nik artu dodan berba-bidia ezin obia dala edozeñek ezagutuko dau. Konfesiño ona da Zerurako atia pekatu egir dabenentzat. Badakuskuz Eleixak kristiñauz beterik, konfesau ta duazala noz edo noz guzziak altarako maira. Baña, ¿zeinbat duaz lotsaz pekabuk ukatu edo edertuta? !Zeinbat esamina arin ta dongaro egiñagaz? !Zeinbat, damu egi-jazko gaba? Uste izan dot, bada, ezin neikiala gruza obagorik zelan dan gauza oneen ganian erakustia astiro ta argiro kristinauban jakin biar ditubezan gauzaak. Barriz, asko dagoz Konfesiño jeneralaren premiñia daukeenak, ta ezagutu gura ez dabeenak.

Konfesiño onak dode Komunino ona, batak ta bestiak gure betiko salbazimua bizieta on batēn bidez. Irakurten da, Santa Teresak zeruti etorrira adierazo eutsala arima txito on bati, Predikadoriak beti legez jardun biar leukeela berba egiten konfesinoaren ganian; sinistu bere ezin leitiala zeinbat arima betiko galduen dirian, Konfesiño dongaro egiñak gaiti.

Bizkaitarrak artuten badeuste liburu au, agertuko dot onen ondoren, bere lagunarriztat, Komuniño onaren gañekua. Abade jaunei jagoke erosi eragitia onelango liburubak euren Errijetako kekezale irakurten dakijenai. Diru gitxiren kostubaz egingo ditubez irabazi andijk euren arimetakako. Lagunduten ézpajake onetan, ez dabe barririk jakiten; jakinarren, ez daki je mun erosi. Sermoi gei asko daukez liburu onetan, ta besterik ezin dabeenian Cura Jaunak, irakurten baditubez Elexan emen dagozan Irakaste edo Doktrinak, eukiko dabee poza ikusteko jente ez gitxi juakezala Konfesiño jeneralak egitera, agertuten ditubezala len lotsaz gordetan zitubezan pekatubak. Alan gure dakiola geure Jangoikuari, ezarriaz bere bedeinkazino eder bat nik eratsi dituden letrai.

( De la 2<sup>a</sup> edición -Bilbao, 1853 -- Ortografía puesta al uso de hoy)

He aquí a continuación algunos fragmentos del mismo libro:

Itauna: Eta badago pekatu, Konfesiñoeko Sakramentuban parkatu ezin Keitianik?

Frantzuna: Ez dago, biar dirian prestaerakaz konfeseten bedira; ta Erromera juan baga. Errijetako Konfesoriak aurkituko dabe moduba herejiako pekatuaban norbait jausi balitz bere, emoteko absoluzinua damu onaren señaliakaz konfeseten dirianai.

Ea dira, barriz, herejiako pekatubak atakotzat askok daukeezanak. Alan ez dau aurkituko pekatarijak escusa, edo atxakijarik, ez konfesetako zuzen ta argiro bere pekatu guztiak. !Ai balego arima benetan humilde ta konvertidu bat; ta zein erraz topauko leukan Zerurako bidia! Baña pekatu ezañakaz nastauta dagozanak; matasa bat eginda daukeenak euren konzienzia, biar dabe billatu Konfesore jakitun ta arimen gose andiko bat, bestelanguak baño bere kontu geijagogaz.

Eta, egija esateko, ¿zelan arimia geratuko da bakian Konfesore arin duanakaz, entzun ta entzun, igaro ta igaro dabiltsanakaz? ¿Zeinbat esankizun geldituko dira gero kezkia emongo dabeenak? Barriz, konfesore jakitun batek, ta guztiz Konfesiño jeneralak egin biar dirianian, itanduko dituz biar dirianak, aztertuko deu konzienzia guztia, ta itxiko dau konfesetara juakona batez txito andijan.

Gaisotuten garianian badagoz eskuor ta prest sei edo geiajo mediku, ;esaten dogu, betor edozein? Ez; gura dogu onena. Auzi bat daukanak billatu darua Letradurrik jakitunena. !O itsutasun kaltegarria! Arimako osasuna juakunian, edczein konfesore dala ona, ta biar bada billatuten dira pekatubaren kontra gorroto andirik ez daukeenak.

Itauna.- Zeintzuk dira dongaro esaminetan dirianak, pilluan ta ziaztasun baga mandamentubak iraguaz?

Frantzuna.- Dira, mandamentuben berba utsai begiratuten deutseenak, ta ez euretan sartuta dagozan ainbeste gauzari. Kontu daigun, lenengo mandamentuban aginduten deusku Jangoikuak emau daigula bera gauza guztiez ganian. Gatzik gura ez deutsalako, uste dau maite dabela Jangoikua, ta ez dauka zer akusu bere ustian. Emo geratuten da esamīña guztia. Baña, ¿ez leuke begiratu biar, maite dabent edo ez benetan bere Jangoikua?

(URRENGO ORRIA)

¿Egin ete dituban Fede, Esperanza, Amore edo caridadezko aktuak? Topauko dira asko, gogoratuten bere ez jakuena egitia: egin baditube zuaz akto amodiozkuak, ez dala izan biar legezko pekatuben damubaz, egon dirialako dempora luzian pekatu mortalian.

... Seintxu edo jente gaztiak txito erraz ta edertə ikasi darue berbeetia, dala erdera, dala euskera. Gaztelati badator euskalerrira lau edo bost urteko multiltxu bat laster eta geuk legez ikasiko dau euskeria, ta aztuko jako ikasi eban erderia, base-rri baten asten bada. Baña badator berrogei urteko gizon bat, biarko dau denpora luzia ikasteko, ta ikasten dabena bere, ez ondo; beti izango da ezaguna. Miñā egiten da molda gatxa.

Landaratzu gaztiak oker badatoz, zuzen errazak dira; baña arbola lurrian mardotu edo loditubak, ¿kok zuzendu, okertubak badagoz? Errekatxu bat igarotia erraz da, baña ez ujolak jagi badira. Zelan, bada, zuzendu konfesiñuak biar daben propositu sendora, urte osuetan pekatubetan ujolandiak jagi badira?

Bai, bai; pekatubaren ultze sartu barrija atera leite erraz, baña ez pekatubakaz mallukatu badozu, dino San Juan Krisostomok. Pekatu egin-barri bat konfesetan lotsatuten dira asko; ¿ baña zelangua izango ez da lotsiaren indarra, Konfesino donga asko egin badira bildurrez estalduta? ¿ Nok atera ultze ain malluktuba? Len asko zan pekatuba bera agertutia konfesoriari; baña gero esan biar dira pekatuba bera ta au agertu bagaz egin dirian konfesiño donga guztiak. Maldizino edo bōrao astunak asieran kendutia, etzan gauza orren gatxa; baña euretarra ekandu dirianak, ez dabee beste dotrinarik euren esturatusunean, ta urten daruakez aotik, zelan ez dakijela. Gauza ostuba lenenguan biurtutia ez zan orren gauza gatxa; baña etxekotu ta aragitu bada, ¿ nok atera untze ain gogortu ta sartuba? Alan beste bizijuctan; batez bere amore loi bat urratuteko. ¿ Zelan, luzatu bada, atera? ¿ Zelan bigundu alango bijotza amore gaizto-ti Jangoikuaren amore Ederrrera? Ez milagro andi baga

San Luis Beltran ebillela misiuak egiten, eldu jakon bein kenfesetara gizon bat ikaraz, ta izerdi otza erijola gorputzeti, equalako bera lango pekatari atsituba Santu andi baten oñetan. Igarri cutsan Santubak gizon ak eukan ikaria, ta asi jakon berba samur ta bigunakaz itanduten pekatubak. Esaten eutsanian pekatu ezain bat, erantzuten eutsanen santubak arpegi amorezko bategaz: "Aurrera; ederto espliketen zara."

Gizon gaisuak, bijotza zabaldurik, esaten eutsazan pekatu guztiak ziatz, ta esanago ta alegría San Luisen arpegija, pozezko malko gozuak erijo zala. Emon eutsan penitentzia uste eban baño askoz laburragua, zirautsala: "Neure semia, zure pekatuen penitentzia enparauba, geratuten da neure kontura; nik egingo dot zure ordez." Ito biar eban negarrez gizon ak bere pekatuen damuz, ta esan eutsan Santubari: "Aita, beste pekatu guztijak bere entzun deustaz biguntasunaz; entzun begit ementxe bertan etorri jatan juizijo dongia. Ikusi dodanian Berorren erruki ta biguntasuna, etorri jat burura ez dala izango Berori, dinuen baizen santuba; Berorrekin bere, noz edo noz, egin izango ditubala niriak legezko pekaturen batzuk bestelan, ¿ zelan artuko nenduban ainbeste amore, erruki ta biguntasunez? Zelan agiraka itoko ez nenduban? "

- " Ai, nire same bijotzekua! - zirautsan Santubak, gitxi gorabeerako berba onekaz -, mundube Jangoikoari eskerrak, ez dot orrelango gauzarik egin. Munduba ezagutu baño leenago deitu neduban Erreligionera, ta gorde nau Jaunak pekatu zantarretati. Baña, zer deritzazu? ¿ Zeruko Aingeru, ta ni baño garbijaguak, postutzen badira, Jesukristok dinuanaz, pekatari baten biurrera, edo konbersinuan, zelan ni postuko ez naz ikusi ezkerodamu ain ederraz konfesino jeneral, oso, ta estalgarri bagia egin dozula; ¿ Zelan batuko ez ditut zure negar malkuak eskiniteko Jangoikuari, zeñek atera dituzan zure bijotzeti? Arimako Mediku egin banau Jesu Kristok, ¿ zelan olgauko ez naz zu osaturik ikusita? ¿ Nun euki nci bazkari gozuagorik? O neure semia! Iraun egizu emen atzu dituzun gogo santubetan. Salbetan bagara zu ta ni, bijok kantsuko deutsaguz zeruban Jangoikuari alabantza ta eskerrak; zuk, itxaron deutsulako penitentzia egin artian; ta nik, bialdu zaitubalako nigana, Kristoren pasinoeko frutua zure ariman ira-asteiko."

Juan José MOGUEL.- ( 1781-1849)

Hijo de médico, hermano de Vicenta y sobrino del famoso Juan Antonio Moguel, fuc, como éste, Cura de Marquina-Jemein. Nos ha dejado 3 libros en dialecto vizcaíno: 1) " Baserritar nekezaleantzako cskolia"; 2) " Eguneroko len on eta erre-gubak..."; 3) " Mayatz illerako Berba- aldijak".

He aquí un ejemplo sacado del primer libro:

" Alargunduta laster osasun senduan eguala, ta ondo itunduta, egin eban aitak testamentuba. Eriotsako gaissua datorrenian, ziñuan, berak emongo dau lanik asko : ta nek dawia ser asti ta ezaguera izango dan? Lenaz zuritu gura ditut neure gauzak, bakarrik negiratuteko arimakuei ordu izugarri atan.

Egin eban barriro Konfesino jeneral bat, ta bizi zan alargunik garbienaren ojen-prubak emoten. Irurogeta lau urtekua artu eban kalentura zoli geldi geldi argaldubaz eroianak. Medikubak agindu eutsen ibillteko, ta neu izan oi ninduban lagun. Ez jakon arrezkero berba bat entzuten lurreko gauzeen gañian. Ay, neure seme maitia, esan oi eustan sarri, eta zein izugarrizkiz izan biar daben eriotziak, leonago azturik bizi izan daherentzat!..

Egun baten gíñoziazala arbola arteko kerizpe illun batetik, esan eustan: " Ezagutzen dot etxeko guztiek zabilzoela, osatuko nazalako ustia emon nairik; baña dirautsut, ez zaitezela alperrik nekatu orretan. Sentisten dot neure biotzian, adierazo ezin neijan poz bat mugdubari isteko. Errukarrijak dira, nundik eriotziagaz aaztuko diran oi dabiltsanak. Berak daukas Jaungoikua da gure betiko bizitza, zeñegan imini biar dogun poz gosxtja. Berak daukas neururik gure egunak, ta ez dira aldatuko berba labanakin. Adiskidetasun egijazkuak ez dau guzur ta engañurik. Alan, neuk ezagutu ez-paneu bere, gurako neban zubek argiro esatia, gaixo au zala azkeneengua."

Onetan eldu giñan baso artian eguna clcixa zaar, nozbait Parrokija izandakora, zñietan aurkitutenean ziran antxiñako difuntuben azur ta sepulturaren batzuk, ta esan eustan: " Ara, neure semia, nora oi nentorren, etxetik bakarrik urtetan ikusten nonduzun sarri eskontan. Eremu onetako ixiltasun ta ikusgarrijak aaztu eragiñik lurreko gauza, jasosten neban erraz neure biotza gauza goratubotera.

Aztertutenean hizkuntzan neure goguan Erlujinoe Santuko egija andiak, ta arritutenean nintzten gomuntaurik, zelan eurakaz aazturik bizi ziran gizonik geijonak, munduko erokirjakaz estruturrik.

Azur igarrak postutenean munduben, jakiñik gure antxiñako aasabeen biziera garbija, ta euren gañian irakurten neban: " Biztu ta gozatuko gara geure Egilla ta Jangoikugan."

Neure semia eldu zaitekez noizian bein eskola onetara, ta ondo pensaurik ikasiko edo zu biarren dozuna. Eai, munduko gauzeen ezerezkorija ta arimako ondasunen anditasuna.

Au da benetako jakiturija (ta arimako ondasunen anditasuna); bada, ikusten dozu emen zetaraten diran munduko anditasun, cdertasun ta aberastasun guztiak; eta izanik eriotzie ala ziurra zein da jaijotzia, zelan iminiko ez dozu zeure gogo guztija, inoz ez galdu ta ez amairik izango dabeen ondasun ta betiko bizitza?

El protagonista de esta obra ( Juan), modelo de padre cristiano, tiene indudablemente una grandeza imponente por su sencillez, pero tal vez le falta el aspecto risueño, optimista y magnífico del hijo de Dios que se sabe amado por su Padre y en consecuencia sabe mirar la vida con confianza y entusiasmo triunfal. El aspecto negativo y tétrico domina con mucho en el cristianismo de Juan. ( Villasante). Una muestra más de cierto espíritu jansenista característico de la religiosidad del Pueblo Vasco, a juicio de José de Arteche? ( Cfr. su obra " Saint Cyran ")... La caridad de Juan José lo llevaba a regalar sus sermones a los curas jóvenes para facilitarles la predicación...

FR. Pedro Antonio de AÑIBARRO, O.F.M. - (1748- 1830). De Villaro. Gran predicador, su constante viajar por diversos pueblos de Euskalerria le permitió conocer a fondo los diversos dialectos, aunque él escribe en el suyo de Vizcaya. Escritor didáctico, de exposición clara, con marcada tendencia a la profusión de sinónimos. Su devocionario "Esku liburua..." es la obra más conocida y más divulgada de Añibarro. Muchas de sus obras están aún inéditas...

De su obra "Kurutze Santearen, Aita Gure ta Ave Marien ganeko Erakusakdiak", extractamos lo siguiente:

Kurutzean josirik gure Jesus maitea iltzan, ta kristiñau biotz guztieten josirik egon bear leuke kurutze santeak. Beragaz Jeskristok erosi ginduzan, diño San Pau lok. Beragas idigi euskuzan zeruko ate itxi zarratuak. Beragaz baketu, bitartetu, bildu, alkartu, ta adiskidetu ginduzan bere Aite Jaungoiko aserratuaz. Beragaz adore baga deabrua itxi eban; bere arrotasuna azpiratu, umildu, beeratu, ta goiartu eban; bere eskubide, agintaritza, al ta jabetazuna katigatu, lotu ta estu eban. Beragaz zoriondu, aberaztu ta doatsutu zituan Adanen seme zotingaldu errukigarriak. Beragaz pekatuaren illunpe, kate ta oxin ondagarritik atera ginduzan; ta len bere arerioak giñianok seme tu, laztandu ta maitetu ginduzan...

Ziñatutean, lenengo kurutzea bekokian egiten dogu, Jaungoikuak librau gaizan pentamentu deungeterik gogoraziño txarretarik, begitane izugarrietaik, gomute, uste, asmo ta asmu gaitzo ziteletarik. Eta alan, ¿ aldi txarrak dozuz? ¿ Gogoratu ta burutatuten jatzuz pentzamentu loiak, gogoraziño gaitzoak, besteai gatz egiteko ustea, ondamua, ikusieziña, gorrota, arrotasuna, baneria, ondo eretxi-naia, ta andigurak? Ziñatu zaite bekokian, ta burutaldi ta gogarte zitel guztiok zeuganik alde egin, bota ta igeska urrinduko dozuz erraz ta eraz, diño San Agustin erakusle andi argiak.

Bigarren kurutzea egiten dozu aoan, Jaungoikuak librau gaizan berba loi, esate zorrotz aztun, esaka iraindu sentigarrietaik, aozko utsegite, birao, añen, juramentu, madarikaziño, berba egikune gaitzo, barriketa, esamesa, errierta, ta izkuntza suminduetarik. Zeure berbak ezeze, besteenak bere kendu ziñeiz kurutze santeaz, diño San Juan Krisostomok. Irugarren kurutzea egiten dogu bularrean, zeñetan daukan jarlekua biotzak, ta Jesu kristök dirauskun legez, biotzean gurari okerrak ernetan dira, non gura txarrak sortuten ta biotzetik egite gaitzo oker guztiak jaiotzta urteten da be. ¿ Gura dozuz zuzendu zeure lan, bear, agite ta zeregiñak guztiak? Bada ziñatu zai te bularrean deboziño bizi benetakoaz; ondo jakinik, kurutzea baño zuzengille oberik tøpauko eztozula, diño San Jerónimo jakitun andiak...

MARIA Mariaren izen santu beneragarria era askotara azaldutzen dabe Guraso Santuak. Mariak esan gura dau "Andrea" edo "Señoreal", alan dalako mundu guztikoa. Esan gura dau "Itxasoko izarra", bere izartargiak zuzenduten ditualako munduko itxaso one tan dabilzeenak: argituten ditualako gure adimentuak, eta kendu gure odoi illun itsalak. "Mariak" esan gura dau, "mare amarum", itxaso gatzitu, garrazt, miña, bere sa belean bere seme Jesukristok artu ebalako gure aragi sentikorra, argala ta ilkorra: ta bere semearen Pasiño ta eriotzan edan ta iruntsiko zitualako neke, pena, larritasun, garraztasun ta min biziak. Baita deritzò itxaso, bada itxasoko ur tantak ezin zeinbatu ta neurtu litekezen legez, alan ezin mugatu ditekez Ama Birjiñan iñoroten direan graziak. Mariak, San Geronomoren ustez, esan gura dau "illuminatrix", argi emollea, argitara emon euskulako argia bera, ta San Juanek diñoan legez, mundura datozan gizon guztiak argituten dituan argi argitsua... Maria Santisimak Santa Brigidiari esan eutsan, bere izena izentau ta aitatutenean dogunean, Angeruak poztutenean direala; Santuak gozotu; Purgatorioko arimark atsegindu; deabruak biñdurtu, izutu, mirutu, indarbagetu. Idiota jakitunak diño, Jaungoikoak Maria Santisimiari ifini eutsan izena dala, Jesusen izenaren urrengo dagoan andiena ta beneragarriena ta zerutar guztiak burua makurtutenean...

Fr. Pedro Antonio de AÑIBARRO, o.f.m.-

"GEROKO GERO, edo Geroko luzamenduetan ibil-teak, eta Arimaren egitekoak geroko itxiteak zembat kalte daskartzan": Eskritura Santutik, Elexako Dotore-etalik, eta libru deboziñozkoetatik D. Pedro Axular Sarako Erreto-reak bildua, eta argitara emona... Aldatu dau Bizkaiko euskerara, garbiturik lenago zi-tuan uts, eta errakuntzetatik, A. Fr. Pedro Antonio Añibarrok Zarauzko Colegio Aita Sn. Franziskoren Ordeaneko Misionariak.

"Bekataria, biurtu zaite zembat lasterren Jangoikorogana, ta ez luzetu penitencia gerotik gerora" (Eccli., cap. 3 v. 8)

IRAKURIBARI: Irakurle Biskaitarra, Oná emen zeure eskuetan, ta zeure euskeran AXULARREN libru famaduna. Euskaldunen Ciceronen izenaz izentzurik eta aittaturik ibilli da beti AXULAR; bada Aita Larramendi euskaldun guztien Maixuak diñolez "bore euskerea da ederra, nastubagea, uts-garbia, ta ugaria: baieztu, ta erakusten ditu egiak Eskritura, Elexako Aita Santu, gertaldi, antz-irudintza adigarri argiakaz: agertutene ditu bekatuak biziro ta argiro euren ezaintasun itsutsi baltz guztiaz. Beragaitik, diño, euskaldun guztien eskuetan ibilli bear leukela libru onek".

Au onela izan arren, euki ditu libru onek non edo an lengo demporétan bere ekftrak, bere zérak: onetarako bidea emon eban, bear etzirian Persona errespeta-garriak oton artzeak, euren utsak agertzeak, eta beste makiña bat gauza, ixillik igaro, estaldu, ta gorde bear zirianak, zabaltzeak. Dirianak albaitenez garbitu dira oraingo onetan; batezbere, ogeta-amaka-garren Kapitulutik berrogeta laugrrrena giño, laburtu dira gauza batzuk; beste batzuk kendu, eta beste asko erausi ta geiagotu, uste izanik konvniko ez jakela era guztizko personal; ta bere irakurtzetik on baño, kalte geiago etorriko lekikelako gazte askori, len legez geldituko balira.

Liburu onetan aitatzen dirian Eskritura Santa, ta Doktoreen esanak, eztira betibere verbatik verbara euskerara biurtu, ixuli ta aldatu; zerren euskereak eta beste verba-kuntzak euren esaera ta verbaegikune beanak, bakarrak, ta berezkoak dituez...

Euskeran egin dot alegiña, Bizkaikoari jarraitzeko; baña zelan Colegio onetakoak ain laster gabiltzan Bizkayan, zein Gipuzkoan, Areban, ta Nafarroko verba egikund ta itzkuntzetan. utsen batzuk idoroko dozuz, ta orduan ito egizuz ixillik; ta irunsi epe-tasunaz zeure artean, oñon baga.

Beinik bein irakurri egizu gogo onaz; ta beronegan arkituko dozuz zia eragin-gilleak, argi argitsuak, akullu zorrotzak, ta egia indartsuak, biztu, mugitu, atera, ta irazartuteko zure Arimea, baldin zeure adu ta zorigatxez bazatzaz lozorroak arturik, ta gogorturik bekatzko egotaldi arrigarrian. Onetarako eskatu egiozu Jangoiko gauza on guztien iturri ta emolleari bere argia, bere eskua, ta bere grazia; ta bide batez, eskatu ta erregutu egiozu arren biokaitik: ta onembestegaz: AGUR.

Librutexo au atera zan, ez bakarrik Arimén onerako, baita apaindu, azi, gordo-eragin-edertu, ta zabaltzeko euskerea; ta laguntzeko Euskaldun Ikasle barriai (...).

(R.I.E.V., 14, 1923, 297-299).

Lenengo Burua: Zelan bestea beste diriala, alperkeriatik iges egitxa gaitik bere, bear egin bear dan...

4. &.

Ain da gauza galdua ta galgarria alperkeria, eze naturaleza beraren bere kontra da. "Gizona jaiotzen da lan bearra egiteko, ta egaztia egaz egiteko", diño Job santuak. Egaztiari emoten jakazan legez egoak axetuteko, egaz egiteko; alan gizonari eskúak bear egiteko.

Munduko gauza guztiak kondenetan dabe alperra; zerren ák ez beste guztiak emoten dabe demporea artan zetarako egiñak zirian. Eguzkiak errazoiaz esan leio berandu giño oean datzanari: zerk aratza or alper nagi lotia? Nik atzo hik baño bide geiago igaro

(Uurrengo orrira)

ninoazan; jira bira inguratu ñoan mundu guztia; ta orain bere hi bañio lenago ta go-xago jagiñok. Aretx-Arbolak bere esan leioke alperrari: eztakusk zelen ez gagozan beimbere geldirik ez alperrik? Zelan azten, anditzen, loratzen, eta geure demporótan frutu elduz betetzen garean? Hik zer egiten dok? Zertan demporeoa emoten dok? Zeri begira ago alper andi nagiori?

Bada abere ta animalia adimenturik eztabenak bere, beintzat erleak eta iñurriak errazoiaz esango deuskue, bear daigula, euren nekeak, lanak, joan-etorriak gogoratu daiguzela, ta alakoz, lotsaturik bida bere, geure egin bidearen egitera, ta lan bearrerata irazarri, prestatu, ta abiatuko gara.

Erreak, ain gauza pildin txikiak izanik, betotzen dabe mundua, eztiz gozotzeko, ta argizegiz argitzeko. Eta ezta erraz kontatzea, zelan goberneten dirian erleak euren artean: zelan dauken euren erregea, ta obedituten dabentz; zelan zárrak erlautseen barruan, etxeko lanak egiten, egoten dirian; ta gazteak kampoan euren janari, mantenu ta igaropiden billa dabiltzan; nola daben eure ate-zaiña, eta bearbere bai; zegaitik ze, eztia, nola dan zalegarria, ta izena daben legez, esti-gozoa, askoen gogokoa, gurarikoa, ta gustukoa da. Nola bear egiten dabentz, lanik egiten eztaben arle alporrak eta nagiak esten kolpez, zikadaz, ta izpi zorrotzakaz botatzen dituezan euren laguntzatik. Eta zelan beste gauza asko egiten dituezan: eta guztiak ain ordenanza, zurtasun, ta gobernu andiaz, ze dirudi, ez dala Erregerik bere erreinua ain ondo gobernatzan dabentz, nola erleak, euren erregeaz batera bear egiñaz, gobernatzan dabentz.

Bada iñurriaren gobernuaz, zurtasunaz, lanbearraz, etorkizunerako egiten dabentz probisñoaz, beardituen janariaz, bildu ta billatuten dabentz mantenuaz, nok zer esango dau? Nork eztau miretsiko, ta gogoeta egingo? Espiritu santuak berak biraldutentz gaitu animalia txiki onegana, zer egin bear dogun ikastera, diñola: " Zoaz, nagia, iñurria gana, eta gogoratu egizuz aren bideak eta bideskak, joan-etorriak, inguruak, or-emen ibilteak, nekéakn ta bearraz, ta ikasiko dozu zuk bere, zelan bear dozun surrerakoan ta beti bizi, ibilli, ta gobernatzu: onek irakaslerik ta bide-aurrekorik baga, berak bere buruz bildutenz dau udan, negua igaroteko bear dabentz mantenua, janaria, ta garaua ". Eta garau au gerdeten dau lurraren barruan, berak eginiko toki, gordo-leku, ta garau-tegietan. Eta ain da zur eta begiratua, eze kampoan ezer ezin izanez, bere bil-duetara bildu bear dabenean, asten da jaten lenik garatu, zildu ta erne bear dabentz garautik; zerren bestela sortu ta azi liteke a garaua, buztandu liteke, bedar biurtu liteke: eta gero andik ará, lan uts alperra jazo ta gerta lekikio bere lenagoko zurtasun guztia.

Aregeiago, garatuak jan ezkero, lurraren bustitasun ta ezetasunak ganekoak usteldu eztagiozan, ateretan dituz nosik bein kampora, axetu ta eguzkitutera: ta orduan egualdi ta demporeoa onaren señalea dateko. Eta onela ta alan igarotenz dau iñurriak bero negu luzea: eta erakusten deutso bakotxari, zelan ta ze moldez bear dabentz, gobernatzu, ta alperkeria guztiak largarik, bere demporen bear egin.

( R.I.F.V., 14, 1923, 308-310 )

2. Burua.-- " Zembat kalte egiten dituzan alperkeriak; eta zelan emendik datorren, gerotik gerora ibiltea".

1. &c.

Eskritura Santuak, Elexako Doktoréak, lenagoko Gentil fede bagekoak, eta aregeiago zeruko, axetako, ta lurreko gauza guztiak bere kondenetan dabe, lotsatuten dabe alperrik: eta adierazotzen deutsé, bear egin bear dala, ta bakotxa bere aldetik bere egiztak egitera saiatu, dendatu ta zaletu. Zerren zelan ardurazko zoregin ta bear batok, lan guztiak aurreratuten dituzan, alan alperkeria atzeratuten dituz.

Itanduten dau San Juan Chrisostomok: " Ze zaldi da on edo obea, geldirik eta alperrik bere gustura dagoana, ala ibilli ta maneatzan dana? Zein ontzi, kostan dagoana

( Jarraitze)



...ala itxasoan dabilena? Zein ur, geldia ala darioa? Zein burdiña, atartean datzana, ala erabilten dana? Jakiña da, guztiak erabilteaz, mancatuaz, eskuz ekarriaz, ta mugituaz onduten, argitzen, ta fintzen diriala; eta bai alper ta geldi egoteaz bere galdu, prestueztu, ta ugertutene diriala. Bada auxe berberau jazoten da, alperrik, geldirik, eta ezer ogin baga demporea emoten dabenaz.

Dabillan arriari, ez jako goroldirik eransiten. Ur irakíñian ezta eulirik geratuen. Ardurako soñekoari ez jako sitsik egiten. Aretx-árbola frutuduna eztau iñok obagiten. Baña alperra, soilla, utsa, arro-eroa, iños eldutene eztana, frutu bagea zertarako da? Alangoak zetako beteko dau lurra? (...)

Otsein servitzari batek alperrik egoteaz beraz, gaistakeririk ez egin agaitik berc, merezi dau kastigua. Bada San Chrisostomok diñoan legez: " onik ez egitea, bera da deungero egitea". Eta Catonen esana da: ezerbere ez egiteaz, ikasten dela deungero egiten. Alpertasuna da gaistakeria guztien iturburua; eta San Bernardok diñon legez da: "asarretasun, errierta, ta zorigatz guztien ama, ta vertutén ugaz-ama".

Eta alan asarreak, erakeriak, ta vizio mueta guztiak doaz laster alpertasunera, zerrren ama dabentz: baña vertuteak, eta obra onak: iges, urrindutene jakaz; zerrren nola daben ugazama, bakie, eztituezala ondo artuko, bigirakune okerra, bekoki illuna, ta arpegi txarra erakutsiko deutsela. ( IBIDEM, pág. 310-311)

-- &&&&&&&&&&& --.

D. BARTOLOMÉ OLAECHEA: fue párroco de Laucáriz y en 1775 publicó su "Cristinauben Dotrinia" que fue reeditado varias veces: "además del catolicismo propiamente dicho, trae oraciones, ejercicios diarios, etc.; echo mano de muchísimos vocablos castellanos que, al parecer, sonaban entonces como más selectos y distinguídos. He aquí una breve muestra de su lenguaje:

Ama Virgiñari Afectuak: Virgina Marija, geure Jangoiko Salvadore, eta Amore ederra-en Ama maitia! Zu zara pekateri triste guztijen miserikordiazko Ama. Krutziaen oñian zeure Semeari begira, dolorez beterik, zengozanian, berak pekatarijen Ama egin zenduzan. O ze konsuelo, eta ze ditxa pare bakua guretzat: zu langa Ama Zeruban eukitia! Zu zara guretzat Zeruko Atia, eta zugana datozanentzat beti idigia.

Egija da, neure arimia pekatuz loiturik ikusi ta lotsaz ta damuz beterik zeure begijetara aldutene nazana. Baña Erregiña andi, eta Señora ona, neure esperanza, eta uste seguruba zeugan daukat. Zeure martuben azpira, zeure amparura nator, neure arremedijuerbillat ... ( pp. 216-217)

Grazija: - Geu geurez, beste baga salba geñtekez? - Ezta posible, Grazija haga.  
- Grazija zer dá? - Jangoikoaren doe, edo izate Jangoikozko bat, egiten dabena gizonaren Jangoikoaren seme, eta Zeruko erederu.  
- Zegaz alkanzaúko dogu Grazija? - Oraziñoia, obra onakaz, kontriziñoia, eta Sakramentuagaz...  
- Grazija emoten deuskunian, ze Virtute Jangoikuak emoten deusku? - Iru virtute teologalak: Fedia, Esperanzia, eta Karidadia: Bai, lau Kardinalak bere: Prudenzijs, Justizija, Fortalezija, eta Templanzija: Baita Humildadis, ta Kastidadia bero.  
- Bienaventuranzak seimbat dirá? - Zorzi: Lelengua, zorijonekuak espirituz pobre dirianak, zegaitik ze aena dan Zeruko erreñuba. Bigarrena, zorijonekuak mansuak, zegaitik ze izango dirian lurraen jabeak. Irugarrena, zor. negar egiten dabentz, z.z. eurak izango dirian poztubak. Laugarrena, zor. gose eta egarri dirianak, z.z. izango dirian asiak. Bostgarrena, zor. errukiorrak, z.z. aurkituko dabentz miserikordija. Seigarrena, zor. biotz garbikuak, z.z. oñek Jangoikuak ikusiko dabentz. Zazpigarrena, zor. baketsua bak, z.z. oñek Jangoikuaren Seme izentauko dirian. Zorzigarrena, zorijonekuak Justizijagaiti persekuziñoia darraanak, zegaitik ze eurenak izango dan Zeruko erreñuba.

( de la 5<sup>a</sup> edic., Bilbao, 1814, pp. 30-32)

-- &&&&&&&&&&& --.

A. FR. BARTOLOME de Santa Teresa, C.D.- ( 1768-1835 )

De San Andrés de Echevarria; predicador carmelita, nos ha dejado 2 obras en euskera: 1) Ikasikizunak ( 3 tomos, sobre mandamientos y sacramentos ), 2) "Euskal Errijetako olegeeta ta dantzeen neurrrizko gatz-ospinduba", sobre el problema moral de las danzas vascas... Su lenguaje es rico, extraordinariamente abundante, hasta Opulento (Villasante). Su estilo destaca por la naturalidad y soltura... "Orixé" le llama "... batez be nire idazle zar kutun..."

Sermoia gurasuen ta umean onerako:

" Egija esateko, neure kristinabak, ; zer egon leiteke munduan penagarrijago-rik edo minberagorik bijotz batentzat, iru edo lau seme alaba edo geijago nekez azi dituban guraso zaar, kansau, ezertako ez bat areen esker txarrian ta lotsa gaistuan ikustia baino?

Ya edadian jausita, zaartuta, kansuta, sepultura bidian daguan gurasue; izerdi askogaz ta nekez azi dituban sabeleko prutubak, bere semiak edo alabask gaizki tratetia, da, duda basgarik, pena andijetati ez txikijena.

Ume batak kasurik egiten ez deutsala; bestiak lotsia ta errespetua galduen deutsala; bestiak begiratute on bat egiten ez deutsala; bestia agur bat egitera, inoz agertuten ez jakola; bestiak berba bat esan orduko, erremuskadiagaz atzera sartuten deutsala; bestiak, gurasuak jaaten baden kopaubari asko deritxola; bestiak, ezetan bere obeidu gura ez deutsala; bestiak, auzijk eta naibagaak etxera ekarten deutsaza-la; beste semia edo alabia Justiziak karzelaan daukala; diñot, neure kristinabak: menturaz ez daguala luurraren gainian guraso batentzat pena garratzagorik, atsekaba mingotxagorik, naibage minaagorik ta bizi izateko gogaitgerrijagorik, bere nekez azi dituban umiak modu onetan zaartzan berari erantzutia baino.

Guraso batek ernegeetako, arimati negar egiteko, bijotza erdi bi egiteko, buruba amaituteko, ta zerubari erijotzia eskatutoko pehia da au. Umiak azi ditut, dino alako guraso triste(batek) errukarrijak. Ta eurak dira neure zaartzako penarik andijena. Umiak azi ditut, neure zaartzako pozgarritzat. Ta nire poza biurtu da neure bijotzeko mingotxtasun nauasi izatera.

Umiak azi ditut, nekez ta penaz, neure despeidecengo eguneen arrimugarritzat. Ta aurak dira, egunian egunian ta orduban orduban, bizitziagaz desesperau eragiten deusteenak. Eurak dira, ni baztartuta, sobrauta naukeenak.

Ez dauka guraso penaubak luraren gainian nora begiratu, bere umeetati atsekabia ta penia artu bagarik. Ez da gauza barrija, guraso sobrabak, tertziyo atan bere buruba ikusita, egunian milla bideo ta maldizinoe umiai ezartia. Bada egunero dauka ume bataganik albista txaarra, bestiaganik injuriya, bestiaganik gosia, ta guztietati illgarrija ta mingarrija.

Ez da gauza barrija, guraso askok eureen seme alabeen lotsa gaistua ta esker txaarra ikusita, areek eskura ta errazoera ekartiacaz desesperauta, eureen burubai puriaz illtia opa izatia ( beste munduan zer ikusirik ez balego legez ).

Ez da gruza barrija, ta ez da gitxitan jazo oi dana bere, guraso asko, urte geijagotan bitzikoi litzaatekezanak, seme alaba deungaak diriala medijo, leenago illtia, ta eurak esan oi dabeen legez, munduko bakia egitin.

! Oh, seme alaba gaistuak, ta lotsa galdukuak daukeezan guraso errukarrijak! !Oh, triste desditxaubak! ! Oh, ze zaartzea penagarrija ta garratza dan zubeone! ; Nor errukitutenez da, nori bijotza susten ez jako berekauten, edadian jausitako Aita bat, edo Ama bat oian, edo makal, edo ibili ezin dala, edo bere gorputz zaarra ozta jasten dabela, ikusita, bero umiak edo naibagez edo errazoe txarrez, edo gosez, sobrata, ill ezinda, illten daukeela entzun ezkero?

... ! Oh, ze egite santuba, alako guraso tristeen bijotzat konsoleetia! ! Oh, ze keredadia, pozgarri on bat areentzat topeetia! ; Bainaz elan erremodijen logi onako gatz andija? ; Zer egin legijec, negar ta uste on gustia galdu baino beste gauzarik? ; Nola begiratu legijee guraso edadekuak, euroen bijotz tristiek nesaituteko ta konsoleetako? Umiak andijago dira ta sendo dagoz; gurasuak zaar, makal ta bigun. Umin eskugetan dagoz etxeko gauza guztiak. Gurasuak, curak egiten deutseenaren zain dagoz. Gurasuak ondo esaten badeutsco, ume lotsagaldukuak gaiski erantzuten deutsee. Jotera egiten badcutsa umiari, umiak egiten doutsa gurasuari atzera, edo omoten doutsa saku bat. Zerbait altuago edo gogorrako osaten badeutsa gurasuak, " beti barriketan jar-dun bagarik, isilik egon dedilla", crantzuten doutsa umiak. Jaungoikua gaiti Eleisara juan dedilla, esaten badeutsa gurasuak; " bai, zeu bere Eleisa zelia izan zara te", esanda burla egiten deutsa umiak. Kura jaunaren aurrera eruanda, lotsia emon gura izan arren umiari; lehen bere izanda dago, ta ezdcutsa ardura. Txaarrago. Alkate aurrera eruanda, ogun batzuetan karzelan eukitia, beste ainbeste. Txaarrago. Gurasuen lotsia galdu daukanak, Kura jauneara ta Justiziarona bere galdu dauka. ; Zer egingo dau bida, edo nola begiratuko dau alako guraso errukarrijak? (...)

! Oh, Guraso zaarrak! !Oh, seme alaba gaistuak däukazuzan errukarrijak! Ez kendu inos ispilu onetati zeubeen begijak. Euki beti goguan: ¿ ija zeubeen umiai zer esan deutseezun? ¿ Zer erakutsi deutseezun? ¿ Zer agindu deutseezun? ¿ Zer parkatu deutseezun? ¿Zer entzun deutzubeen? ¿ Zer ikusi deutzubeen? Ez bïen bakarrik, ez egun baten, ez urte betian, ezbada eureen dempora guztian. Amaren bularrari tiraka egozaneti, zeubek baino andijago ta senduago egin artian. Eureen burubeeen jaube izatora eldu artian. Ogei, edo ogeta bi urtera artian... .

Esan daikegu: Zeubek dinozun moduko ume gaistuak eukitia, zeubeen erruba dala. Zeubek galdu dituzula zeubeen umiak.

; Ze erremedijo bada orain?... ; Zer egin daikezu zeubeen ume deungaakin guraso zaar tristia? Zeubeek baino senduago dira. Karze/laan egun batzubetan egon arren, ardura ezdeutsee. Kompesoriak asolvidu ez arren, ardura ezdeutsee. Sermoetara juaten badira descuiduan, sermoiari ta sermoeginari burla egiten deutsee. ; Zer egingo dabee bada guraso zaar errukarrijak?

Ez dago, kristinaubak, nik dakidanez, erremedijo bat baino. ¿ Zer bada? ISILIK EGON, TA PADEZIDU. Seme alabak deungaro azi dituzulako, guztia ta geijago zeubek mezridu dituzula, sinistu, ta ISILIK EGON, TA PADEZIDU. Seme, edo alaba gaistuak bidao bat egiten badeutsu: ISILIK EGON, TA PADEZIDU. Sorgina, edo barritsua esaten badeutsu: ISILIK EGON, TA PADEZIDU. Burla edo sinu egiten badeutsu: ISILIK EGON, TA PADEZIDU. Zeure gaztetako paltaak, ta lotsaarijak arpegijan esaten badeutsuz: ISILIK EGON TA PADEZIDU. Purijaz sakatu bat, edo botakada bat emoten badeutsu: ISILIK EGON TA PADEZIDU. Pian makal zagozan lekura, arto puska bat nekez gogo bagarik jaurtegiten badeutsu: ISILIK... Verba gogorrak, eta errazoe zitalak, ta minberaak bekoli illunagaz, ta asarriagaz esaten badeutsuz orduban orduban, edo belaarri ondoko bat eskintzen badeutsu: ISILIK... Eureen moduko lagun gaiski azitakoz etxie beteta, gau guztian zeureurrean milla desonestidade ta pekatu egiten baditubee: ISILIK EGON TA PADEZIDU.

Zeure semiak, edo alabiak, eskondu baino leenago, seinak azteko etxera ekarten badutsuz, edo kampuan zeure patrikarati azi bier badituzu: ISILIK EGON, TA IRAGO.

Gauza bi dira, gurasuak umiari ondo goguan sartu biar deutsazanak. Bata: maite da-bela. Bestia: gauza gatzik parkatuko ezdeutsala...»

Este hermoso sermón, cuyas ideas principales se han extractado, aparece como Apéndice en su gran obra: "Jaungoikoaren amar Agindubeetako lelengo bostean IKASIKIZUNAK", I, Iruñean, 1815, pp. 1-... 29.

A. PRAI BARTOLOMÉ SANTA TERESA, O.C.D.— ¿Cuál era su criterio sobre el Euskera? Hizo aquí expuesto en el prólogo de su obra "IKASIKIZUNAK":

IRAKURRIARI: Ikusirik, Irakurlia, zariana zariala, ezdaukazula zeure Euskeeran, Pulpituan esateko, zer irakurrik, entero gitxi baino, gogoratu jatan, kristinaubaren ERAKUTSIKO leu zatijak pulpitoti esateko, edo predikketako Ikerasikizunetan imini biar nitubala. Adiskide askok aurretu nabee, saiek oni ekitera. Esaten eben txito asmo ona zala. Ta onera jakinekua Euskal Errijetako Cura Jaun, ta Eleisa gizonentzat.

Neuk bere (sinistu daikezu, Irakurlie, baderitzazu) ondo meritxon egitiari, alizan ezkero. Baino, zeimbat geijago asmaubago sail onetan, aimbat gatxago, ta aldatsago begitanduten jatan. Kristandadeko Frakutsijaren lau zatijak, pulpitoi esateko, edo prediketako duinaan, tertzijo baten, Ikasikizuneetan, edo platiikeetan, edo Sermoetan imintia, egijja esateko; ene alizatia baino lan andijagua da. Eurak zerbaiz alkarrri iraatsi arren, argitara ataratiak, zer egin dauka. Asko kastau biar da. Ta menturaz gitxi, edo bat bere ez saldu. Ikasikizunak eurak alan elanguak. Ez, urrineti bere, biar leukeenak. Euskeeran liburu egitia, markeetia, edo ondo letratutia, asko kostata bere, sarri uts egin. Salduteko merkatari gitxi. Euskal Errrijak Kampo laburrak. Buskeria ezdakit zelakua. Ta liburu bakotxa popuertza goria. Aldats oneek guztioek era batera dator neure burura, neure asmuaren sailari jarraituteko... (VI)

Verbeetia imini dot neure errikua; dakidana. Euskeerako guztietati apaindubeena, ederrena, ta eztitsubeañezan ez arren; izan leiteke, Euskaldunen baztar bateti bestera, etxe guztietan dei eginda, iragota, zer nai daben, onduen zaafai, ta gaztiai aituko deutseena, ta adierazoko deutseena. Alan uste dot. Ta jazo jat Nopavruan, Kiputzetan, ta Vizkaijan eldu nasan lekubeetan.

Esan batzuk imini ditut gogo bagarik, geure Euskerazko verbeeta nausi, maite, zaar, gaztetu, gozo, prestu, ugarida geure erruz, erbesteti etorrijak. Euskeria berez aberatsa da, bagenki ondo. Geuk Eleisa giz̄inok verba askotan naastau, ta ezaindu dogu Euskeria. Geuri entzunda, dakijeez baseerrijetakuak " Juangoiko Omnipotentia... Poderosa..., Virginia Clementisimia... Misericordijosia... Mandamentubak... Absoluzinoia... Doloria... Errestituzincia..." Ta beste onako verba euskalgaistoko asko.

Erdera ezdakijeen euskaldunak, eureen etxeetan, ta artu emoneetan biar dabeen guztia, esaten dabee euskeera garbijan. Kristinatzako ikasijan dira euskaldun geistuak. Ezda au euskeeriaren erruba, ezbada geuria. Ta, ain daukeez ija artubak erdeera, edo latin verba batzuk eze, eurakin ezbada, aituten ezdabee ondo dotrinia, edo kristinatzako erakutsija. Onen bildurra arren, imini ditut erbeste verba batzuk ikasikizunetan

Bada kristinautzako erakutsijan zuzen sicuten emotia, leonago da, verbeetan erakus-tia baino. Aleginaz, ta deritxadanetz, gitxitu ditut asko. Ta geijago gitxitu gura nituke, asmau dodan saila amaitu zorduko. Oituko bagina geu, Eleisa-gizonok, Larramendi, Cardaveraz, Mendiburu, Moguel, ta beste Euskaldun garbijak irakurtera, (...) arin er-bestetuko litzaatekez, geure euskeera maitia ta aberatsa ezaindu, ta lotsatuten daboekurrin-errijetako verba banaak. Astarloa bat, Ervas bat, Erro bat, ta beste jakitun asko jagi ezbalira geure euskeera jausija irakoitera, uste dot, geuk galduko geuntsala laster bere ontasun, ta edertasun gustia.

Egija da, Jesukristo geure Jaunagan sinistutia, ta ari darraikon guztia, dan legoz txito barrija Euskeriagazko; geure kristinsautzako grauza barri askoren izenak bere barrijak dira. Ta areetati ez gitxi Kristandadiagaz beragaz Urrin-errijeetati istorrijak Onetariko ija izen artubak: "bautismua... Kompirmazioa... Penitentzia...", geure Euskera garbira aldatutia, ondo litzaatekian, edo ez, Jakitunak esango dabee. Ezda ain biar gatxa, euskeera garbiko ikaznetan imintia... ( VIII-X )

FR. José Antonio de URIARTE, C.F.M.: (1812-1869). De Arrigorriaga. Colaborador del Príncipe Bonaparte, a petición de éste tradujo toda la Biblia y mantuvo con él una larga correspondencia epistolar muy interesante... Cultivó, además del vizcaino, otros dialectos. La mayor parte de su extensa obra está inédita: así, su Biblia (en guipuzcoano), de la que sólo se publicaron los 3 primeros libros del A.T.

Ofrecemos un trozo de su divulgada obra "Marijaren Illa edo Maijatzeko Illa":

Ume Jesus'en gomutia.- Begira ondo zein ezeuki ta pobria aurkituten dan ume Jaungoiko au. ¿Zeren premiña dauka? Gauza guztijena. Ez dauka oerik; eta alan etzan biar dau lasto batzuen gañian. Ez dauka zek berotu, eta orregaitik abere bik eureen arnasiagaz berotutene dabee. Ez dauka zer jantzi; eta Josek estaldu biar dau bere jakiaz "txartesagaz balentziniagaz". ! Jesus ain premiñaz beterik, eta ni ondasunen illa, ain gar andijagaz!

Begira bere nekeetara! ! Ze gorputztxu samurra! Zelako otza eukiko ez ete eban neguaren bijotzian! ! Zenbat naibage ez ete zituzan igaro biarko lastotsa atan, bere guraso ta Aasaben etxeetan iñok artu gura ez ebala! Eta alanbere, ez dau murtik atezaten, ez jako "ay" bat entzuten, ez zotin bat ikusten. ! Jesus ain penaz betia, ta ni ain atsegina eta eregu zalia!...

Erdu, Kristinaua, Jesusen kumara, juzgaua izateko: begiratu egijo zu: eskape utsarek, lasto areek kondenetan ditue zure etxe eder, bitxi te apainduri jaak.

EJEMPIUA.- Zazpi urteko neskatillatxu batek, entzunik zein eder ta sotilla dan Jesus Mariagandik sortu ta jaijotako umia, eukazan gurari guztiz bizi batzuk bere ikusteko. Eta umeen zintzotasunagaz, eskatutene eutsan Marijari egijola mezedo, bein bakierrak erakustia: baña andija zan legez eskabidia, ez zan izan ain laster entzuna. Zazpi urtian jarraitu eutsan eskabide au egitiari, biztutene ebala geruago ta geijago Jesusen amodijuia, zeñek eutsan zauriturik bijotza.

Amodiozko zauriak ez dira egiten, "San Juan de la Cruz-ek ziñuan legez, ezpada maite dana aurrian daguanian: joten eban neskatillatxu onek Marijaren atia, bere bittartea ikusteko Jesus, bere animiak ain maite ta gura ebana.

Gabon gau bat izan zan beretzat ondo dontsu te zorijonekuak: bada gurari oneetan ixioturik eguala Eleixan erregeru edo oraziñoian, ikusi eban Marija bere ume Jesus besartian ebala, ta entzun eban zelan zirautsan: "Eutsi, ene alabia, ta gozatu zaite beragaz." Arrtu eban neskatilliak, eta besartian eukala, itandu eutsan ume Jesusek, maite beban. Erantzun eutsan: "Bai, asko maite zaitut." - "¿ Zenbat?", esan eutsan Jesusek. - "Neu baño geijago", erantzun eutsan neskatilliak. - "¿ Egijaz maite nozu?", esan eban ostera ume Jesusek. - "Maite zaitudaz neure arimia baño geijago".

Barriro erantzun eutsan Jesusek: "¿ Zenbat maite nozu?". Orduan erantzun eutsan neskatilliak: "Nik ez dakit zer esan deikezudan: berba egin dagijala nire bijotzak."

Ainbeste amodijoren goritasunak kiskaldutene eban, ta ezin bizi zatekian gruza ain zorionekuak ikusi ezkero, ta alan edegirik bere bularra, imiñi eban bore arimia Marijaren eskuetan, eta Aingeruen kanta eder ta soñu gozatsuen artian, bere semia lagun ebala, eruan eban zerura.

( Bilbao, 1868, pp. 90-93).- Al final trae también un pequeño vocabulario, con el significado de palabras empleadas por él y de poco uso en Vizcaya ("Índice de algunas voces que, aunque bastante comunes, ignoran varios su significado"): adjutu: cpto.-aldra: montón, multitud.- allaginā: en tanto grado.- apakiñ: pozo.- argibide: instrucción.- autu: escojer.- azartu: atrevérse.- azkortu: animarse, esforzarse...- baralla: alboroto.- begitandu: figurarse.- zematu: amenazar.- ziarretara: al revés...- konorta: conocimiento.- dendatu: esforzarse, animarse.- dontsu: feliz, afortunado.- duintasuna: dignidad.- edola bere: a lo menos.- edu: tanto.- epai: corte, sentencia...- eralle: asesino.- eregu: mimo.- esetsi: acometer.- etsigi: propender, inclinarse.- giñian: según (= al daben giñuan).- giro: temporo, sazón... Jaditxi(jadictsi, jaretsi, jaritxi): alcanzar.- jarki: oponerse.- lauñian: a galope.- oben egin: condescender, ceder. Etc.

- &&&&&&-.

FR. Pedro José Patricio de ASTARLOA, O.F.M. -- Durangués, hermano del famoso autor de la Apología. Se crió en Marquina (por ello, su euskera tiene la peculiaridad marquinesa). Publicó una obra en 2 tomos: "Urteko domeka gustijetarako berbaldi ikasbidekuak". A pesar de que no tiene escrúpulos en emplear profusamente palabras castellanas, no se le puede negar facilidad, fluidez, "etorría".

Altarako Sakramentu edo Komuninoiaren ganean: Ze zorion andiagorik gura zinaike? Bada ezta au ezer, Salvagiliak egin nai deutsun mesediaren parian. Ezta kontentetan zugaz etxe baten bizi izanagaz, mai baten janagaz, zugaz adiskide bat bestiagaz legez egonagaz; urrago euki gura zaituz; geiago estutu nai da zugaz. Gura dau zu bere bizi-leku edo etxe izan zaitezan: gura dau zure barrura sartu, zugan egom, zugaz gauza bat izan. Ze zorion andiagorik? Zembat bidar euki izango dozu Apostoluen embidia, Jesukristogaz bizi izatia, beragaz ibiltia, bere berbak entzutia merezi izan ebeelako? Zembat bidar esan izango dozu: A! Bizi izan banintz Jesus ona munduan ebilen domporan, bera ezagututeko, bera ikusteko, eta bere berba gozuak entzuteko!

Bada eztauakazu zer euki onelako embidiarik: au, ta geiago autortu, edo konzedietan deutsu Salvagiliak. Ezta kontentetan zugaz berba eginagaz; au gitxi da deutsun amodijuarentzat; geiago nai dau. Ezta kontentetan, zugaz mai baten jan, zure anaije, zure lagun maite, adiskide laztan, zure jaole leijal izanagaz; au gitxi da deutsun amodijuarentzat; geiago nai dau. Gure ogi egin da; gure janari egin da; geure auan sartu dailgun, beragaz gauza bat izan gaitezan, bera izatera irago gaitezan, bere bizitzingaz bizi gaitezan.

Begiratu dozu nozbait, neure Kristiñaubak, arrigarizko mirari au? Ifiñi zara inoz komulgadu ezkero aldaizun onduen pentsetan zer daukazun, ez zeure etxian, ez zeure albuau, ez zeure laguntasunian, ezpada zeure barruban, zeugaz gauza bat eginik? Egon zara nozbait adi ezagututeko zugan jazo dan Jaungoikozko mirari siniezgarria? Bada errazto esan daikezu ogi zeruko au artu ezkero: "Onezkeren enaz lur, enaz auts; Jesukristoren Gorputz naz, bere azurren azur, bere aragijaren aragi; Jesukristoren alde edo parte naz; Jesukristo bera naz. Bizi naz ni, baña ez ni; ezpada Kristo bizi da nigan; beragan bizi naz, eta bera bizi da nigan: bere bizitzagaz bizi naz."

Modu onetan berba egin bear dogula dirausku S.Juan Krisostomok; bada auxe eta ez gitxiago jazoten dala Jesukristoren Gorputza Sakramentu onetan artuten dabenagaz. O Jaungoikuak eginiko mirari guztijen mirarija! O Jaunaren gizonaganako amodijuaren ezaugarri edo señale gütstijetatik andijena! Nok sinistu leikian? Nok uste leikian? Nori gogora bere eldu leikijon, Jaungoiko batek ain modutan estutu, batu eta beregan-du gurako ebala zimaur zati bat baño eztan gizona? Baña gure Jaungoiko maitiak irago dituz gure itxaromen edo esperanza guztijak, eta eregi gaituz, ozta sinistu al gincjan anditasunera. Bedeinka milla bidar, simbeste maitetu gaituzan Jaungoiko ona; berari honria, berari alabanzia, berari eskerrak, orain eta beti lurrian, eta zeruban.

Murmurazinoiaren panian. -- Murmurazinoia sarri eta sarri asi ci da alabanzigaz. Urlaja, esaten da, ze gizon ona dan. Eztozu ori tabernan, jokuan, ez edanik ikusiko: gizon zintzua, prestuba eta biargina; eztago bera lezkorik adiskide bati mesede bat egiteko: ezteutzu orrek egunik itxiko meza entzun baga, ezta luzaro egongo konfesadu eta komulgadu baga. Fneuke nai bera baño adiskide oberoik. Baña... O "baña" madarikatuba! "Baña" infernukua! Onetantxe ezagututenean zeta-rako dan alabanza ori. Ezta bestetarako, ezpada sinistu deiujen bere kontra esatora doi jan guztija egija dala. Eginik alabanza au, uste dabe seguru dagozala, etc alan ah jetan dira. here kontra murmuwetan. Aintxe ateraten dabee dakien eta eztakien gustija... Orra zetan geratu dan lenengoko alabanza gustija. Badakizube zer deriztan egiten dozubela modu onetako murmurazincia gatz. Palanka bategaz egin ci dana. Zulo bat luurrian egin nai badozube, artzen dozube palanka bat, eta eregiten dozube gora, Bañazertarako? Ez an goian itxiteko, ezpada luurrian sartzeko; eta zenbat eta barrurago sartu nai dozuben, ainbat eta gorago eregiten dozube, modu onetan indar andijaguagaz sartzeko...

D. RESURRECCION M<sup>a</sup> de AZKUE Y ABERASTURI ( Lekeitio, 1864 - Bilbao, 1951) .-

Pasando por alto su ingente labor en pro

del euskera en su polifacético trabajo, recojemos aquí una breve muestra de su producción en dialecto vizcaíno, que refleja a la vez su alma sacerdotal:

Jesusen Biotzaren Illa, Bagillean irakurteko Azkue Abadeak egiña ta Bizkaiko Elizgizonai zuzendurikoa:

I.- Aspaldion zuen arteko batzuk zirika zaukedaz, beste lan batzuk atzeratuta baiño ezpada be, Jesusen Biotzagazko liburu bat egin daidala esaten. Eta asmo onetan ni re gogoari laban eragitearren, batek baiño geiagok gomutaratu deustazuez erderazko liburu bat edo beste. Soñeko bat iruntzieta edo idulez ipintea baizen erraza ezarren, beste berbakunza batzuen alkarren arteko biurketak lango arazo ariña balitz erderako liburuak euskeratutea, liburu au zaarrez edo geundu edo arretu zan onezkerro; geundu, zokondoan itxi balebe; arretu, esku-artean erabillien erabilliaz.

Biurketako asmoari neketsuegitzat itxita, barriren barri aurtengo urtafrilla amaitu-aurretxuan asi neutsuen lan au, arteka-marteka ta loari zati bat kenduta. ¿ Onelango lanari ekiteko, begiak eta biotza lurra baiño gorago bear direala? Egia da. ¿ Bilbo onetako ke baltezko laiño narraz-artean zero gitxi dakusela begiak? Baita. ¿ Zek zaukez, bida, besoak auma dozuezala, lan oni ekin barik? Elizetan erderaz irakurten dira ( eliztar geienak zer dantzuen eztakiela) euskeraz bear litzakezan gauza asko, ta zeuen buruagaz kezkarik asko daukazue au dala ta eztala. ¿ Zegaitik, beraz, isten deutsozue ugarrari luma garbi zorrotz gitxi erabilli orrek zabartu, astundu ta alpertutene? ¿ Imillaunpeko argi orrek ezetedozuez noz edo bein argimutilletan ikusiko? ¿ Ala uste dozue eztala zuentzat esana arako " nemo lucernam accedit et in abscondito ponit, neque sub modio, sed supra candelabrum"?

Liburu au ondo egiteko gure euskera zaar zakon eder onen azterrenak aratu ta iaki-tea ondo da, baiña ez asko. Onezaz ganera, Juan Apostoluaren biotza apal-bitartean legez, Jesusen Biotzaren kontran noberena berotu ta samurtu nai litzateke. Ta bene benetan autor deus/<sup>suet</sup> gurago neukeala aspaldiko urteotan ikasi dodan eusker-a-purra zeukanatu al banei, zeuek zeuenez, biotz beroz, gogo samurrez egin daizuezan onelango lanak. Augaitik esku-artean darabildan Iztegi amai bako gogaikarri au ezer baiño leenago argitaratu nai neban; baiña bateko euskerea galduen dagoela, besteko gauzarik bearrenak atzeratuen daukadazala ez entzutearren, or ioatzue ta zeuen gogokoa izan bedi. Batez be Jesusen gogokoa ta arimen onerakoa izan daitela. (pp. 5-6) (...)

Eskaritxu bi egin gura neuskioez liburutxu au erabilli daienai. Bata, bialdu dai-dezala mesedesz emen ezarri bako bape direan aldakuntzak, Iztegi andireko egoki izango dcdaz-da. Bestea, premiña barik eztaitezala lerroan lerroan " edoka" ta erderakadaz euskerea atsituten asi. Ona emen zegaitik: 1º) Errikoak ( erderakadaren batzuk esanaren) lautatik irutan guk baiño geiago euskeraz berba egiten danielako; bida guri, geure ikaste-urteetan, azaletik euskaldunak dirudien Seminarioetan, irakatsi-bearrean aztu eragin deuskue ain premiñazkoa dogun berbeta eder au. 2º) Aurreko ta atzeko berbetatik geientsuenean igarten dalako berba batek zer esan gura daben. 3º) Edoka orrek uretan luwaro dagozan bedarkiak andu ta beraturik eta gailla edo gasa legez, berbaldu bat gazbaketurik motel melgera zingle mergal gogaikarri egiten dabelako. Bestela ikusi daigun: " Berbaldi edo "platika" onetako agerkera edo "manifestazioak" kondaira edo "istorietan" argitaratu edo "publikata" ezpalegoz, azarkuntza edo "atrebimentu" andia dala erabagi edo "erresolbiduko" zeunkee, neure eliztar edo "feligres" maiteak, nik ain begirune edo "kontesia" gitxigaz, ain zeetasun edo "menudenzia" askogaz, aldi edo "epoka" atako iazoera edo "suzeso" agiri edo "publikoak" zueri gaur azaldu edo "espliketxa"...

Eztabe uste irakurlak, esaldi "edo parrafo" au esaldi utsa izanda be, ederto aditu leikeala? Ikusi daigun: " Berbaldi onetako agerkarak kondairetan argitaratuta ezpalegoz, azarkuntza andia dala erabagiko zeunkee, eliztar maiteak, ain begirune gitxigaz

(JARRAITZEKO)

ain zeetasun askogaz aldi atako.....

Bat edo batek esan daike, "kondaira ta begirune eztakie nire errikoak zer direan; eta erderaz esaten ezpaiake, eztakie zer esan gura daben". ; Eta orderaz esanda bai? "Sakrifizioa, aliantzako arkea, ordena sagradua, karakterra" ta beste onelango "pala-bra" asko, nai gorrari nai zurrari, parra. "Kondaira" ta "begirune" zer direan ez-padakie, ondo da adierazotea. Baiña erderaz, erdiak gitxienez adituko eztaben eran barik, euskeraz adierazotea da egin bear dana...

¿ Zer esango leukee orrek, iñoz Bilbora etorrita, entzun baleie onelango gauzarik? "La aurora o el "egun-senti" mostró su risueña faz o "irribarrezko arpegi", al poco tiempo de haberse metido aquellas alimañas o "pataris" en sus cubiles o "abíes".

¿ Nor elitzake purrustadaka asi ta kanpora nairik egongo? Bilboko elizetan batu oi direan lagunik erdiak gitxienez eztakie zer direan ez "aurora", ez "risueña faz", ez "cubiles". ; Eta orregaitik, obeto aditu daien, euskereagaz nastau bear dabez berba orrek? Burubakoa eztanak eztau olangorik egingo. Bada buruduna danek ezpei egin len aitaturiko berbaldi edo "platikarik" ... (pp. 8-10)

Jesusen Biotza Apaltokian: Jesusen arpegian da esanetan argi agiri zirean bere Biotzaren zauzkadak. Ezin ondo irakurri leikez, biotza samurtu barik, Jesus-ek ikaslai gau atan esaniko berbak: "Biotz biotzetik Pasko-apari su zuekaz egin gura izan dot il baiño lenago; bada auxe da nik zuekaz egingo dodan atzen-aparia, Jaungoikaren erreiñuan Paskoazkoa barriro egin daigun arte."

Apal-bitartean apostoluak, Maisua aldendu bear iakela aia kinda, asi zirean eztabaidan nor izango etezan euren arteko nagosi iakin nairik. Jesusek orduan esan eutsen: "Gizarteko erregeak iaube-gisan aginduten dabe. Zuen artean, ostera, andiena danak txiki buru egin bei; surretiko dagoanak agindupeko. Maisua nozue ta orregaitiño mende-an bainenduzuen zaukedaz". Eta esana egiteko iagi ta gerrian amantal bat ebala, eskuetan terreiñea urez beterik artuta ikaslen oñiak ikusi edo garbitutenei zan. Iaziera onen zakontasuna azalduteko berba duiñik epta sortu oraindiño gizonen ezpanetan.

Aingeruak zerutik onetarakoxe iatsi balekiguz be, euren berbak mamin andikoak iza-narren, mamintsuagoa edo esakuratsuagoa izango litzake Jesusen apaltasuna. Jesusen esakerak, bere izakerea legez, zerura elduarte eztoguz osoro iakingo. Jesusen beraren berbakaz bakar bakarrik azaldu lëkez ondo bere egikerak: bestegaz er.

Oñi-ikuzte edo garbiketa su amaitueran, Jesusek ikaslai esan eutsen: "Frakusmena emon deutsuet, neuk egin dodanez, zeuke be egin daizuen."

Antxiñako Erri batzuetan ekandutzat egoan Erregegandik paperean arturiko berbak, irakurri-orduko, buru-ganean lotsa ta begirunez ipintea. Orain agertuko doguzan berba onek, nai irakurri nai entzueran, Jesus maitatiari zor deutsagun lotsa andiz, belauniko egon bear genduke. Ogia eskuetan ebala Jesusek esan eutsen ikaslai: "Artu ta iai-zue, auxe da nire gomputza-ta." Eta Kaliz edo edontzian ardaoa ipiniita, esan eutsen: "Artu ta edaizue onetatik guztiek, bada auxe da neure odolezko kaliza." Eta geroago: " Beste onenbeste egizue neure gomutagarritzat."

Jaungoikoa gizondu ta gizona Jaungoikotutea, jiezalzan naikoa gure begiak zerura begira ta zerua zabal zabalik geu noz ioango egoteko? (...)

! O geure Jesus Biotz-andi, Biotz-bigun, maiteago izan bear zendukeguzan Jesus ona! Geuganduta bizi zarean-ezkero, Zeugandu gaizan guztiek; eta onetarako gartu gure biota txingartutenei zagozan maitetasun orreten.

Erabagia.- Il onetan, baldiñ astirik bedogu, Jesus-egaz ordu Laurentxu arin bat igarotera egunero elizaratuko gara.

NIKOLAS ORMAETXEA " O R I X E ": El gran maestro de las letras eúscaras conocía y amaba el dialecto de Vizcaya, en donde pasó largos años de su vida. Entre sus obras, figura también la versión del famoso "El Lazarillo de Tormes", en dialecto vizcaíno, con el título de "Tormes'ko Itsu-mutilla" (Bilbao, 1929). He aquí una escona:

"Alboan ardeau-pitxar bat euki oi eban bezkaltzeakoan. Nik eldutene neutson arin, eta bi mosu ixil emon-ostean, bere tokian izten neban. Ez luzaro. Edatean ezagutu eban palta zala, ta bere ardaua seguru seguru gordeteko pitxafari belefitik eusten eutson, beiñere itzi baga. Burdin-biziak eztau ezer bereganatzen, neuk lasto-izpi bategaz arda a baizen ondo. Saftuten neban pitxafa aboa eta itzungi egiten neban pitxafa, "gabon" esanda. Baña aen maltzura ta azeria zan, oartu edo zan, eta aufera asmua aldatu egin eban, eta ankarteán imiñi eban eta eskuaz papetan eban, eta alan nasai edaten.

Nó ardaudi yaña nengoan eta itotzen nengoan ardaugura. Lasto-izpiaz ezin balaituta, pitxafari zulo estu bat egiteko asmua artu neban, eta polito polito argizari-talo me-meaz itsututea, ta bazkal-orduan, otzak nengoala-ta, sartzen nintzaion an-karteán, su apufaren ondoan berotzeko. Argizari apuña urtutenean zan beroaren beroz, eta asten zan ituritzua tantaka nire abora, aratean neukola, ta !on dakiola galtzen zan tantari! Gizagaxuak edaten yoianeen, pitxar utsa aurkitzen eban.

Añitzen zan, biraoka asten zan, gaitzesten ebañan pitxafa ta ardaua, zer izan le-gikean yakin barik.

- "Ez esan, osaba, nik edaten dodanik - nirkutson -, eskutik eztozu izten-da."

Eskuetan itzuli ta irauli ta aztamu, atzenik aurkitu eban ituria, ta ezagutu eban nire iseka; baña ez-ezagunena egin eban.

Biaramean, nire pitxafa edoskitzen niarduela, ze gaitz etofiko yatan uste barik, eta itsu gaiztoak sentitzen ez nindualakoan, yezañi nintzan, beti lez, tanta areik biltzen nebazala, arpegia zerura begira, begiak erdi-itxiak gustu obea artzeafen. (Lazaro gizagaxua ardura barik nasai egoan, alangorik bimururatu baga, ta oraingoan ze-rua ta izartalde guztia nigana yausi zala iduri yatan.

Alako kaskatako ta alako pitxar-kaldiak kordebaga itzi nindun. ) ... artzeafen. Orduantxe nigandik asefekundea artu bear ebala ctu yakon itsu gaiztoari, ta bere in-dar guztiaz, bi eskuekaz pitxar goxo ta gafatz a goratzen ebala, yaurti eustan abora indar guztiz. Lazaro gizagaxua ardura barik nasai egoan... (goian lez) itzi nindun.

Pitxar-puskak surpegiar sartu yatazan toki askotik, eta aginak apurtu eustazan. Ordu ezketiño, ain barik nago. Andik aufera goñoto artu neutsen itsuari, ta maite ba ninduan bere, ta atsegina ta losentxa egiten ba eustan bere, ezagun zan neure ezbear gogofaz poztu zala. Ardauz egin eustan arpegiko osaketa, ta bareka iñoen: "¿Zer deri-tzok, Lazaro? Gaitz egin yeutseanak berak osatuten au." Eta olango ateraldiak ebañan, ez nire atseginekoak.

Nire odoleri ta zigofalditik osatutxu nintzanean, alango takateko gitxigaz itsuak galduko ninduala ta, neuk bera galdutea asmau neban. Baña astiro artu neban egikizun ori, seguruago egiteafen. Nik biotza ibitu nai ta pitxar-kaldia parkatu nai ta bere, ezin negiken; itsu gaiztoak andik aufera emoten eustan yardunaz. Zio barik, niri kas-kañekoka ta ulc-tiraka ziarduen. Eta norbaitek esaten ba eutson zegaitik alan yokatzen zan niçaz, beralaxe kontetan eutson pitxafarena.

- "Uste al dozu mutil au kokoren bat dala? Deabruak bere, asmauko ote leuke olango egiterik?" - Entzuten ebenak ziñatuta iñoen: "¿Nok usteko eban multitru ofek olako txarkeria egingo ebanik?" Eta bareka iñoen: "Zigofa, zigofa ofi. Yainkoak ordainduko deutsu-ta."

Berak ez eban besterik egiten. ( Capítulo I, pp. 19 - 23 ).

&&&&&&&&&&

N.B. - Como puede verse, con cierta frecuencia emplea palabras y siros netamente ajenos al dialecto vizcaíno. Por lo demás, su lenguaje es muy cercano al popular y la versión tiene aciertos muy logrados...

Juan de EGUZKITZA Y MEABE.--

Gizartekeria, baltsakeria ta abar:

"Gizaseme asko buru-ariñak gara. Gauzea zer eta zelan dan jakin barik, barriketan ekiteko ekandu txarra daukagu. Kristiñau-Ikasbideko liburutxua be eztakien babalasto askok, erlejiñoko gauzetan euren buruak maixu andi egiten dabez; Salomonek baño be geyago dakiela uste izaten dabe, ta guzur ta abar barriketa mitsean diardue. Iñon diran teñtelkeriak osaten dabez; ori ta guzti be, gizona okerrerako makur dagoelako-edo, askok siñestu egiten dautso.

Barrena ardaoz berotu ezkero, sozialismoa zer dan eztakien asko be, "Viva Rusia!" deadarrez ibilten dira. Gure baserritarrek egia egitzat, guzurra guzurtzat eta zorakeria zorakeritzat euki dagien, sozialismoa zer dan eta nora garoazan albait laburren azalduko dot.

Benetako sozialista ta katoliku batera iñor be ezin izan daitekela esan deusku Aita Santuak. Ori zegaitik dan aitu edo ulertu al izateko, sozialismoa zcr dan jakin bear dogu.

Eta lenengo ta bein, sozialismo euskeraz zelan esan ete geike? Nire eretxiz, sozialismoari euskeraz "gizartekeria" cretxi gegikeo. Izan be, erderazko "sociedad" euskeraz gizartea da. Sozialistak ondasuna ekiteko gai eta bide diran gauza guztien jabe, gizartea egin nai dabe: gizonok geure gauzetan daukagun jabetasuna, bakotxari kendu ta gizarteari emon nai dautse: gizon bakotxa kapstu ta gizartea aberastu nai ei-dabe: baña ori egitea - geroago esango dogunez -, gizon bakotxentzat ezeze, gizartarentzat be, kaltegarri izango litzake. Beste aldetik, edozelango egite txar eta kaltegarriak "keri" atzikizkiaz adierazton doguz euskaldunak: nagikeri, ordikeri, ustelkeri ta abar: beraz, sozialismoak lurreko ondasun guztien jabe gizartea egin nai dualako, eta ori gizartean bizi garean gizonentzat kaltegarri izango litzakelako, sozialismoari euskeraz "gizartekeria" eretxi gegikoo.

Ogasun ekarkor guztien jabe, lurrarde bakotxeen, bertoko gizabatza egin nai leukie komunistak. Oraingo Estaduok baño gizabatza txikiagoetan baxkide bakotxak guztientzat eta guztiak bakotxarentzat lan-egiñaz, gizaseme oro baltsan bizitza, gauzarik zuzen eta bidezkoentzat dauko. Onein eretxiz baltsan lan-egitera ta baltsan bizitza jo bear da, gizartea zoriona ekiteko: ori dala-ta, komunismoa euskeraz, "baltsakeri" izenaz adierazo geike.

Gizartekeri ta baltsakeriak bide bat eta bardimak eztaroe; baña baltsakeri ta gizartekeri osoa, euren asmu ta elburuetan alkarren antzekoak dira. Estadu andiak nai leukiez sozialistak; baña orretan be izanez baño izen utsez alkargandik urrunago dagozala deritxat, Errusiko komunistak edonongo sozialistak baizen nauskeri ta Estadu andizale agertu\*dira-ta.

Gizartekeria gauza on eta txalogarritzat dauken askok, zer dan eta nora garorkezan ba ete-dakie? Daukanari kendu ta eztaukanari emotea, gizartekeri edo sozialismoa orixe dala uste dabo asko; baña gizartekeria ori baño bestorik da..ta, eztago olako masti-atxarrak.

Patakon, aldi buteko lapur ospetsuak be, eukanari kendu ta oz eukanari emoten baekiela bein baño sarriago entzun dogo; Patakon lapur eta lapurren buru izan zala bai; baña sozialisten buru izan zanik, egundo eztogu entzun. Eta izan be, daukanari, bandas kala-ta beste barik, berea kentzea, Patakonen egunetan eta arrezkero be, lapurretea izan da beti... Sozialistak, euren buruak barik, surrekoak daukez lapurtzat. "Ogasunen jabe orain diran ugazaba ta jaunok, lotsa gitxiko lapurrik ei dira..ta, ogasunok orrei kenduaz, benetako jabeari, gizarteari, biurtu bear ei yakoz." Ugazaben artean lapurrik izan eztanik eneuke esango; baña guztiak lapur izan dirala csateko be, zen-tzun eta lotsa gitxi bear dira.

( De " GIZARTE AUZIA" -Ugazaba ta langille arteko gora-berak.", Amorebieta, 1935, pp. 7-9 ).

IBARGUTXI tar JON GURUTZ abadea:

Nacido en Ubidea, del grupo "Jaungoiko Zale", autor de "Edesti Deuna", "Geroko Bizitza" y 4 tomos explicativos del Catecismo "Kristiñau Ikasbide Atzalbena", entre las obras más importantes... A sus obras, de fondo serio y de estilo didáctico claro, algunos oponen el reparo de un excesivo purismo en cuanto a emplear vocablos de nuevo cuño, innecesarios y alejados del habla popular. Otros, en cambio, como "Orixe", alaban su "euskeria garbia, gozua..." :" Bizkaia'n Eguzkitza sonda ta Ibargutxi idazle bikotea lakorik bai ete dogu beste iñungo Euskalerrietan? Biribil esango dot, ezetz..." ( Orixe ).

ZORION IRRITSA:

" Zorion billa gabiltz gizon oro. Atsegina, zoriona deritxon zerbaitek ereta daukoz gure biotzak. Atsegina-griña ori bere bafenean somau ez daroan gizonik ez da. Batzuk, efeago, nabarmenago, sumiñago; beste norbaitzuk, motelago, epe-lago, baretsuago; baiña gitxi-geiago guztiok dogu biotza gexo, guztiok gara biotzmin.

Zorion billa, zorion amesez gabiltz; ez, arean, bide batez. Batzuk, zorioneko izatekotan, zintzo izan oi dira; beste batzuk oker eta gaizto, zorionerako bide labufagoa ori dalaikoan. Batzuk gefazale, beste batzuk bakezale, baiña bitzuok zoriona dabe egite ta jardueraren buru. Gure gogoak ezin legike ezertxo bere egin zorion amesez izan ezik. Burua urkatzen daben gixaxoak eurak bere, zoriontsu izango diralakoan dage gaiztakeri izugafi ori. Naiz onak, naiz txafak dirala, gure egintza guztiak zorion egafia dabe gorengo eragille ta elburu.

Gizartean ez da, ordea, zoriontsurik. Agintari ta menbeko, aberats ta beartsu, ugezaba ta langille, jakitun eta ezjakin, sendo ta aul, len izan diranak eta orain diranak, aldi ta alde oro gizonak artega dakuskuz; zoriona nai ta zorionik ezin jaritxi. Ta gizartea larduago, auferatuago, asmakizun bañiak ugariago ta zorion-egafi ori sumiñago; ta zoriona uríñago.

Menbekoak agintaritzan, beartsuak aberaskizunetan, langilleak ugezabatzen, tentelajkituri ta zurtasunean, gexo ta aulak osasun eta sendotasunean datzala zoriona uste dabe. Ta ortik gizonetan alkaffen arteko goñoto ta bufukak. Arako besamortuen, egafiz itoten dagoen hizkienak, ur bizidun itufia agertutakoan, alkarr bultzaka ta joka, zein lenago itufira eldu ta egafia aseteko dranga-dranga, edan-ta-edan derragoioen legez, alazk amarru, alkarr joka, alkarr ilten, etzun doiaz gizonak emengo ondasunetara.

Baiña zer? Aseta jaikiten al dira? Zoriontsu ete dira? Ez, bein. Edonago ta egafia- go. Sukañen bañua legortuta, kedartuta, daukan gexoak, ituñiko ur garbiz ames dagi. Baiña ur ori edanago ta bere pautsak legoñago ta efeago geratzen dire.

Faxalde ornia, jantzi bigunak, janari gozo ta ugaria, edari bizi, atseden-aldi luse, bero, epel, eguraldi argi... opa legikean guztia emon. Ase izango al da gizabitza? Zoriontsu izango ete? Bai zera! Opa alsk emonafen, beste zerbaiten ifitsak irikusteko gadi. Knon, ba, beste zerbait cri. Tcri zuñutada bat geiago. Baiña... alpefik. Iñez ez gara, ofaitiñ, aspertzen. Geure buruari irizur egin dautsoñula oartzear dugu. Baiña lena ta oraingoa ez dira bardin-ta, ia emen dagon ba gure zoriona... Ta olantzke doa gure bizitza. iruzuriñ-irizuriñ, eriotz illunpean jausi arteraiño.

Zeitze dague, beraz, zorion-ifits oñek? gure oinazerako bakafik sortu ete daroa Jaunak giza-erakisten suztruituta dagon zorion-griña ori? Gizona nozbait zorioneko izan dela ta orein bere izan daitekela agertu daroa griña ofek. Ifits bizi ori ez da Jaunak gagan alpefik sortu. Zoriontsu izan geintekez, ez gure alegiñez, Jaunaren eruki ta laguntzaz baiño."

( De "GEROKO BIZITZA", pp. 7-9 )

IBARGUTXIKI 'tar J.GUNTZ abadea:

EIEIZA, KRISTO'REN GORPUTZ: ..." Era bitara darabilgu " Kristo'ren soin" itz su: bata, Jaungoiko-Semeak, Goteunaren egitez, Andre Mari'gandik artu eban soin edo gorputza adierazoteko. Onetara diño Paul deunak: " Jesukristo'gan dakusguna ikaspidetzat bekizue. Tankeraz(itzuraz) Jaungoiko izaki... bere burua eratsi eban, jopu-antza arturik gizonen antzeko agertzeafen."

Bestea, Jesukristo'ren soin ezkutua, Jesukristo'k kistarekin dagian batasuna adierazteko. " Zuek, ba, Kristo'ren soin zaree, ta zuetariko bakoitza bere atal bat."

Ez gara, beraz, Jaungoiko-Semeak beretu eban gorputz-atal, arako eskua gure soin-atal legez; tentelkeri naskagafi litzake uste ori. Gizabatzari soiña deritxogu, buru ta menpeko oso bat egiten dabeelako. Baiña gizartean buruak menpekoak erabilli ta jaufi, bai. egiten ditu, baiña bizi-eragin ez. Buruak ez dautso giza-batzari bizirik ezarten. Jesukristo'k bai, kistar batzari.

Batze oni soin ezkutua - "corpus mysticum" - deritxogu, batasun ori adierazoteko itz adiñanagorik ( egoki ) ez dogulako.

BAT.- Sañi be sañi aitatu ta azaldu darcosku Paul deunak irakatsi afigaÑi au. " Bat dala bere, soiñak atal asko ditu; atal guztiok, bañiz, asko dirale be, soin bat dira. Olantze da Kristo. Guztiok, judu ta atzeritar, jopu (esklavo) ta jarei (azke edo libre), gorputz bat egiteko Ats Espiritu batez bateatuak gara."

ZATIGAITZ, edo zeatzago, atal-ezin. Atal asko ditu gorputzak baiña guztiak eta bakoitza gorputzari datxakozala iraun bear. Zure beso, ister naiz beste edozein atal gorputzari eratsi ezkerro, usteldu egiten da. Ta atal guztiak bananduko ba'litzez, gorputzarenak egin dau; usteldu egingo litzake. Kristo'ren gorputzari erasten iakozan atalak bere, usteldu egiten dira. Bat eta atal-eziña dogu Kristo'ren soiña.

AGIRIA.- Eleiza ez da ez ikusi, ez ikutu ezin gengiken zerbait, arako "pneumati-ko" edo espiritu dala diñoenak uste dabenez. Eleiza, gorputz da ta, beraz, agiri dan zerbait. begiz ikusi gengiken zerbait.

ATAL ASKO.- Giza-soiñak atal asko dituan legez, ta atal bakoitzak bere egikizuna, Kristo'ren gorputzak bere " atal asko ditu ta guztiak ez dabee egiteko berbera. Berak jaÑi ditu batzuk bidali, beste batzuk igarle, norbaitzuk Bañi Ona zabaltzaille, bestek, bafiz jagole ta irakasle, lanbiderako deunak egokituz, Kristo'ren gorputza antolatzeko.

Kristo'ren gorputz-zati bakoitzak bere egikizuna duka. Baita egikizun ori bete ta burutzeko emaitzak bere. Egikizunetan aiña emaitzetan. " Guztiok ditugu antzi edo emaitz banak, bakoitzari emondako eskefari dagokionez; batzuk igarletza siñistearen neufiz; bestek diakonotza mofoiketarako; bestebatzuk irakasletza erakasteko; burubide ona onulariak; zindotasuna eskuzabalak; ataza ( gogo gartsua ), arduradunak; begi arnia, @rükibereak."

BATZUK BESTFARI DEUTSEELA.- Giza-soiñaren atalak, asko izanaren eta bakoitzak bere egikizuna eukiaren, batzuk besteari dautseela dagoz. Azal ta mamin, azur, arapi, kiric ta zan, esku ta oin, danok alkartuta dagoz, ta batzuk besteari lagun egiten dautsee giza-spiñean. Baiña Kristo'ren soiñean bere, atal guztiok alkartuta gagoz; guztiok dogu bata bestearen beña, ta guztiok lagundu bear daotsogu alkafí... Biziго ta zoragaría azaltzen dausku Paul Apostolu deunak irakatsi sakon eta onuragafí au: " Soiña, bañiz, atal bat ez da, asko baiño. Esku ez naz-ta, soiñari ez nagokio esango ba'lleu oiñak. ez ete legokioke soiñari? Ta begi ez naz-ta, soiñari ez nagokio, esango ba'lleu belafisk, ez ete legokioke soiñari? Soin osoa begi ba'litz, zerez entzun? Soin osoa belafi ba'litz, zerez usain egin? Baiña Jaungikoak soiñean atalak, Bere oldez - Bera nai dauanez - bananduta ipiñi ditu..."

( De "SIÑISKAIAK", pp. 514 - 517)

Gabriel JAUREGUI URIBARREN, C.D. ( 1.895-1945 )

Este carmelita, natural de Aramayona, merece destacarse por haber abordado temas difíciles, muy poco tratados en euskera. Nos ha dejado dos libros interesantes: "PISIA" (Física) y "KIMIA" (Química), en un vascuence claro, pero demasiado puritano, al juicio de algunos... He aquí un ejemplo:

" CORPUTZA ZER DA? ZELAN ERATUA DA?.- Gorputz-bafuak utsune bako mamia dirudi; baña ez da alan. Gorputz guztiak mami-bitaftean utsune edo afo asko daukiez. Afipilloak, ufundik dakusgunean, moltzo itsua dirudi, bitafterik ez dautsogu ikusten; ujetik, baña, afi-bitarterieak ikusten dira. Eflakumeak eflautzetik urtekeran, egaz doazala, antzez moltzo bat egiten dabe, alan be zugatz-adaffen baten moltzoan gelditzen diria-nean; baña uñ-ujetik begiratu ezkero, efleak alkaffen ganean ibilli dabiltzala ikusten dogu.

Gorputzean be bafdin-antzean yazoten da. Gorputz-mamian ikararik eztogu somatzen eta atal bako batasuna dala dirudi. Baña izan besterik da; mami-aftean edo mamintzan txatal asko dagoz; mami osoa txatalka dago osotuta. Txataltxook igika daragoice.

Txatalok bitarikoak dira: txikerenai Kiziak deritxe, ta kiziak bat-eginda osotuten diidian azixeagoai Elak.

KIZI TA ELAK.- Gorputz-txatalik kozkofenai Kiziak deritxe, ta gorputzari edo motatan aña kiziari edo mota dira izan: guztiz larogetakak. Ari bakotxeko kizi guztiak milloika be ezin zenbatu daitekez; neufkaneiren baten milloika dagoz.

Kizi bik nai geiagok, alkartzen dirianean, Elea egiten dabe; esaterako, Urgai-kizi bi Ordeigai-kizi bategaz batu eskero, gorputza softzen da. Gorputza, beraz, elakaz osotuten da, eta elak kiziakaz.

KIZI -IGIAK.- Elako kiziak bein be ez dagoz geldi; ibilli ta ibilli daragoice derdarka. Kiziak gazteak dantza askatuan lez dabiltz. Elearen igikuneak neska-mutik bi-koaren dantzearren antza daukie. Kiziarenak, ostera, neskearena nai mutillarena bakanfik. Eta zelaian dantzari guztien aftean dantzari-moltzo bat egiten daben lez, elak pillatuta gorputz-moltzoa eratuten dabe.

Elaetako igiak Pisi-yazokunek dira; kizietakoak, Kimi-yazokunek.

Gorputza berotzen danean, beroaren neufiz, elak arintza andiagoa aftzen dabe ta alkafegandik uñiñagotu, ta, uñiñagotze onen neuñi berean, gorputza anditu ta azi.

Yazokune au Pisi-yazokunea da. Zaldi-zaldunak euren yokoari daragoioenean, zaldi-zaldunak beste zaldi-zaldunakandik aldendu ta uñindu egiten dira; baña ez zalduna az-pian daukon zaldisgandik. Era berean, Pisi-yazokunek ez dabez aldenduten kiziak kizietatik, elak beste elaaetatik baño.

Zaldun guztiak zaldi-ganetatik yatsita, zaldiak alde batera ta zaldunak bestera bañdoaz, zaldi-zaldun pillorik ez dogu ikusiko, gizon-pilloa ta zaldi-pilloa baño. Bárden yazoten da kimi-yazokunetan be; elako kiziak edo alkafegandik banandu egiten dira, edo alkafegaz batu ta gorputz baria softu....

KIZIEN KIDETASUNA.- Kiziak alkafeganako lera edo leia daukie, ta leia oneri Kide-tasuna deritxo. Gorputzari izatea ta zeinkiak kidetasunetik datorkoz.

KIZIEN TXATALAK.- Kizi guztiak bitariko txatalak daukiez: txatalok Kizigun edo Protonak eta Kizi-azal edo Elektronak dira. Elektronak tximista afa (- ikufagaz iragorten dana) daukie, Protonak bariz emea ( ≠ ikufagaz iragaftan dana).

Izar-baltzak eguzkiaren barano edo inguruan biraka dabiltzan lez, kiziazalak kizigunaren baranoan dabiltz. Ikusi 42 ta 43-gafen irudiak. Kizigunak eguzkiarema egiten dau, kiziazalak izaf-baltzena...

( Como inventa nombres euskéricos para los términos técnicos, antes de cada lección presenta siempre una lista de estos vocablos nuevos. Los dos libros están bien presentados e ilustrados gráficamente.)

ARRIANDIAGA<sup>tar</sup> Imanol, M.B.S.- ( 1876-1947):

De Elancove; llegó a ser hasta Secretario General de su Congregación; jurista y moralista... Volvió a aprender de joven la lengua materna que había olvidado en los primeros años de sus estudios religiosos. Cautivado por la lógica del euskera, especialmente de su verbo, pretendió una reforma radical que le llevó a escribir un vascuence muy alejado del pueblo. Es uno de los mayores representantes de la tendencia purista a ultranza...

Entre otras obras ( y multitud de artículos), escribió " GOIZPARREA IK ETIA BELURAIK EGUNA", editado en Itxaropena el año 1.959.- Ofrecemos su versión de la parábola del Buen Samaritano:

" ... Josu<sup>k</sup>, ijardetsiz, " gixona zan, - esan leban - Jerosolin'dik Jeriko'ra jasten zana; eta bide-napufen askubetan jo leban; eta napufoik, billoiztu eta zauri-ttu-egin-ondoren, iltzer utzi leben.

Ain zuzen, be, jaupari ezeinbat jatsi zan bide ataz; eta gixon-gaxua ikusirik, june-gin zan. Berebat debittaf ezeinbat, bide ataz etofirik, eldu, ikusi ta alde-egin leban. Samarittaf ezeinbat, baña, bidez letorfan, eta abañatu egin yakan gixaxo ariñ eta sorotzitik, efukittu yakazañ afayaik.

Eta eldu, eta zauri jaik lotu leutsazan, gaimel-ardauaik zauri jetan ixuri, eta asto-gane jafi lebalarikan, afoztetxera eruan leban, eta beragaz arduratu zan... Bigaramonian, txindi bi ziskutik atera eta afoztalliari ukañi leutsazan, " beronegaz ardura ixan, - esanik -; eta ganeko iralgiko leukian edozerbere, nayatofkianian ordaindu da. giskiat."

Irurotarik ñ zein deritzak napuñ-eskubetara jausi zuanaren geidia egin layuala?": " Aregaz efuki-ixan zuana - iñ leban legi-jakiñak. " Uake, ba, eta eroñek, be, berebat egíkek", - iñ leutsan Josu<sup>k</sup>.

Versión del Padremuestro: " Atta: eure ixena donetsi bixa: eure ala bel. Egunian-eguniango ogija emoskuk egunoro; Eta geure obenaiak azketsi egiskuzak, geuk, be, geure zoñdunai bai tazketsegu; eta ziltzaldiratu ezkagikezak." ( S. Lucas, XI, 2-4)

" Gure Atta goikuoi, eure ixena donetsi bedi; Eure ala bel; eure gurea egin bedi donokijan letz ludijon be; Egunoroko geure ogija emoskeguk gaur, be; ta gure zoñaiak azketsi geuri, geuk, be, geure zoñdunai dazketsegun letz; eta ezkagixak ziltzaldiratu, gatzetik jabon baño." ( S. Mateo, VI, 9-13).

Versión del Discurso eucarístico de Jesús: " ... Zin-zinenez dirautzubet, esan leutse Josu<sup>k</sup>; - eleutzuben Mois<sup>ak</sup> emon ortzi-ogija; emon, be, nire Atteak damotzube ortzi-ogi egija. Urtzi-ren ogija dozube, ba, ortzittik jatsi eta gixadijari bizmena damotsana." - "Jaunci: inguk ogi ori beti" - esan leutsaen.

" Ni nerau nozube bizmen ogija: nigana letoñkikedana gose ixango ezta; eta nitzaz zinetsi daikena, egafi ixango ezta egundo", esan leutsen eurei Josu<sup>k</sup>. " Ikusi nozubela ta eztaustazube zinesten, irautsi dautzubet. Atteak demoskedan gustija neugana datorñkiket; eta neugana datorñkikedana, eztot nik landara egotziko. Ortzittik, ba, eni txozuben jatsi ni neure gurea egitten, ni igori nindubanarena egitten baño. Eta auxe dozube ni igori ninduban Attearen oldia, ukañi leustaniko ezertxorik galdu eztagidala, eta bai azken-egunan ilpiztu dagikedala.

Auxe dozube, ba, ni bidaldo ninduban Attearen naya: semia sorotzi eta semiagaz zinetsi daiken edonorbere, betiko biztaldijaz jaubetu dadittela; eta neuk ilpiztuko doñ azken-egunan".

( N.B. Al final, publica esta obra un largo vocabulario de neologismos o palabras de extensión reducida dentro del área del País Vasco. Por lo demás, la edición está bien cuidada, aunque no carece de erratas...).

- &&&&&&&& -.

LARRAKOETXEAtar BEDITA.- Este religioso (de los Canónigos Regulares de Letrán), natural de Ceánuri hermano del P. Hipólito C.D. "Legoaldi", a pesar de residir durante muchos años en el extranjero, no ha dejado a un lado el cultivo del Euskera: parece ser que tiene acabada la versión del teatro de Shakespeare. De hecho ha publicado ya varias de estas versiones en la revista "Euzko Gogoa" ( Macbeth, Ekatxa, Lear Errege ).

He aqui un fragmento de MACBETH:

V Agerlekua.- (Gaztelu-barruan) ( Emakume-negarra barruan)

MACBETH.- Zer da zarata ori?

SYTON'ek.- Emakumeen negarra yatzu,ene yaun on. (Alde dagi)

MACBETH.- Larri-larri bildurra zelangoa dan be aztuta nago; izan da aldia gau-gedarrrik entzunezkero nire sentzunak otziturik gelditzen yatazana; eta iñori gauza itzalik entzunezkero, buru-narrua yagi ta ikaratu egiten yatan, bizia an bai'legoan. Orain gauza ikaragarriz narruak artu-alean andituta nago; eriotza-oldozpenak egunean-egunean- goak dodaz-ta, gauzarik itzalenak be ikara bat bera be ezin emon daustie.

( Barriro dator aurrera Seyton)

Zergaitik izan zan arako garrazia?

SEYTON.- Errege-Anderea il da,ene yauna.

MACBETH.- Geroago il bear eukean, alan onako itz onentzako aldia be izango zanda. Biap, eta biar, eta biar or dator oinkadatxoka ta' erdi-tatarrez egunik-egün, itzaren azkenengo ataltxoa be esatekoa-barik esana izan-arte; eta gure "atzo" guztiek zoroai argi egin dautse eriotza austurarteko bidean. Itzali, itzali, argizagitzo labur ori! Bizia, ibilli dabillen itzala baño ez da; antzezlari errukarria yatzu; antzokian dagon artean bein arro-puztu, bein asarretu egiten yatzu ta, gero, ez dozu aron barririk geyago; ergelaren ipuña dirudi: zarata ta bizitasunet betea, baña mamibagea.

( Geznaria dator aurrera)

Miñari eragiteko ator i; esan arin esatekoa.

GEZNARIAK.- Fne yaun atsegigarri, neronek ikusia dala diñodana esan bear neunke nik, baña ez dakit nolan esan.

MACBETH.- Tituk, be, esan egik, yaun.

GEZNARIAK.- Mendi-tontorrean nengoalarik, Bérnam-aldera begiratu neban eta, begiratuaz bat, basoa igika asi zala iruditu yatan.

MACBETH.- Guzurti ja yopu ori! ( Yo dagi).

GEZNARIAK.- Onan ez ba'da, betor higana zure asarrea. Emendik iru legoa-bidean ikusi zengike ba-datorrela; ibili dabilen basoa diñot.

MACBETH.- Ik diñoana guzurra ba'dok, zugatzik urrenetik eskegiko aut bizirik, gosearen-gosez irrintze egin-arte; ik esana egia ba'dok, ostera, ez yaustak ardura euk beste orrenbeste egingo ba'dauztak be. Oraintxe zirti-zarta egiteko gertu nago; eta oraintxe asten naz konturatzen, guzurra egi-antzez esan daroan tixerrenak ziri ederra sartu eustala: " Ez izan bildurrik, Birnam'go basoa Dunsinane'raru-arte"; eta orain basoa etorri dator Dunsinane'ra.- Artu izkilluak, artu izkilluak eta goazan landara!

Orrek autortzen dauena egia ba'da, ez dago ez emendik alde-egiterik, ez-te emen geldi yarraitzerik be. Aguzkia ikustez be aspertuta nago, ta mundua ankaz gora yausiko ba'litz guraigo neunke. Yo izkilluetarako yoalea! Putz-egin axe orrek! Ator, ondamentzi! Gitxienez be guda-yantzia aldean dogula ilgo gara. ( Alde dagie).

.-.&&&&&&&&&&.-

He aqui su opinión sobre la actual polémica en torno a la literatura vasca:

"... Gazte asaldatuek orraitino inondikoak asmau dauskuez. Ori be bai? Ba, bekie asaldariok, euzkeraz orain lez ederto ta txairo ta nasai ta erosoa guk dakigun alditar ez dala idatzi. Oraingo ainbat euzkal-idazlek atzean urrin izten dabez 1900 g. urtez aurrekoak. Aik oraingoak baño obeto idatzi eikien idatzi, baña ez eben egin olangorik, zoritzarrez; orduan gure euzkerea errian oraingo aldean mardul bizi zan, il diram esakera eder asko bizi ziran, gu barriz emen gabiltz gelditu diran apurrek maitekiro batu ta ideztietaratzen. Itz gitxiago ta lan geiago bear dogu gure egun larrictan..."

Nik ez dot esan gura oraingo idazleak guztiek dirala lengoak baño obeak; ez orixe, baña oraingo batzuk lenagokoien aldean edertosko idazten dabe..." ( En "Euzko Gogoa")

P. SANTIAGO de la Anunciación ONAINDIA, C.D.

Infatigable escritor y publicista, ha cultivado diversos géneros literarios: poesía, versiones, crítica, prosa literaria. Dirige las colecciones "Karmel" y "Olerdi", organizando anualmente en Larrea un "Olerti-eguna" con Concurso de Poesía. Su vascuence es de signo cultista, castigado, un tanto alejado de lo popular...

ITURRIA.— Bai al daki iñok nundik datorren umearen begietan txiribiri dabillen loa? — Bai, díñoenez, maitagarrien baserrian bizi ei da: lore-baratz bateko itzalpean, ipurtargiz erdizka bakarrik argituta, zoragarritzko lili-pipin bi dagoz dingilizka: loa andik bide dator, aurtxoaren begietan mun gozoa ezartera.

Bai al daki iñok nun jaio zan ume loak artuaren epanetan egazka dabillen irribarre eztia? — Bai. Esan oi danez, udazken intzez garbiko goiz amesti batean, illargi barriaren erraiñu jantzirik, sor-erazo eban, nimbait, ume lokartuaren epanetan egazka dabillen irriño eztia.

Bai al daki norbaitek nun egon zan gordeta, orrenbeste urtez, umetxoaren aragitzxoetan loratzen dan barri-samur gozo biguna? — Bai. Beraren amak, neskato zala, matasunezko misteri leun ixillez igurtzi oi eban biotza, umetxoaren aragitzxoetan lortu dan barri-samur gozo biguna, nimbait.

ORRELA DOZU UMEA.— Oraintxe berton, umeak nai baileu, egaz egingo leuko zerura. Baña zer-edo-zergaitik ez doa egazka. Atsegir yako nimbait amatxoren bular gaiñean burua etzatea! Eta gero, adi-adi yagoko eten barik!

Itz zoragarri asko dakiz umeak; mundu onetan alan be, gitxi baño eztira arek díñoana ulertzen dabenak. Baña zerbait-gaitik ez dau berba egin nai. Bere amaren i-tzak ikasi, ez dau besterik gura. Or zergaitik jartzen dauan aín betarte eztia!

Urre-meta bat ta txirlarri asko ebazan umetxoak; alan eta guzti be, txiro ta ez-euki agertu zan mundu onetan. Baña ba-eban zerbait era orretan agortzeko. Eskale billois antzera, oso aul agertu nai antza, amari aren leia ta ardura bizien diruzakua eskatzeko edo!

Txit jara ta korapilla bakoa zan umea itargi barriaren eskualdean. Baña zer-edo-zergaitik itxi eban bere askatasuna. Bai, arek ba-daki ondo be amaren biotz-zokoan daukan poztasun muganeza, ta askatasuna baño bigunago da, daukan altzo samur eta besarte estu maitatia!.

Postasunezko aroan bizi zan, ta ez ekian negar egitea zer zanik. Baña zer-edo-zergaitik sukeratu ebazan malkoak. Izañ be, ama arduraz betearren biotza irri-barreka irabazten ba-eban, edozein kezkagaitik ixurten dituan negar-tantak erruki ta maitez lotzen dabe aren izatea.

( De "Iru Poema", versión de obras de R. Tagore, "Kuliska Sorta", Edit. Itxaropena, Zarauz, n.53, pp. 13-15).

IDAZ-TANKERA.— Bakoitza dogu izakera apartekoa. Eta sortzetiko era, seta ta aiurri oni dagokionez, jardun oi dogu eguneroko gauza ta zeregiñetan: onek, ak briño txarto edo obetoago. Izakera au, ekiñaren ekiñez, azi ta ezi bearrean gagoz; gizabarrena, bada, berenez, ziraun-kabi, sats-oxin eta ezjakin-leza da. Ezi ta azi ezkerro, zerbait: ortarako ditugu gaztetan artzen doguzan len-ikaspenak, eta gero be, urteetan aurreratuz goiazela, kontuz ibilli bear; bestela, laster erakutsi daroagu azpi loi orrek daukan saskara pillo negargarria.

Dana dala, esku artean darabilguzan zer guztietan, esan edo idazten doguzan leroguztietan, geure-geure dan zerbait izten dogu itsatsita. Ortik, ba, gure harrena argien elerti-lanetan agiri dala, esan geinke, berton bai dogu izate guztia insultzen; eta, nai ta ez, agertu bear gure barrenak, dituan griñia, birtute, joera makur, kezka, urduri, zauskada ta guzti. Eta auxe da, izan be, idazle baten estilo, idazkeria, osotzen dauana: barne-agertze dirdaitsua, esaera txukun giarrez oretuta.

Eta, jakiña, berez likin ta baldar dan <sup>izakera</sup> idazkeria ezi ta azi oi dogun legez, idazkeria be, ots, geure barrue ustua ta gauzak azal ta mamin lillurakor azaltzeko era ori

(JARRAITZEKO)

... ezi ta azi bear.

Elertiari gagokiozala, bitara dagigu su: 1) irakurriz, ta 2) idatziz. Beraz, irakurri ta idatzi bearra dogu, idazkera ona jaristeko.

Irakurri.— Asko ikasteko, irakurri; ondo idazteko, irakurri: su bai da idatz-ertzaaren ardatz eta oñarri. Asko irakurri dauanak ezagun dau bere idatzietan. Gure artean be, zeinbatek, asi-barri zirala motel samar idatzi arren, gaur, Egoki, txairo, neurritsu ta joskera apainez idazten daben! Zergaitik? Asko irakurri dabelako. Idazkera osotu ta norberetzeko ez dogu idazle onakaz daukagun ar-emona baiño bide obarik. Onek darakuskue, eguzki-izpiak baizen argi, zador irristatsuetatik zelan ibilli. Idazle ospetsuak, dan-danak gero, asko izakurritakoak, irakurle sutsuak izan dira. Gabiltzan gu be eredu onein lorratzetatik.

Irakurteak dakazan onurak: 1) Ertietarako gaitu; 2) adimena, gogai ta oldozkun (idea) barriaz apaindu; 3) asmamena, antz-argi ta irudikizun biziz jantzi; 4) olermena, itxartu ta gorriak jarri; 5) biotza, ikutu ta zeuskada bigunez dardarazi; 6) erti-lanak ebazteko, ao-goxoz ornidu; 7) idatz-ertiaik dituan ainbat eta ainbat ezkutu te alderdi eder erakuts-azo. Eta onek, merezi dau, nik uste, neke apur bat, ondoren daskrskuzan ondasunen truke.

Baña, zelan irakurri? Arlo au be erti-arloa dogu, antza, ta erti danez, ikasi egin bear, onuraz irakurteko, zelan irakurri jakin bear. Eta ortarako ez dago zotan asko irakurrik, irakurten dana ondo baiño. Onek, arrapaladan irakurten dau, idaz-lanak dauzan edertasunak aintzat artu barik; arek, aldia emotearen be bai; beste onek, aurretzaz ta astiro, eder-zale baita. Alde andia nimbait batetik bestera. Lerroz lerro ta adi-adi irakurri bear da, gizon jakitun, zentzundun eta ertilariaik dagienez. Ertilariaik, batez be, astitsu ta arduraz irakurri oi deutzu, bere idazkera jaso, osotu ta bere-bere egin nairik idatzietan dirodozan apaindura, edertasun, ta osterantzeko gozotasun ta eztigai guztiak maizkatuaz. Erlearena dagi.

Beste itaune bat. Idazleen artean, zeintzuk artu ete gengikez eredutzat? Itun zarra dogu: ez irakurri idazle asko, onak baiño. Idazlan bat artez ebatzirik, ari buruzko eritxia emon al izateko ta txastaera samur egokia lortzeko, ona da sail te mail guztietako idazlanek irakurtea.

Baiña idazten ikasteko, idazlari bakar batzuk irakurtea, obe. Eta bakar orreitatik, zeintzuk lenen-lenen? Barru ta azal oso egindak, garbi-aratz diranak, geure gustu ta joerakin ondoen datozenak. Oneik yakuz omurakorren. Cogai ta ideak azaltzeko biderik erosoenak dakazenetatik astea be ez letorkigu gaizki. Bai ta, eskolako geure aburu ta eretxieri erantziegi ebilli ez gaitezan, elertiaz bere maila guztietan jabetzeako, noizikbein danetatik irakurteaz be mesedegarri yaku. Idazle baldan ta exkas samarrak, azken txandaz, irakurri geinkez.

Gurean aspaldi darabilgun istillu-leloa osakaitza dan arren, ondorengo banako batzen azalduko dogu, guk geien irakurri bear doguzan idazleak, zeintzuk diran.

Idatzi.— ... Erti guztiak ikasi oi doguz ekin eta jardunez: ur-tantoak, jausi ta jausi, arria zulatzen. Idazten be, nai-ta-ez, idatziaren idatziz ikasi bear; ez askok uste daben lez, idazlan bat bota ta oso te eredutzat bere ekarris.

Idazterakoan iru era dazauguz, au da, batzuetan erderazko lanak euskerara itzultzen: doguz; beste batzuetan, beste idazle on batzuen antzera geure lanak osotu; irugarrenez, lan jatorretan ari gara. Irurak, noski, bide egoki ta onuratsuak, idazkera giantsu ta goxoa jaristeko.

Ele-itzulketa, zelan edo alan esan bea, edozein gorputz iñarkun baizen sendo ta tinkoa da idazten ikasteko, batez be idazkeria berezi-beiñena eskuratzeako. Asko dira erbeste-izkuntzetan orrelaxe jardunik, idazlari punterengo egin diranak; gerkeratik edo lateratik olerkiak naiz itz-lauzko lanak itzulia, zenbatek igoen daben ospearren mendi tontorreraiko! Gure artean, Orixeta Zaitegi, Larrakoetxe Ibiñagabeitia

(JARRAITZEKO)

baitik-bat. Lebur: errez, lau, garbi idazten ikasten da. Liburu bat irakurtean, onek dabezan eder guztiak aztertu ta gogoan sartu bear ditugu: zein dan egillearen asmo ga-raia; zelan azaltzen dauan asmo ori; zeintzuk diran bertako gogai garrantzitsuenak, zeintzuk betegarri; berez ta goxo, ala baldar, idazten dauan; pentsamentu sakonak, break, jatorrak ditun ikusi. Eta gero, egille orren gogai, irudikizun eta bideai jarraitik, noberak be aren antzeko lan bati ekin. Taiu onetan egin ebenak mundu guztiko elertian daurkiguz: Bergili'k, Omer eredutzat artuta, osotu eban bere "Enearena".

Eta, azkenik, idatzi jatorrak, norberak egindakoak. Lenengotan gitxi idatzi, ta albait eta ondoen. Arretaz eta txukun idazten asten danak, bidez doiala zoztorra aurkitu arren, azkenerako polito bide egingo dau. Orrelaxe egiñ dabenak doguz idazle guztiak; zuza antzera, berez, iñor be ezta egin oi. Bestera, asko idatzi ta txarto, olangoak ez dau sekula be ondo idatziko. Gaiñera, norbere lanakin latz jokatu becarrean gagoz; kendu bear dana, kendu, ta arteztu bear dana, arteztu.

Gaztetan, batez be, olertitxoak taiutzea, oso egokia ei da idazten ikasteko, idazkera eder jori apain baten jabe egiteko."

( En "Olerti", 1960, Urtarrilla-Epailla, pp. 3 - 7 )

&&&&&&&&&&&

Entre los diversos libros de otros autores que el P. Onaindia ha vuelto a editar y ha divulgado, figura la versión del P. Pio, C.D.: "Kristo'ren Antz-Bidea": este carmelita, muerto en Lima, era natural de Gorocica. He aquí el cap. XII del Libro II:

GURUTZ DEUNAREN BIDE EDERRA: 1.- Askori gogorak deritxez itz oneik: "Zeure burua ukatu, artu zeure gurutzea ta Jesu'ri jafaitu egiozu".- 2. - Baña askozaz be gogofago izango da azkenengo egunean itz oneik entzutea: "Nigandik uñindu zaitezze, zorigaitzokuok, zoaze betiko sutara".- 3.- Ba orain gurutzearen itza gogoz entzun eta jafaitzen dabenak, orduan betiko gaitzespen-itza (kondenaziñoa) entzuteko bildufik eztabe izango.

4.- Jauna epaitzera etofi daitenean, gurutz-irudi au agertuko da zeruan.- 5.- Gurutzean josaren antzera bizi izan dira gurutzearen jopu guztiak, orduan Kristo epai-kariagana uste andiaz uferatuko dira.- 6.- Zerura joateko bidea gurutzea da, ta, zer dala-ta zara bildur gurutzea artzoko?

7.- Gurutzean dago osasuna; gurutzean dago arerioen aurka egiteko laguntasuna; gurutzean dago biotzaren sendotasuna; gurutzean dago goitiko samurtasunaren ituria; gurutzean dago gogoaren poza; gurutzean dago onoimenen ganburua; gurutzean deuntasunaren ornitasuna.

8.- Arimaren osasuna ta betiko bizitzaren itxaropena gurutzean baño eztagoz.

9.- Zure gurutzea artu egizu ba, ta jafaitu Jesu'ri, ta betiko bizitzara elduko zara.- 10.- Bera (Jesus) auferatu zan bere gurutzea sorbaldan eroyala, ta zure alde gurutzean il zan; zuk be zeure gurutzea eroan, eta gurutzean iltea gura izan dagizun.

11.- Beragaz batera ilten ba-zara, Beregaz biziko zara.- 12.- Ta bere neke-laguna izaten ba-zara, aintz-laguna be izango zara.- 13.- Gurutzean dago dana, ta gurutzaren iltean aurkitzen da dana; ta bizitzarako ta bafuko egizko bakerako beste biderik eztago, gurutz-deunaren eta egunoroko ilduraren bidea baño.

14.- Zoaz nai dozun tokira, billatu egizu gura dozuna; ta gurutz deunaren bidea baño, ez goyan bide goragorik, ez bean eskiefragorik, eztozu aurkituko.

15.- Dana zeure gurariz eta eritziz eratu ta atondu egizu, ta clan da guzti be, edo gura dozuna edo gura eztozuna jasan (sufridu) beafa baño eztozu aurkituko; ta o-nan beti gurutzea aurkituko dozu.

16.- Edi gorputzean min eukiko dozu, edi ariman gogo-atsekabea izango.- 17.- Batuetan Jaungoikoak itxiko zaitu, beste batuetan urkoak jasan-ezoko dautzue; ta au baño txafago dana, zeu zeure buruarentzat nekegafí izango zara; ta ezetariko osagafí edo atsegiañaz etzara azkatu edo arinduko, ta Jaungoikoak gura dauan artean jasatea egoki yatzu.- 18.- Bere menpean jafi ta atsekabeen apalago egin zaitezan, atsekabea atsegin barik jasaten ikasi dagizula, Jaungoikoak gura dau... .

--. &&&&&&&&&&&&&--.

Fr. IÑINO DE AKESOLO, C.D.-

Gran conocedor del vascuence histórico y del popular, nos ha ofrecido una buena muestra de la modalidad arratiana en su folleto "Ipiña ta Ipiña tarren Barri"(original de D.Fabián Angoitia, pbro):

BASAYAUNEK: Iñoz entzun ixengo zenduen basayaunen ixen au. Basayaunek zertzuk zirean yakiteko, ixen onek zer esan gure dauen gomutera ekartea baiño eztaukazue. Yaunek nagusie, uzaba edo agintarie esan gure dau'ts basayaunek basoan yeune dana edo aginpidea daukena.

Lenagoko zarrak esaten eudienez, ikeragarrizko gorputze ei-eukien, yantzi irdiñek erabilten ei-eudiezan, eta euren artean ba eizirean banaken batzuk bekokien erdien begi bakarra eukienak be. Euren yauntasune, eguzkie sartute urrengo egune zabaldu artekoa ixeten ei-eudien. ! Bitarte orretan basoan aurkitutene eudienaren errukie! Basolanetan ebizenak ardurez da bildurrez ibili bear eurekaz. Euren yauntasun-orduetan aurkitutene eudenari "gaur gabeah geugaz ixen beozu", esaten ei-eutsien, eta geyo gixon orren barririk ez ei-zen yakiten.

Legoaldi'n asita Otzandagortararte guztien ei-eukien euren aginpidea; ta basorik ilunenetati ibilten ei-zirean geyen baten.

Gixon-okelea yanda bixi ete zirean esaten eudien lenagokoak; ba, armol-bitartesak guztiak gixa-azurrez beterik agertutene ei-zirean. Au gaiti lanean basora yoaten zireanak, eguzkie atzerantza itzultzen zaneko, azkorea ta sakue bizkarrean artute, egun argiz artzen ei-eudien atzera bidea.

Orraitio, gaubetan euren beartzaoak eiten ba-eyekien, goldaketa ei-zirean mutilek. Mendi-ganetati bera datozen erreka-arroak euren gauetako goldaketa-aldieta einko golda-zulosk ei-dire. Atx-kastillo'ko arri nausien azpien eukiten ei-eudiezan euren batzarrek, eta batu be ainbat eiten ei-zirean bakotzean. Ubide'ko artzain batek goiz baten Muzurutz'go atx-ganeti begitute, amabireiñ ikusi ei-zituen Atx-kastillo'ko arripeti urten, Arraiñeta'ko Zubie igaro ta Uguspe-larrati Otzandagortarantz erreskadan yoyazala.

Ipiñeburu'ko Artea-etzeko gixona eguneko lana amaitutearren illuntze baten berandu-rarte gelditu ei-zen basoan. Basayaun bi ba-yatorkoz, "gaur gaube geugaz egin bear dozu", dirautsiela. Ipiñeburu'karrak: "Bai, -erantzun eutsien -, baye lelengo iruron artean auxe pago au erdibitu daigun." Ziegaz arrakal andie einde ei-euken pago ori, ta batak alde bateti eta besteak besteti arrakalean eskuek sartute inder eiteko esan ei-eutsien. Asi dire, ba, basayaunek olantxe inderka; gure gixonak barriz kendu deusto zie pagoari, ta arrakal ori berez estuturik basayaunok eskuek arrakalcan kati-gitate eudiezala gelditu zirean. Gixonak orduen, basayaunok an itxite, erbiek baiño ari-nego, sekuleko aïñinketadña ein ei-oan bere etzeke atea goatu arte.

Basayaunok zelan ondatu zireaneko barririk zarrak ezteuskue emon; baye eritxi bat, baso ilunek garbituteak basayaunen azkena ekarri oala esan geinke.

CERGORIO IPIZAR'KOARI YAZORIKOAK: Gergorio Ipizar'ko, gixon zintzoa, euzorako bakesue, guraso ona, eten bako langillea, ele aratia eta bere ingurukoentzat yarraigarri ixen zan. Berberak berari yazorikitzat esaten ebazanen arteti iru bakarrik emen iminiñiko doguz.

... Lau mille prakagorri... Aldi beten etzagunek, auteskunde edo eleziskoetan boto geyo eukitearren edo, lur gitxiegi eukiko euden ala ez begitu barik, alik eta erronterik geyen eukitera eiten eudien. Au zala-ta, durreti etzean bear eudien guztie ezin eudiela atara ta, etzeke bear-ixenak estalduteko, askok eukiten eudien aunts-taldetxoan bat edo.

Auntzek esnean ziranean, soloan bearrean aspertute, iluntze guztietan auntzek etzer-ekarten yoaten zan Gergorio. Mayatzeko egun beten, etzean goiztxoago urtenda, gorantza yoyala berantzean artzeako asmoz, Birduxine'n karga orri bet einde, ba-doa Belakondore

( JARAITZEKO )

... auntzek ekarten. Bertara eldu zaneko trumoi ta oñastarri bildurgarriek asi zireen, da auntzek ez euden urten gure armol-arteti. Gergorio etzan epe larrekoa onango ordutan; ernegago eutsien auntzok, ete bere estukure ta asarrean, begiek gora yasota, esan ei-oan: " !Premita Kisto! Prakagorri guztiek baletoz auntzok uxatuteko..." Ta esanaz batera, Belaukondo guztie prakagorriz bete ei-zen. Ixengo ei-zirean lau mille inguru, euren zaldi geneetan argi eiten eudiela. ! Alango zaldi ariñik eta ango erre-dure-otsa seguru be! Itzerik bigunenean be txatarrek ataraten ei-eudiezan. Berari buruko uleak be arteztu ta txapela gora gomatan yagi ei-yakon, eta odolak ur biurtu ei-yakoan. Auntzik, barriz, kortararte ikusi be ez; bildurren bildurrez oñizitue lez kortaratu ei-zirean danak.

Yasoak yasota be, berantzean karga orrie leporatu ta etzeratu ei-oan, orraitio. Baye zurbildurik eta odol barik eldu ei-zen; eta Barbara bere emazteak alan ikusi oanean, esan ei-otsan: " ¡Baye, zer dozu, gixontxo, giza-itxurerik be eztozu?" Gergoriok ez eukan ezer erantzuteko adorerik, eta afaldu be ein barik, oian sartu ei-zen.

BERE BIZIKO BIRAORIK ANDIYEGA.- Barbarak eta Gergorick sei seme-alaba guztiz eder ta mardoak azi eudiezan. Eurok indertsu ta sendo azteko, soloko bearraz ganera basolan batzuk be ein bear zituzten Gergorick. Esaferako, urtero artzean oan ikezgintzeten bat, eta soloan bearrik ez eukenetan, sarri ixengo zan basora egur txikertan.

Bein, onantxe egur-txikertan zoli ta gogatsu ibillela, azkora-kirtena garri-garriti zati bi ein yakon. Ezbear onek sutu oan Gergorio, berotxoa be ba-zanda. Ta azkora ori lurrera yaurtin, da begiek gora begira iminirik, azkora-kirtenari bere biziko biraio ikaragarri au bota eutson: " ! Txarri makera gorriek ezkurre intzenean yan baindu!" Auxe ixen ei-zen bere bizien bota oan biraorik andiena.

Birao ta sualdi au gorabera, ez ei-oan azkora-kirten ori, orraitio, basoan itxi; gomutagarritzet baiño ezpazan be, sekuen sartu ta atzera ekarri ei-oan eta beragaz eineko eskutille-ortz ederren batzuk urten ei-eutsien.

JUAN DOMINGO IBARGUTXI KO.- Eskolati argi larregi atara ezpaoan be, Juan Domingok goiko Yaunek emoniko argitasunik ba-euken; esaten yakona zur entzunde, gauze sakontxoa ixen arren be, beingoan artzean oan... Aurrekoari entzukeran begi-belarriek zur ixengo oazan; beatzetati burureiño baten baiño geyo begituko eutson, eta ondo gogotan artuko oan esaten eutsiena ze berbakaz azalduten eutsien be, ta etxakon ezer aiztuten. Au egiztateko, ona yazokun bet.

Juan Domingok eztabaideko gorabera guztiek lege-gixonen bitartez argitutea gure ixeten oan. Olango baten, 70 urtean gora zala, sarritan zan lez, euskeraz ondo egiten oan lege-gixon bategana yoan zan. Sartu zan, ba, lege-gixonegana, ta txapela kendu ta badinotso: " Egun on"... Eta lege-gixonak berari: " Jeungoikoak emon", erantzunde, mayen aurrez-aur ezarriazo ta dirautso: " ; Zer dakazu, Juan Domingo?"... Juan Domingo bere eztabaidearen goraberak agertu ta argituten asi yakon, noizik bein dirautsala: " ; Entzuten déust, yaune?" - " Ba-dantzut"... Arik lasterrera barriro: " ; Baye gauza aü ondo ikusten dau, gero?" - " Ba-dakust", erantzuten deutso lege-gixonak... Eta azkanez ba-diñotso Juan Domingok: " ; Zeinbet papel emoten deustez, yaune?" - " Bat bakarrik damotsut."

Orduen ba-dautso J. Domingo'k: " Yaune, gzelango berbetea darabil bedorreke?" - " ; Zelango berbetea eiten deutsudan? Ba, euskera garbie." - " Oin olan ezta eiten", dirautso J. Domingo'k. - " ; Len bai, ala?". Orduen J. Domingo'k: " Egie esan, len bai; atxine baten olantxe eiten zan. Oin irurogeta urteak direala, olantxe eiten zan euskerea Orozko'n.

El P. Lino ha estudiado, entre otros personajes, la figura interesante del herrador de Abando y gran vascófilo J.P. de Ulibarri (cfr.: el largo articulo publicado en "Zortzikote", Colec. "Olerti", I-II(1962) 121-142, firmado bajo el seudónimo de "Ax-mutil"...

A. ANTONIO GOIRIA, C.D.-

Natural de Cortederra (Galdicano), nacido el 1905, a pesar de haber andado muchos años fuera de su tierra natal, no ha dejado de cultivar asiduamente el vascuence. Prueba de ello son sus varios libros: "Befio-Otxoaren Bizitza", "Karmengo Eskapularioa"...

De su libro sobre nuestro Beato ofrecemos el cap. XI, ERIOTZA:

"... Bitartean non dago Befio Otxoa? Maitiñek efezetan egoan goizalde baten Aita Almatogaz. Oin-otsak entzun dauz euren moñoizk: "Oñatsak egiri dira emen. Ufin ez aira", iñohan. "Ixiltxuago - diñotse eurekanatuta -; arerioa emen dago-ta; Agintaria be ba'datofala dirudi". - "Ondo dago - diñio Batentinek -; olan ba'da, zer egiñik ez-dago".

Ta berealaxe antxe bertan: "Geldi danok - diñio Agintariak -; cinkadarik emoten ba'dozue, ilgo zaituegu". Irureun gudari ziran. Irureun gudari, gizon bi afapsu ta lotzeko. Egite onek Kristogaz judeutafak egin ebenaz antz andia ez ete-deuko?

30 kiloko kate bat lotu eutsen samatik, zildi (candado) bategaz itxirik. Moñoi-lagunak be eurekaz yoan gura eban, baña Balantinek diñotso: "Ez, seme; Mixiñora biurtu adi ta eure anaiak poztu egizak". Eta gaztea, begietan negar-malkoak eta biotzean min andia ebazala, misiñora biurtu zan bere Artzaiaren agindua beteteafen.

Balentin eta Almato urira eroan ebezan. Gurutza Santua eben saferan zapaldu egien. Belaunikotuta mun egin eutsoen biak. Balantinek jagita ba'diñotso Agintariari: "Agitari: Kristogaitik ilteko prest gagoz; baña Gurutza zapaldu... egundo be ez... ; edo bastertu egizu edo oinkada bat sufiera ez dogu emongo".

Begiak ondo zabalduta eta kementsu ta arean ikerarik barik esan ebazan Balantinek berbok. Euskeldun izakera egertu eban... Gurutza kendu eben, eta Balentin eta bere la guna urira sartu ziran. Oztetza andia bildu zan; euren artean kistar asko... Oztetza artetik igaro bear ziran Kristoren gudari leial biak kateakaz lotuta. Trang-Thuko gaztelura eroan ebezan; antxe egoan bilduta auzitegikoak. Nagusiak diñotso: "Izena zelan dozu?" - "Vinh da nire izena". - "Zenbat aldi (denpora) daroazu emen?" - "Lau urte". - "Non bizi zara?" - "Buitxuguko Bikariato Zentraleko Obispo naz, baña yazarpenakaitik Probintzi ontara etofi beaşa izan neban"...

Espetxera eroateko agindu eban Lendakariak; antxe egon bearko eben kaiola-bafuan yezañi barik, sutunik edo kukurizka. Antxe egoan Hermosilla Jauna ta Zanh bere laguna be. Bafiro alkar ikustean poz andia artu eben. Batera efezetan eben; Gure Jauna be egunero artzen eben mutiko batek ixillean eroan-da.

Gizon eriotzalle bat aurkitzen zan espetxe atan; bere kaiola eurekandik ur egoan. Eriotsaren bildur zan; Obispo arein kemen eta santutasunak afituta euken; ilteko pozafen egoan... Zelan zeitekean ori? Eurekaz berbetan asi zan; egizko argia laster ikusi eban; bateoa artu eban eta eurek lez eriotz on bat egin eban. Dimas lapur onak lez azken-orduan zerua irabasi eban...

Balentin Befio-Otxoaren bizitz-galluñera eldu gara. Azillaren lenengoa zan. Domu Santu- yaia; yai eder au zeruan ospatzeko gertuta dagoz Balentin eta bere lagunak.

Eguerdi... Eguzki beroak diz-diz egiten dau. Hay-Doungo kaleetan Trenh-Khan-espetxetik urtenda eriotz-tokiruntz doa oztetza: 500 gudari auñetik; gero iru elefante, ta onein ondoren Hermosilla, Almato ta Balentin kaiioletan... Bidean doazan bitartean otoi-dagie irurak eta bein urkamendira eldu diranean Hermosilla Jaunak gauza bi eskatu dauz: euren laguna il dagiela lenengo, ta ordu beteko bizia otoi egiteko... Ordua behera ta turuta entzuten da... Iru mixiolarriak eriotz-tokira uferatu dira. Artegatasunik ez dabe agertzen; pozaren dagoz. Iru taket agiri dira lufeak; andratxu batek sei azpiki (estera) ipiñi dauz beian luña estaldu dagien; iru zapi zuri ikusten dira azpiki onen ganean. Bigafen aldiz turutak yo dau; eztakai lotuta dagoz irurak. Ixiltasuna... alako baten tanbor-otsa... epaikariak agindua emon dau... Befio-Otxoaren ta Almatoren buruak lufeak dagoz lenengo ukaldian..."

AURRE-APRAIZ 'tar EALENDIN:

Nacido en Ajánguiz en 1912, espíritu inquieto, enamorado de su lengua materna, ha cultivado mucho tanto la prosa como la poesía, colaborando en las diversas revistas. A veces se ha convertido también en polemista fogoso:

NORA EROAN GURA GOZUEZ? : Azkenengo erroi-aldian agertu yakuzan erdal gogodun idazle batzuk oba euren idaztortza baztertu, ta erderarik ez dakien menditarren artera bizi izaten joango ba-lira, amar urterako, euren gogoak euskal-izatez jantzi ta euskaldunak egiten dogunez euskeraz egiten ikasi-arte; eta euskereari kalteak-kalte dagaitsozan erdal-kutsua erantzi, ta benetako euskaltasunaz gogoak apaindu dagoiezanean, idazten asi.

Esku-artelean daukat 1960'gko. 3-6 EGAN eta garramuraz irakurri ta birrirakurri doda daz dakazan lan guztiak... Baiña bi, bata baiño bestea ulergatxagoak: bata lorriña, ta bestea ganora gitxikoa. Jakin-gureak zirikatu ezpa-nenduan, irakurri bere enebazan egingo... Naiak egin bear izan nebazan, ba, ulertuko ba-heban. Bekokia eukan gizonak, egin eban euskereaz eta esan ebazanak Donosti 'ko euskalduneri esateko. Eta bai egotarria be entzuleak, azkenerarte iraun ba-eben entzuten, urduritu barik.

Bizkaitarra ta baso-basokoa nazenez, bizkaierea ondo dakit. Gipuzkerea bere, neiko ondo. Iapurderaz ondo-samar, ta zuberotarrena ta enpaiduak bere, taiuz ulertan doda; baiña gure bilbotarrak eta beste banaka batek darabillena, ez. Mungo euskerea da, ba, ori? "Amesetakoa" ala benetako menperatu ezin dabienena? "Orixé" maixu andiak esan dautsuenez, "Arriandiaga ta A. Urrutia ur gardena dira zuen aldean".

Neure euskal-odol basatia irakiten jarten yat olako euskerea betuurrean ikusi dengidanean, eta olakoen lanik barriro ez irakurteko gogoa sorten yat. Eneuke gura geure-geureak doguzan itz asko, beste iñkuntzetatikoak diralako baztertarik, baiña ez iñok ulertan ez daben eta geurea ez dan joskera naastea artu, ta "desajola, deserritu, pietate, empirikoa, astrato, esprimi" ta aulako gauzeztan itzekaz geure iñkuntzea lorrindu ta ondatuterik be...

Beste lorrin-zale batzu be ba-doguz, baiña gitxi, aitatu dodan onen laiñekorik. Batzueri gaitz baiño ezpa-da bere, ulertu be egiten yake; baiña omi...

Naiz garbitasunerantz naiz mordoillukerirantz bazterreregi joatea, kaltegarri yaku iñkuntzearentzat; eta onena, bien erdian geratutea; baiña garbi-zaleen alderatxuago, au bestea baiño urtxuago dago erriagandik ba-ta. Atzekoz-aurrerako ta goikoz-beerako joskera nazkagarri ori erriak ez dau ulertan, eta, bai ondotxim, garbikeri larregira jeusi ez dan euskera leuna.

Batzuek oarrez, (aprapoz), dabizala uste geinke erriak iñoz erabili ez daben joskera lorrin orregaz idazten. Villasante-Kortabitarte Abari irakurri dautset: "Komunisten artean jakintsuak ez omen diote ezeri sinbeste bildur, nola objetividadeko pekatuari". Zu ta ni, Aita Villasante, erri bateko seme gara. Zu, (uste dodanez), Errenteria'ko ibai-ertzean, (kale-ertzean) jaio ta kaxkondua; ni, zuenetik oñez orduerdiko bidera, Gantzabal tontorraren ertzean, Mendietako basoarte clerkoian jaio, azi ta bizi izana: bada, biok ziengiztarrak. Eta jakin bear zenduke, au aitatu dodan atal au. gure erri-inguruan aulan esango leukiela: "Komunisten arteko jakintsuak ez ei dautsi "ojetividadeko" pekatuari beste bildur ezeri". Zer dala-ta, ze zentzuaz bastertu, ba, adiskide; geure errietan ikasi genduan joskera garbi ta jatorra, benetako euskaldun zintzoek ulertu ezin daikien boste lorrin eta motz, (itzusi), orren ordez, antrixia txarto idatzitako idaztien batzuetan aurkitu dozuela-ta? Nora eroan gura gozuez?

Aldea makala Kereketa jaunak darabillan izkoreak eta zuenak. Gure olerkari goreneko onen idazkerea, ikasi naiz ez ikasi guztiak uler daroe oso-asorik, eta zuena zatikta txarto baiño ez...

Ikasi daigun besteari ulertako eraz idazten, eta beingoan indar-barrituko dogu gure berbeta maitagarria." ( de "JAKIN", nº 15, 1961, pp. 73-76 ).

AGUSTIN ZUBIKARAI.- Este fino escritor ondarrés destaca, sobre todo, en él campo del teatro, habiendo ganado ya varios primeros premios. Son conocidos sus "Kresaletan", "Seaska inguruau" y "Jaunaren Bidetan", representados con grandes éxitos. Son también muy finos de observación y gusto estético sus ágiles reportajes periodísticos, de los que a continuación podemos ver una prueba:

BELLOKE'n.- Urt deritxon erritxoaren zati bat da Beloke. Baña Baiona'tik beloke'ra juateko, ez sartu Urt'en gibelian. Kilometro mordoxka egin beariko zenduke erri burutik bertara.

Iru-lau bide ba dira Baiona'tik Beloke'ra. Ogetabost kilometro inguru, Bidatxe'ko bide nagusitik zear, gero Labastide'koa artuz. Edo Baiona'tik Asparne'ra juanaz, gendarmeriaren etxe ingurutik Ama Birjiñaren irudi polit eta maitekor batek dotorotzen duan bide-kurtzean, bide estu baña on bat artu ta zuzen elduko zara bertara 3 kilómetro inguru igaro ondoren.

Mendi-gaintxo polita Beloke oiñarrituten dana... Olerkari pin eta eztitsu batek maiteki ta samurki jakin dau berari kantatzen:

" Maite zaitut bihotzetik, maite zaitut, Beloke.  
Zure gaintto kartsuari, oro pinder ta bakhe,  
soinu-kantuz baitario gau-egunaz othoiz-khe ".

Konbentu asko dira Beloke baño ederrago... Anditasunez eta edertasunez bere gaiñeko ugari dira. Origaitik etze ta ormetako edergarrien billa ez igo bertara. Konbentu polit txukuna besterik ez da, gañerako ikusgarriak kenduta. Ori bai, garbi ta txukuna:

" Dalakoz garbi ta txukuna  
ala da argi ta kuttuna ".

Eleiza txikia. Aldarean Ama Birgiña'ren irudi bakarra, esku utzik, iñoi berakin euki eban Semetxoa gogoratu-eraziz. Nun da Semetxo ori? Bertatik Argentina'ra amesez ganezka urten eben anaiak, Beloke'ko garra ta biotza eruan guraz, beste obarik ez eben gogoratu Amaren Semea eurekin eruarea baño. Ordutik Ama dago Beloke'n ta Semea Argentina'n.

Batzar toki apala. Ikusi ditut sinbat konbentutən batzar leku ederrak. Beleke'ko apala da. Bertan orañarteko nausien irudiak, danak euskaldunak... Klaustro argi ta alaia, eguzkia bere aberastasun... Liburutegia ez andi ta ez txiki, baña bai dore, egoki ta eratsu ornidua. Ibiltoki atsegifñak ingurueta. Ta beti biotzari ikutu ta arimiai dar-dar eragiten dautsan ixiltasun beneragarria. Ta beti, etenbako otoiak, kantu xamur ta eztitsuak:

" Kantuz goazi lerro-llerro, kapa beltza farrastan,  
oro soinu, oro argi, behakoa iduzki.  
Kantuz goazi lerro-llerro, bihotz osoz airetan,  
lur hñutako ilhundurak shantzirik osoki ".

Zugatzarte atsegina baten buruan, iltoki txikia. Kurutze ta lur barditxa danentzat.

Aruntzago, tantai luzien kerizpean ainbat antxifñako il-arri, euskal kutsu ta tazuzko arri zar itzalgarri; liourreko ekaitzen lepoz, sinbeste gorputz euskaldunei azkenengo loa baketan eta itzalez egiten lagundu dautsuen kurutz-arri edo il-arri zar bedeinkatuak... Orain 400 urteko arriak be ba dira bertan. Esaera sakonak ditue, oroi-garri egokiak: "Bizia labur / iltzia segur// ez jakin noiz / berant ala aciz. Oroit Etchegoineko / argin atsegina..." Pentsamentuan sakondu nai duanak, be dau or guna ta mamiña.

Beloke'n ba dago txalotu ta aizetu nai neuken maitasun beresi bat: gure izkuntza, gure euskeraren maitasun kementsu ta gartsua...

" Hasi duzun lanari bihotz osoz lotuz,  
gu ere aiko gare, pertsuz eta kantuz,  
Eskualdunen bihotzen / Eskuaraz zabaltzen."

( Tomado de "KARMEL", 1962, pp. 115-116 ).

KEREXETA ter JAIME abade jauna.- De Elorrio (1918). Trabajador infatigable en pro del Euskera y de su difusión. Su gran labor es de todos conocida, sobre todo en el campo de la versión euskérica de textos religiosos: "Barri Ona", "Apostoluen Egiñak", "Eugenroko Meza"..., son las obras más importantes de las publicadas hasta el presente. Sabemos que tiene ya preparado todo el Nuevo Testamento, así como la versión de diversos Padres Apostólicos. También ha cultivado la Heráldica vasca y la Poesía ("Bittargi" y "Orbelak") y colaborado en muchas revistas, no pocas veces bajo seudónimos.

Por ser su obra tan conocida, nos contentamos con extraer algunos fragmentos, como muestras de su estilo y tendencia:

Fulton Sheen Gotzaiña ta neskatilla polit bat. -: Neskatilla politak, apaiñak eta gazdunak edozetarako balio dabe, danetarako... Ezagun-ezaguna da Fulton Sheen, Ipar-Amerika'ko Gotzain entzutetsu ta argia. Urteak dirala diardu telebiziñoan jarduten, eta milloika dira astero aren itzaldiak entzuten dabezanak. Irabazten dauan guztia, Sinismen-Zabalkunderako emoten dau, orain arte amar milloi dolar baiño geiago (600 milloii peseta).

Fulton'en arazoa ez da telebiziñoan berba egitea bakarrik, baita batetik bestera joan eta al dauzan leagun guztiek Kristo'gana ekartea be ba-da, Kristo'gaz geroago-ta alkartuago egin daitezan. Bereala irabazten dau bere ondoan jarten dan edozein. Begiria lengo baten jazo yakona:

" New-York'etik Boston'era niñoian egazkin (abioi) baten zan - diño Fulton Gotzaiñak -. Nire ondoan neskatilla gazte bat jesarri zan. Guztiz ederra zala konturatu nintzan beingoan. (Zorionez, ez daust ukatu Jaungoikoak ikusteko sentzuna). Ni berba egiten asi baiño lenago, neskatileak auxe itandu eustan:

- Ez nozu ezagutzen, Gotzain jauna?
- Ez, ba... - erantzun neutsan.
- Begiratu ondo... - esan eustan neskatileak.
- Orain be ez, ba. Ez zaitut gogotan. Millaka arpegi ikusten dodaz-te... -erantzun neutsan.

- Nik bai, ba: nik gogoratzen zaitut - esan eustan neskatileak -. Orain urte bi ikusi genduan alkar. Eta abioian ikusi be. Eta zuk auxe esan zeustan: " Neskatilla, gustiz ederra zara zu. Zegaitik ez darabizu edertasun ori Jaungoikoa ezagutzen ez da benai Jaungoikoaren "edertasuna" ezaguerazoteko?"

- Izan be, berba orreik esan dodaz noizbait...  
- Katoliku ona nazala uste dot, adoretsu-adoretsua izan eazarren - esan eban gasteak -. Arrezkero, zure berba areik sarritan etorri izan yataz gogotara, nire burua Jaungoikoari eskintzeko bultza egiten daustela... Bera ezaguerazoteko. Orain, barriz, orain gertu nago edozetarako.

- Ba... gertu ba'zagoz - erantzun neutsan - , etorri zaitez neugaz Boston'en jatsi gaitezanean bertan.

Eta neskatilea etorri egin zan. Gaur, Vietnam'eko legendar-etxe baten dago mixiolezi. Benetan, bere edertasuna Jaungoikoari eskiñi eutsan. Eta Jaungoikoak beste edertasun sakonagoa ta bikaiñagoa emon dautso: arimaren edertasuna".

Zenbat arazotarako balio daben ba'lekie jakin neska tillak...! Zetarako ez izan be? Neskatilla politak, apaiñak eta gazdunak batez bere?

( Publicado en "Jesus'en Biotzaren DEYA", 1964'ko Urrilla, 211-213).

Su lenguaje es claro y correcto; pretende discurrir por un camino medio entre el purismo a ultranza y el euskera "mordillo", sin que, naturalmente, le sea fácil contentar a todos... Su ardua labor de traductor fiel y su purismo grammatical parecen restarle, a veces, viveza y elasticidad a su prosa. De todas formas, D. Jaime Querejeta merece el aplauso de todos los euskaltzales: en estos últimos 25 años, ¿cuántos, en Vizcaya, han trabajado tanto como él por cultivar y difundir el euskera?...

MANTEROIA tar GABIREL abade jauna... De Ceñuri (1890). Además de su librito en verso "Goi-izpiak", ha publicado en prosa: "Santuen bizitza laburrak", "Ipuintxoak" (versión de los de Schmitt), "Itzaldiak"..., e innumerables artículos en las revistas "Jaungoiko-Zale", "Ekin" y "Yakintza", así como en "Redención" (bajo el seudónimo de "GAMA"); sin embargo, muchos de sus trabajos no han sido aún publicados. Sus temas predilectos son los culturales, filosóficos y religiosos.

ARTEGATASUNA.-- Gaurko munduari azalez begiratuta, gauza bat argi agertzen da. Gizonen artegatasuna. Alde ta gizarteko malla guztietan urduri, arteak artu ezinik da-kusguz. Munduaren bide kurutze baten bizi gareala esan geinke. Gizonaren asmakizunak egunetik-egunera andi ta arrigarriagoak dira. Baita gizonaren bearrizanak be. Asmakizunen ondorena, ondasunak ugaritzea, eta, jakiña, ortik bakoitzak albait sundiena eskuratzeko gurari ta alegiña.

Ondo dagoanak, obeto nai; naiko dabenak, geyago; txarto dagoana, onaren billa; ugari daukanak, ase eziña: guztiak artega, guztiak mitxeletaren antzera, esku-artetik iges egiten dautsen zorionaren billa, eta zorionik ez. Batzuk, bear dabenik ez; beste batzuk daudenagaz zer egin ez dakiela. Batzuk, urritasunez zoritzarreko; beste batzuk andi-nayez; eta ok-eginda dagozanak, larregikériz... Au da gaurko zoritzarra. Guztiak zorionaren billa, eta zorionik ez. Guztiak urduri, artega, noraezean, itsu-mustuan, bizitza-bidean surrera...

Zusterria non?... : Azaleko artegatasun onek zustrai sakonak ditu gizonaren buru ta biotzean. Lenengo tokia dagokiona - au da, arimako osasuna -, azkenengoan ipinten báda, goikoz-bera ibilliko da, eta ori ez da bide zuzena, beraz, ez zorioneko bidea be. Gogoko ez yakon egia aintzat artu ez, eta ondo datorkion guzurra aintzat artzen dabenak, gizon lez ez dau yokatzen, eta kristiñau lez gitxiago. Gogor egiten yakon egin-bearrari baño, errez egiten yakon atsegíñari yarraitzen dautsonak, bidetik urten da-ben trenaren antzera, burua ayurtzeko arriskuan dabil. Yaungoikoa ta Bere legea aintzat artzen ez dabenak, ala azalez bakarrik, bere burua egiten dau yaungoiko, ta bere inguruan dagozanak burua makurtzea nai dau, eta lurreko ondasun eta atsegín guztiak beretzat nai ditu... Gizonaren burua, egiak bakarrik asetu daite; gizonaren biotza, ontasunak bakarrik, eta egitik iges egiten baden neurriz, burua lauso izango dau, eta ontasunetik aldentzen dan neurriz, biotza zoritzarreko.

Norberagandik iges.-- Norberagandik iges egitea ez da gauza erreza. Alan da be, gaur egunean artegatasuna urrindu nai daben askok bide ori artzen dabe. Ainbeste yoan- etorri, ainbeste yolas, ainbeste yan-edan eta atsegín billa ibiltea, norberagandik iges egiteko ez ete dira? Baña barruko, kontzientziako arra orregaz ez da eteraten, sakonago sartu baño. Ori dala-ta, beti geyago naya ta asetu eziña. Zarata, iskanbilak yolas eta atsegín artean be, barruko deyak aurrera yarraitzen dau.

Itz baten, gizonaren buruak egi barik ez dau bakerik, eta ez da grifak ezi barik gizonaren biotzak. Yaungoikoagandik aldenduta iñok eta iñoz be ez dau zorionik aurkitu, eta gure biotza, Austin deunak diñoan lez: "Yaungoikoak egifa da-ta, ez dau bakerik Beragan atsedendu arte." (GAMA)

.....

MAITASUM-AGINTARITZA (Kristo-Erregeren Yaya).-- Urrilla ko azkenengo igandean Eleiza Amak Yesu-Kristo-ren Agintaritza edo Erregetzaren yaya ospatuten dau. XI<sup>er</sup> Pio<sup>II</sup> yai omi ipini ebanean, gaur "gizartea kutsututena daben" yaungabekeri edo "laisismo" guzurti ta iguingarriari aurrez-aurre erantzuteko asmoa agertu eban. Gaur Yesu-Kristo legeetatik, ikastoletatik, gexotegietatik, sendietatik eta gizartetik baztertu gura dabentzalde onistean, ez dago bide bat baño: guztiak Kristo-ren agindupean ipintea.

Naspillak eta ondamendiak, gauzak bere tokian ipinten ez diralako izan oí dira. Kristo-ri Yabetasuna osoa dago; beraz, ezin izan leiteke bake ta zorionik, Kristo-ren agintaritza guztien gain agertzen ez dan bitartean. Agintaritza su Kristo-ren

(JARRAITZEKO)

dagokio izatez Yaungoiko dalako, Gizon danez, yarauntziz, Beragan gizatasuna Yaungoiko-Semearen notintasunean batuta dalako, eta Berrerostez, Gurutzeko Eriotsaren bidez erosi ginduzalako. Gizon, sendi ta laterri guztiak Bereak ditu, eta euren Yaun-Yabetzat artzeko eginbearra dabe. Guk egi oneik adimenean artu, biotzean zustraitu, agoz autortu ta egitez bete bear doguz. Erregetza au izan daiteken gurenena, bearrekoena ta maitagarriena da, Eleiz-Amak egun onetako Yaupa edo Mezan esaten dauskunez: "Egi ta bizitzazko Agintaritza, deuntasun eta grazikso Agintaritza, zuzentza ta mai-tasun eta bakezko Agintaritza". ( Praef.)

"Egi ta Bizitzazko Agintaritza" : Yesu-Kristo'k Tomas deunari erantzuten esan eutson: "Bide, Egi ta Bizița Ni naz" ( Yon, XIV -6). Gizonak goi-bizitza beragantze-ko iru gauza oneik bear ditu: Bidea ezagutu, Egia beragandu, eta egi orrek argitutako Bidetik ibilli. Gizonak, egiñalak eginda be, iñondik iñora zorion biderik ezin lei aurkitu, ez egirik ezagutu, goi-egirik beintzat, ez goi-bizitzarik beragandu. Eta ez bakarrik, ez besteak lagundute. Kristo gura Yauna da bakarrik gizonari egi cri iraka-tsi leikiona. Eta Egi barik biderik ezagutzerik ez dago, eta Bidea Bera dalako, Kris-ture naimen eta egitearen yabe da. Eta Egia ta Bide barik, bizitzarik ez da- ta, Kris-to'k bakarrik bizitza ori emon leiskegu, eta, beraz, gure bizitzaren Yabe ta Errege da. Berari yarraitzen ez dautsona illunpean dabil; Bere bidetik ez dabilena, bideka-tuta; eta Bere bizitza ez dabena, ilda dago. Zoritzarreko ez izateko, bide bakarra dago ba: Bere Egiaz gure adimena argitu ta Bere bizitzaz bizitea.

Orixe dala-ta Yon deunak diñosku: " Betiko bizitza auxe da: Egiz Yaunpoiko bakarra zaran ori eta bialdu dozun Yesu-Kristo ezagutzea".(Yon,XVII-3). Olantxe agertuko da guregan Egi-Bizitzaren Agintaritza.

"Deuntasun eta grazizko Agintaritza": Eskar edo grazi donetzallearen bidez, Kristo'k bere bizitza emoten dausku. Eskarrezko bizitza onek, gure gogo-biotzak Beragantzen ditu, eta gure asmo, eretxi ta egiteak Yaungoikoarenakaz bat egiten dira. Yaungoikoari geure geideari ta geure buruari zor dautsoguna famonaz, Yaungoikoaren guraria betetan dogu, eta bide onetatik gure biotzera Kristo'ren Agintaritza eltzen da. Gorputz eta gogo, bere izate ta eragipen guztia Agintaritza onen menpean ipini dagiana, orixe, ziñez, deuna, deuntasunaren iturriaz bat eginda, Deuntasun eta Grazizko Apintaritza beragantzen dabelako. Bere griña ta zalekeri txar guztiak goituta gelditzen dira, ta Kristo biotz orretan Yaun ta Yabe izango da, Berari degokion lez. Agintaritza onen menpean bizteak, Bere seme ta zeruko yaubegei egiten gaitu. Gauza gurenagorik gizonari bururatu ete leikio? Orregaitik diñosku Eleizak: "Yaungoikoa otseintzea errege izatea" dala. Eta malla Orretara gizon guztioi deitzen dausku... .

"Zuzentza, Maitasun eta bakezko Agintaritza" : Kristo'eskarr bidez emoten dauskun bizitza onek, zuzentza dau eginbeartzat, legetzat maitasuna ta ondorentzat bakea. Zuzentzak bakotxari berea emonez gañera, oncoimen guztien ostasuna adirazten dau; bakotxa Yaunak izentatzen dauskun bidetik ibiltea, goi-maitasunezko urrezko lekarriak gubiotza Yaunagaz ta geure geideagaz bat eginda eukitea, eta onen ondorensa, Yaunagaz, geideagaz ta geure biotzagaz bakean bizitea. Gizonaren zorion guztia oingo ta betiko bizitzan be, orixe da. Adimena goi-argitan asetu, naimena maitasunez gartu, eta izate guztia iñoz aldatuko ez dan bakean murgildu. Ori gizon bakotxak, sendiak eta laterria yaritxi ezkero, zorion eztitan biziteko besterik bearko ete litzake?... Ori ez dalaiko egiten, ludiko zoritzar ta naspil guztiak sortzen dira. Gaurko zoritzar guztien itur XI<sup>g</sup>n Pio'k egunokaz barriro esan dabenez, Kristo'gandik aldendutean dago, Bere agintaritza ez autortzean. Ez dago ba, osakai bat beñ: Kristo'ren Agintaritza alde guztietan zabaldu, Kristo'ren bakea geuregandu daisun.

(Artículo publicado en la revista "EKIMB", el 28 de octubre de 1933).

ETXEBARRIAtar JUAN ANJEL.-: "Santurtzen jaioa (1934). Guraso erdaldunen semea.

Alan be, 17 urteko nintzala, asi nintzan euskera ikasten. Arrezkerò, "nulla dies sine linea", nire aldetik; eta "nulla dies sine calunnia" lagunen aldetik. Baiña, "contraria contrariis curantur"-eta, zenbat eta gogorrago ekin arerioak, gorago elduteko ustetan ni... Zertaz idatzi dodan euskeraz? Asmoz, "de omni re scibili"; egitez, "de omni re possibili". Al ba-dot, luzean, lenengoari lotuko natzaio. Ta beti be, euskaldun fededun."

Además de sus numerosas colaboraciones - en prosa y verso ("Dirsuket")-, en diversas revistas ("Karmel", "Olerti", "Zeruko Argia" y "Jesus'en Biotzaren Deya"), ha publicado: "Phedro'ren Alegiak" y "Martial'en Ziri-Bertsoak", con los textos latino y su correspondiente versión euskérica; así como unos "Apuntes para Clase de Vascuence" (Primer Curso).-

EUSKERA, ERLEJIÑOA TA EUSKALTZALEAK.- Euskerea ta erlejiñoa idazpuruarekin lan ernagarria argitaratu eban Aita Berriatua'k bere ANAITASUNA'n, joan dan aprillean. Berba bakoitzak pentsa-gai ugaria dau, luzaroan ausnartzeko. Sarri gogoan erabilliko al dabez Euskalerriko, ta batez be Bizkai'ko abadeak! Berriatua'ren lana luze samarra da-ta, zati batzuk baiño ez ditut aldatuko bere erritar aldizkaritik: ( zenbakiz sailkatu, neuk egin dot).

1) Aste Santuan, "Kristiandade Batzarrak" egon dira Bermeo'n... Batzarretan erderea bakarrik erabilli da. Ez egoan beste erremediorik, batzar zuzendariak bizkaitar erdeldunak zireanda... Baiña bildur naiz, Ekintza Katolikoaren antzera, movimentu onek bere, kalte egingo ez ete dautson euskereari, zuzendari geienak edo danak bizkaitar erdaldunak dira-ta.

2) Ondo dago, lan egin daiela gazte karreradunak, euskal kantak, dantzak eta teatroa Bizkai guztian zabaltzen... Bartzeko euskaldun gazteak, kantak eta dantzak baiño geiago, euren bizitzarako Ideal bat bear dabe. Ideal andi bat, juztizia ta maitasunezkoa. Ideal ori, Ekintza Katolikoak eta, batez bere, "Kristiandade Batzarrak" zabaldu gura dabe euskaldun gazteen artean.

3) Euskeraz dakienak, batez bere liderrak izan leitekezanak, movimentu orretan sartzen ez ba'dira, ez gaitezan gero keja, gure errietako gazteak erderara jo dabela-ta... Erantzunbear aundia dauke emen euskaldun gazte eskoladunak, euren kontzientziaren eta Bizkai guztiaren surrean.

Aita Berriatua'ren itzak eraginda, asmalanean ekin da ekin, orra zertzuk bururatu yatazan: Zuzendariak oraiñarte lez erdaldunak ba'dira, ez dago zalantzariak, igikunde orrek kristau-bizitzaren amaia ta euskal erioa ekarriko dauskuz.

Kristiandade Batzarrak ideal andi bat zabaldu gura ei dabe gure artean. Baiña ideal ori zabaldū-baiño len, jakin bear leuke, kristiñau euskaldunak gareala. Ta, justicia ta maitasunezko idealia izanda be, badirudi aztu egin dirala, zuzendarien zuzendariak beintzat.

Bearrezkoa yaku euskaldun liderrak izatea. Baiña lan onetan euskaldun gazte karre-radunak baiño erantzunbear andiagoa dabe euskaldun sotanadunak. Ta prakadunen erantzunbearra aztu barik, lenago sotanadunen aldetik garbitu bear dala auzia, nik uste.

Orain denpora gitxi dala, abade batek esan eustan euskerak ez daula zer ikusi an-dirik fedeagaz. Bere errian, euskerak atzerakuntza andia egin arren, kristiñau-bizitzak asko irabazi daula. Zergaitik? Kristiñau-bizitza bikaiña, erderaren bidez emon dautselako eleistar orreri. Ta zergaitik ez euskeraren bidez? Erlejiñoak eta euskerak irabaziko eben, nire ustez. Abadeak ez dira gurera etorri Barri Ona zabaltzeko bakarrik; baita geure "Zar" onak gordetzeko be. Olan bear leule beintzat. Baiña, zer gura dozue, abadeak kristiñau-bizitza (dotriña, erretiroak eta abar) erderaz emon ta gu euskaldun liderrak izatea?... Nik ba-dot lagun on bat, Bizkai'ko baserri baten

(JARRAITZEKO)

... abade dagona. Kristo'ren legea bere erritarai (eleiztarra) azaldu orduan, ba... ba..., asten da pulpitutik. (Erderaz obeto ei daki, karreraduna da-ta). Bizkaiko abade bat k alboko bateri eskatu eutson jai baten itzaldia egiteko. Ta abade gaztiak (eskoladuna bera) ezetz, ez ekiala euskeraz ainbesterano. Bai, neuk be errazoa emoten dautset orretan: euskera galdu arren, siñismena indartu leiteke... ta buruauste andirik bage bizi, gaiñera.

Baiña, olakorik agindu ete eban Jaunak? Biotz-samiñez autortu bear dautsuet egi argia: eleiz-gizon askok uste dabe euskaltzaleok beste jainko bat egin dogula lurrean. Ez! Ta milla bider ez! Gure Jaun bakarra Goikoa da! Ta Goiko Jaun onek ondasun bat ipiñi dau gure eskuetan: euskera. Orain, euskeraren truke izan ezik, ez ete dasku federik emongo? Ez dot uste Jaungoikoa orren biotz gogorra daitekenik.

Euskaldun eskoladunak erantzunbear andia dogu. Egia. Baiña guk ez daukagu Eleizan eskubiderik au edo ori egiteko. Eleizak berak erakutsi bear dausku bidea. Kristiande Batzarretan euskaldun liderrak sortzeko alegindu ete da Bera? Es dogula iñoi ezskatu? Seminario ta Domund egunetan, dirua batzeko, euskal orriak zabaldu dagizuezala be, ez dogu iñoi ezskatu. Ezta Ekuador'ko "montuviosk" be iñoi ez dabe eskabiderik egin, emendik ara mixiolaria Joan daitezcan. Zer? Orrenbesteko fede sendon dogula uste dozue, Eleizaren maitik ogi-apurrik be guri ez emoteko? Ez arritu gero, ta ez keja, gazte euskaltzaleak, Jainko-Eleizaz aztuta, beste izakiengang begiak josita badabiltz." ( De "KARMEL", 1959, Irailla-Urrilla, pp. 10-11)

.....

J.A. Etchevarria se ha dedicado en gran parte a la labor de versión, especialmente de autores clásicos greco-latino. He aquí un trozo de Jovellanos:

ZEZENAK: Guztiz arritzekoa da, izan be, gai au argitzeko gatxa bai'litzan eztabaidan erabillia izatea. Zezenen burruak ez dira iñoi izan egunerokoak, ez sarri egiñak, ez EspaÑi'ko erri guztietakoak, ezta geienak billatu ta txalotuak bere. Probin-tzi askotam eztira iñoi ezagutu; beste batzutan, uri-burueta bakarrik. Eta iñun egiten ba'ziran, epe luzeka bakarrik; uritarrak edo inguruko baserri bat edo beste-koak baiño etziran eurak ikusten bilduten. Uste izateko da, beraz, EspaÑi'ko erri-tarren artean eunetik batek bakarrik ikusi dauala noz edo noz jostaketa au. Nundik nora, orduan, aberri-jaia ezendatu nai izan dabe?

ERROMERIAK: Esan leiteke, erriak Asturias'en, bere erromeriak kendute, beste jolas-biderik ez dauala. Erromeri-izena damotse, erromesaldien antzekoak diralako, erri-aldeko santutegietara jai-egun batzutan egiten dira-ta, bertan ospatzen dan Deun za-indariaren jaia dala-ta.

Eguna zabaldukoze ba-datoz, bideak betean, baselizara doazanak, oneraspenak, ikus-gurak edo jolasgurak ekarrita... Erromerietara datoan guztiak, eldu ta berealaxe, al dabela, baselizan sartzen dira euren otoitzak egiten. Ikusgarria izaten da, gero, jende apal onengan nabari oi dan tolesgabeko jaiera. Lekuko santu zaindariaren iru-dia, txikerra ta izugarri motz edo liraiña, gotikar taju ta egikerakoa, gaizki era-tua ta alde guztietatik sitsak eta pipiak janda izanda be, ikusiko zeunke (ikasbide-reko, atan be) gure baserritar on ta olizkoia, aren aurrean auspezturik, burua makur, eskuak kurutzatuta, zelan eskatzen eutsoen, biotz-sutsu-ustetsuz, euren bearri-zan ta naigabeak arintzeko...

...Dantza orreik, gure gaurko dantzaketa ez legez, soin-biurketa gogor berarizko gr-beak dira. Griña gogor eta guzurrezkoak adierazteko egoki izaten baitira olakoak. Beste dantza-mueta oneik, barriz, igikera geldi-neurtuak dabez, biotz bakun-sentikor baten aldarte baretsuaren ezaugarri. Guzti au, ustelkeri ao-zuriak basatitzat jotzen dauzan errientzat obari dan ala ez, ez dot uste argitzeko gatxa danik."

( Asturias'ko erromeri ta Len-dantzazko Antonio Ponz jaunari eskutitzet).

- .&&&&&&&&&&&&& -

P. Cándido BASABE, S.J. — Elmer Ibarra pp. Jesuita vascuence que más ha. testigo de su labor en pro del euskera, destaca este benemérito Padre, natural de Lequeitio y que consagró su vida a la predicación, publicando algunas obras piadosas destinadas al pueblo sencillo. Por ello, su vascuence es popular, abundante y ágil.

MEZA SANTUA.— Ez gure erligiñuak dauko, ez Jaungoikuak berak asmau lei Meza Santua baño gauza andiago ta mesedegarriagorik. Jesu-Kristo gure Jaunak Aita Letikuari Kalbarioko mendian eskiñi eutsan opari edo sakrifiziua berbera da Mezia, desbardin-tasun bategaz; Kalbariuan Jesu-Kristo gure Jaunaren odola izurten zala, Meza-tan ez; beste guztietan bat dira.

¡Zelan, orduan, batzuk, peseta bi edo iru abade jaunari luzatuta, esaten deutse: "¡Zenbat balio dau Meziak?" ¡Zer da diñozuna? ¡Badago munduan urrerik ez zidarrik Meza bat erosteko? Munduko aberastasun gustiak utsak dira, arima bat diabruaren men-petik atera, ta inpernura biarrian, serura eruateko. Barriz orretarako Jesu-Kristo-ren odol tanta batek ainbeste balio ba-dau, ¡zenbat balioko ete-dau bere odol gustiak? Ba, Meza batek, Jesu-Kristo gure Jaunaren odol gustiak-aña, balio dau.

Sacerdotiak Mezia emoten dabenian, diño Kenpis'ek, goratzen dau Jaungoikua, aingeruak poztutene ditu, Eleizia geituten dau; emoten deutse biziai laguntasuna, atseden illai. Mezatan zabalik dagoz zeruak, eta aingeruak gora-ta-bera dabiltz geure eskariak eruan eta Jaungoikuaren esker edo graziarik ugarienak geuganatzen. Mezatan iñozko onduen goretsi edo ondraten da Jaungoikua, zor deutsaguzan mesediekaitik es-kerrak emoten deutsagaz, parkatzen jakuz pekatuak eta eskuratzen doguz laguntasun eta emojkariak ederrenak. Munduaren asieratik amairano gizon eta aingeru gustiak Jaungoikuaren maitetasunez miñ eta oiñazik gogorrenak igaro ta ezerbeztutene egonagaz baño, atsegin eta goratasun geyago artzen dau Jaungoikuak Mezatan. Munduko pekatu astun eta ugariak ainbeste iraindu ta atsekabetutene badabe Jaungoikua, asko be geyago goratu ta poztutene dau Meza batek.

Izanik, ba, Meza Santua gauza aiñ andi ta mesedegarria, ¡zelan eztira kristiñauak geyago zaletutene sarriago entzutera?"¡ Zelan, diño dana naibageturik mixiolari entzutetsu batek, egoten dira nagi, epel, ganora barik, arrauzika, erdi-lo, albora-begira, barreka, berbetan? ¡ Zer deritxazue, altaran suspez belauniko zagozen aingeru Santuak, gure lotsabagetasun eta aberekeria onegaitik? Ah! lurreko errege baten aurrian moduz-kuaguak egongo giñake: Jesu-Kristo-ren jayotzan medu obian egon zirian asto ta idia, gu Mezatan baño. Oh, aberiak baño aberiaguak! Oh itsutasuna! Oh esker gaiztokuak! Eta ze kastigu gogorren begira gagozan!" Agaitik urteten gara Mezatik len baizen otz. epel eta gaitzo.

( De "Eleis-Liburuchua", 1912-Bilbao).

ERIOTZEA.— (II) garren atala: Bildurgafia da eriotzea bertan gertatzen diranakaitik):

1º.— Gaisoa agertzen da, !eta ze isillik sañitan! Ez dirudi gauza andia, buruko min bat, albokoa. Osatzalleari deitzen yako. Ez dau txafik ikusten. Ufengo egunean arpegi illunagoa erakusten dau; ta diño: "! Ekarriñ abadea!" Mendi bat lez jausten dira berba onék entzuten dabezanen senide ta lagunen biotzen ganera. Ezkutaten yako batzuetan gaisoari bere egoerea; baña, txafagoaren bilduñez, esaten deutse: "!Urlia! .ez da gauza andia, baña !osatzalleak...! ! abadea...! Au entzun dakoan, gaisoak: "¡Zer? ¡Ain txarto nago?"

2º.— Abadeari deitura, gaisoaren estutasunak eteten dabezan une batzuetan, egiten dira kontuak, sañitan urte askotakoak. Egin leikez ondo, egia da: pekataririk andien azkenengo unean biurtu leike Jaungoikoagana. Baña gorputza estu, miñez ezin egonda; burua astun, biotza illun, azken-naya edo testamentua egin bear, asti gitxi: ¡au da, biotza aldatzea baizen arazo gatxa egiteko erarik onena?

( JARRAITZEKO )

!Ai, Jauna! ontxe, astia emoten deustazunean, burua argi, biotza baketsu, osasunean, zuzendu nai dodaz neure gogoko gauza guztiak. Ontxe nai dot benetan Zeuganatu neure biotz au. ! Ama Maria!, lagun zakidaz!

3.<sup>en</sup> .- Eskribaua be bator, eta dirautso gaisoari: "Urlia! ¿Nori izten deutsazuz zeure ondasunak?" Eta gaisoak edegi bere ezpan orituak, eta berba motelagaz crantzu ten deutso: "Izten dodaz etxeak... izten deutsedaz soloak... izten deutscdaz diruak...! Guztia itxi, itxi...! ¿Eta beretzat zer izten dau? Ezer bez. Zazpi oñeko kaxatxo, soñeko zaf bat, luñ-zulo txiki bat: naikoa dau. Eta efukiz emoten ez-badeutse, ain barik geratuko da.

! A, zelako atsekabea aberastasunak maiteegi izan dabezanarentzat! Ainbeste izerdiz lorturiko laukoak, ¿noren eskuetara iges egingo ete-deuste? ¿Eta gerizea lez iges beaf deusten diru onek batzeko ainbeste alegin? !Ai benetako aberastasunak, beti neugaz eukiko nebazanak, jaristeko, alegin ofrek egin banebazan!

4.<sup>en</sup> .- Iltamua (agoliña). Auñera doa gaisoa; geroago ta estuago dago: izerdi lizunetan, zufa zofoztuta, belafi ta ezpan-ertzak ori, begiak erdi-itxita; agoa zabalik, agiñak agirian, bulaña jasota, arnasa-oska: eldu da unerik estuena, !iltamua! !agoliña! Kurutzeko Jesus auñean, kandela bedéinkatua alboan, senide ta lagunak ne-gafez inguruan, Abade jauna liburu santua eskuan dabela ondoan. !Arek dira uneak! Abade jaunak dirautso: "!Proficiscere, anima christiana, de hoc mundo! !Urten, kristiñau-arimea, mundu onetatik! Jaungoiko ta santu guztien izenean. Bigun eta gozatsu agertu dedilla zutbat Jesus'en arpegia".

Gaisoa, arnasa luze batzuk emonda, geratzen da geldi, ago ta begiak erdi-zabalik; mil da!

(III'gafen atala: Bildurgafia da eriotzea bere ostean datozañakaitik)

1º.- Arimearen aldetik.- Arimea gorputzetik urten eta bat-batera agertzen da Je-su-Kristo'ren auzitegi, tribunalean...

2.<sup>en</sup> .- Corputzaren aldetik.- Kentzen deutsez bere soñekotxoak, garbitzen dabe, jasten deutse beste soñeko bat, ez geyenean onena. !Ze otz, ze gogoñ dagon! ¿Nor da berakin bakarik gau osoan egon dagiana? Sartzen dabe kaxatxoan, eta iñoren lepoan daroe obitegira, berak pekatuz bete ebañan kaleetatik zear. Ipinten dabe zazpi oñeko zuloan, botaten deutso abadeak luñ apuf bat, beteten dau zuloa obitzalleak (enteñadoreak); nai dabent guztiak zapaldu dagian, mundu guztia ostikopetu nairik ibilli dan gizon edo emakume afoa: axe izango da emendik auñera bere bizi-lekua: estua, illuna, isilla, itzala...

Bigafen Egunerako asten da korpua margoak (koloreak) aldatzen. Andik laster ez da go iñor, daron atsari arpegi emongo dautsanik. Afak, ainkaka, egiten dabez zulorik askor arpegian, begietan, korpu guztian. Ogeigafen eguneruntz aragia azuréstatik aldatzen da, burua be bai korputik; gero iztafak, besoak. !Iru urte! ¿ta zer biurtu da util sendo a? Azaletiko edertasunaz ainbeste efukafiri zoratu erazo eutsan emakume afo a, ¿zer egin da? Aizeak eroan dabent lufun atsitu apuf bat, esku bete luñ baltz, lau azuf: !ofa dana!

( De "San Iñazio'ren Ejertzioetako GOGARTEAK", 2<sup>a</sup> edic. - Bilbao, 1926.- Recientemente ha sido reeditado este hermoso libro por D.Jaime de Kerexeta, con retoques).

En el Prólogo de este libro expone el P. Basabe la finalidad que persigue:

"...Ejertzioetara datozañak, etxeratuta be, emen gogoratu dabezan egi andiak gomutau ta bafiztu dagiezan. Bardin diñot Misiño Santuakaitik be. Ganera, afigafia da ze gitxi diran Euskaldun-artean, gogarteari (meditaziñoari yarduten deutsenak: joñegaitik-edo ézango ete-da, gure artean ain santu gitxi aurkitzea? Egia esan, libururik be ez daukagu ofetarako, kaskañ batzuk baño-ta. Gogartera zaletu zaitezan, ba, emoten deutzugu liburu au, Euskaldun kristiñau maite ofi...")

R.M. de AZKUE.- En sus 4 tomos de "Euskaleñaren Yakintza" Azkue supo dejarnos las joyas del folklore vasco, en un momento decisivo, ya que éste era, a juicio de Tovar, el último instante histórico en que era posible recogerlo... En su tomo II recoge, con texto bilingüe (eusker-a-castellano), "Ipuin ta Irakurgaiak" (Cuentos y Leyendas), de algunos de los cuales el mismo Azkue opina: "Badira, geiegi ezafen, edozein eñiren ipuin ta irakurgaien ondoan, aintzat artuak izateko eran, agertzeakoak ere..."

No obstante, no falta quien reprocha a Azkue no haber reflejado fielmente el lema gauje popular de aquellos de cuyos labios recogió estos tesoros, sino haberlo reelaborado (al contrario de D.José M. Barandiarán)...

De entre estos cuentos que, a juicio de Azkue, destacan más, escogemos uno vizcaíno, titulado

### IKASKIÑAK YAUREGIAN, edo oraintsuko Adan ta Eba.

Senar-emazte, seinik bagako, ikazgintzan bizia nekez aufera eroen biri, egunik etxaken igaroten pexada bagarik. Irutarik bitan yazoten eztana, senaÑa zan etxe tutu atako izkaldi geienetan itufia. Ezeutsan, baina, emazteari arpegiartzen (ezin eukeantxa) alpeñeriagaitik (maratz-maratza zan) ez ordikeriagaitik (urak lenago bere ezebar inor orditzen) ez min-askatuegia zalako. Misinoe batzuetan burua sartu ekion senaÑari emakuma batek, lenengoak, ekaÑi euskuzala gure atsakabe ta neke, gose-egarí, eri ta ericotza, munduko gora-bêra mingarí guztiak. Eba zazpi bidar aitatu bagako egungitxi izaten ziran etxe atan.

- Aingeru ezpataria neu izan banitzon, bera ilgo ñonan nik eta kitu. ! Emakumea izan bear yonan gauza ona izateko!

Geienean isilik egoten ekion ikazgiñari emaztea. Batzuetan, ofegaitino, ezeban atzerako bagarik izten:

- Eba, zorioneko eta ~~meritxafe~~ko Eba ori, eure ama be(re) bazoan. Bera bakafik egon balitzok, etxoan ak obenik egingo; baina an yeukan kaltzandi, an yeukan Adan ! eta yakiña! Bata ikusguratzoa, bestea yatun, salobre, beteeziña; ta bien artean sagara azal ta guzti klak bafura.

Onelangoxe izkaldi baten bitartean, batak esane eta bestea erantzun, Eba ta Adan ao-minean erabilezala, eñege eizari bat ikaztoi-ondoan agertu ekioen. Euren zufumuÑu ta ezta-bada zolia zegaitikoa zan yakieran.

- GizaÑaÑo andiok, erdu neure yauregira bizi izatera --, esan eutsen.

Lotsa gofitan, pozafen bazab bere, tipitapa, tipitapa, yoazan biak eñegeren ondoreñik. Yauregian sartu ziranekoxe, ofatzetik arako soineko edefak yantzi eraginda, amesetakoak zirudien logela, langela ta bazkalgelak aukeran ipini eutsezan. Eñegek, ofegaitino, euren soineko ketsu urtetsuak arduraz gorde eragin ebazan. Yauregiari egokion baratze muga bagakoan une zabal ikusgarí, zuraritez, loraz ta arnariondoz ederto ornidua, euren atseginerako izentau eutsen.

Beste autugai askoren artean auxe bein baino sañiago esan eutsan senaÑak emazteari: - "Mari, amaika bidar txutxu eragin daunat, Eba zala ta etzala; baina neure ekiñari eskeÑak gaiagonaz gu zer nai ta axe daukagula. Bestela ¿zer?; oraintxe be txondofari ta i lapiko okela bagakoari puzka."

